- (29) ***Masaren aurkako kredituak aurretik kentzeko modukoak dira, hots, konkurtso-kredituak ordaindu baino lehen, masa aktibotik kendu behar dira pribilegio berezidun kredituei lotuta ez dauden ondasun eta eskubideak*** [ZCP-Lt, Konkurtso Legegria, Deustuko Unibertsitatea (2006)]
- (30) ***Horretarako, Lehiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo autonomikora gertakariaren berri ematen***

duen pleguaren kopia igorriko du, eta halakorik izanez gero, baita salaketaren, bestelako dokumentuen eta egindako proben kopiak ere, **hau da**, espedientean jasotako agirien berri emango dio organo autonomikoari, eta pleguan interesatu gisa ageri direnei horren berri jakinaraziko zaie [ZCP-Lt, Lehia Defendatzeko Legea, IVAP/IZO (2007)].

- (31) *Epaitegi berri horien izentazioak euren eskumeneko gaien izaera nagusia aipatzen du, baina ez du erabateko identifikaziorik egin nahi, merkataritzako jakintzagai edo legeriarekin. **Bestela esanik, hasierako momentu honetan merkataritzako epaitegiei ez zaizkie eratziki merkataritzako gai guztiak, eta, gisa bertsuan, epaitegien eskumeneko gai oro ez dira merkataritzakoak** [ZCP-Lt, Konkurtso Legeria, IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala eta Deustuko Unibertsitatea (2006)]*

Bakanagoak dira, azkenik, itxuraz funtzio argumentatiboa duten eta inferentziakotzat jo daitezkeen birformulazioak (32) (33)

- (32) *Aldeek konpromisoa hartu dute ezabatzeko, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, **alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea eragin dezaketenak** [ZCP-Lt, Hizkuntza-Zuzenbidea: Testu-bilduma euskaraz, Euskaltzaindia (2007)]*
- (33) *Arean ere, tratamendu hori esangura zabalean ulertu behar da, eta ez esangura murrizgarrian. **Bestela esanda, ulertu behar da irakaskuntza-askatasuna dela hezkuntza-esparruan dauden askatasun eta eskubideen multzoa** [ZCP-Lt, Zuzenbide Politikoren legeria. Deustuko Unibertsitatea (2007)]*

Aztertutako corpusetik bildutako adibideek erakusten dutenez, funtzio horiek guztiak betetzen dituzte hiru birformulatzailerik esplikatibo nagusiek (*hau da*, *alegia* eta *hots*); *hau da*, ez dirudi inolako espezializazio funtzionala dutenik. Alabaina, geroratu orde, birformulazioa perpausean aposizio gisa txertatzen denean (sintagma baten birformulazio gisa eskuarki), *hots* markatzailea besteak baino maizago erabiltzen da (34) (35).

- (34) *Euskal Herrian ditugun unibertsitate handi bi, **hots, Deustuko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea**, honelako lan bat egiteko elkarrekin harremanetan jarri genituen [ZCP-Lt, Zigor Kodea, Deustuko Unibertsitatea (2004)]*
- (35) *Eta testu berriak aurrekoak baino artikuluko gutxiago baditu ere, ahaleginak egin dira *artikulu garrantzitsuenei, **hots, epai zein ebazpenetan gehien aipatzen direnei***, aurreko zenbaki bera emateko [ZCP-Lt, Hipoteka Legeria, Deustuko Unibertsitatea (2004)]*

Bestalde, lehenago ere esan denez, azalpenezko birformulazio aposatu gabeen kasuan maizago erabiltzen da *hau da* markatzailea beste hirurak baino (30). *Bestela esanda* eta horren kideek ere funtzio metadiskurtsiboak zein funtzio argumentatiboak betetzen dituzte lege-testuetan atzemandako adibideetan. Alabaina, adibide horiek oso bakanak dira eta, ondorioz, ezin dira erabakigarritzat hartu.

Laburbilduz, nahiz eta birformulatzaile esplikatiboek lege-testuetan agerpen-maiztasun txikiagoak dituzten beste alor batzuetako testuetan zein alor bereko zuzenbideko testu akademikoetan baino, birformulatzaileek kategoria honi, oro har, egozten zaizkion funtzio nagusi guztiak betetzen dituzte lege-diskurtsioan. Nolanahi ere, ez dirudi *hau da, hots* eta *alegia* markatzaileek inolako espezializaziorik dutenik, hirurak erabiltzen baitira lege-testuetan orotariko birformulazio esplikatiboak bideratzeko (erreferentziak, azalpenezkoak, definizio bidezkoak...). Bestalde, lege-testuetan atzemandako ia adibide guztietan birformulatzaile esplikatiboek funtzioa metadiskurtsiboa da (alegia, erreferentzia esleitzea, esanahia argitzea, definitzea, izendapena); bakana da azalpenezko funtzioa birformulakizuna perpausa denean, eta are bakanagoa funtzio argumentatibo edo inferentziakoa. Hala ere, badirudi atal birformulatzailea perpausuan tarteki gisa txertatzen denean *hots* maizago erabiltzen dela beste markatzaileak baino, eta azalpenezko birformulazio aposatu gabeen kasuan maizago erabiltzen dela *hau da* beste markatzaileak baino. Betiere, EUDIMA corpusean bildutako lege-testuetan atzemandako joerak dira horiek.

3.4. Testu akademikoak: balio eta erabilera nagusiak

Aurreko atalean ikusienez, birformulatzailerik esplikatiiboek maiztasun nabarmen handiagoak dituzte zuzenbideko testu akademikoetan lege-testuetan baino. Izan ere, 3.2. ataleko 1.1. irudian ikus daitekeenez, zuzenbideko testu akademikoetan birformulatzailerik agerpen-maiztasuna oso handia da. Alegia, Zientziaren eta Teknologiaren alorreko corpus jakin batzuk kenduta, zuzenbideko testu akademikoak dira balio birformulatzailerik esplikatiiboek agerpen-maiztasun handienak dituztenak, betiere, EUDIMA corpusen bildutako testuei gagozkiela. Bestalde, testu akademikoek eta lege-testuen arteko maiztasun-datuak aldeak estatistikoki esangarriak dira (% 99tik gorako fidagarritasun-tartean) *alegia*, *hau da* eta *hots* markatzaileen kasuan. Ikuspegi horretatik, beraz, hiru birformulatzailerik esplikatiibo horiek zuzenbideko testu akademikoek adierazletzat jo daitezke zalantzarako tarte handirik gabe.

Zuzenbideko testu akademikoetan markatzaile hauek dituzten eginkizunei bagagozkie, bestalde, datu estatistikoek erakusten dutenez (ikus 5. taula), birformulazio esplikatiiboek % 65 inguru azalpenekoak dira eta birformulakizunaren ondoren txertatzen dira berbaldian, aposatu gabeko enuntziatu baten bitartez, eskuarki, puntu batez edota puntu eta komaren bidez bereizirik. Lege-testuetan, berriz, askoz bakanagoak dira mota horretako kasuak (% 11,35 inguru). Alegia, lege-testuetan birformulazio esplikatiibo gehienak erreferentzia esleitzekoak, definiziozkoak edota izendapenezkoak dira; testu akademikoetan, aldiz, azalpeneko birformulazio aposatu gabeak. Joera hori ere testu akademikoek adierazletzat jo daiteke. Izan ere, birformulazioek zuzenbideko testu akademikoetan dituzten testuinguruei erreparatuta, erraz antzematen da eragiketa horiek zerikusi zuzena dutela gehienetan zuzenbidearen irakaskuntzari berariaz atxikitako funtzio diskurtsiboekin.

Horrela, bada, identifikazio-balioa duten erreferentziako birformulazio esplikatiiboek, esaterako, legeek, teoriak edota adituek diotenaren erreferentziak emateko erabiltzen dira eskuarki (36), (37), (38). Horrelako kasuetan, atal birformulatzailerik *-(e)la* menderagailua duen perpaus konpletiboa izan ohi da (36); baina, batzuetan, aipamena ez da zehar-estiloan ematen (38).

- (36) Aspalditik kriminologia teoriko zein praktikoak *honako azalpen hau* ezarri zuen gazte delitugileei buruz: **alegia, gehienek (ez guztiek) gizartean aritzeko baliabide kognitiboen eskasia eta atzerapen nabarmenak dituztela** [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala, Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (37) Horiez gain, *zera* galdatzen zaio, **alegia, eragiketaren parte hartu eta independente izaten jarraitzen duten enpresen lehiarako jarreraren inolako koordinaziorik ez gertatzea** [ZCP-Ak, Lehia babesten duen Zuzenbidea. Join Venture. I. Altzelai, ELERIA (2002)]
- (38) Dena den, une honetan, *erdiko gunea delakoari buruz esandakoa* ekarri behar dugu gogora; ***hau da, prozesu zibilaren kasuan, batzuetan, interes publikoa nagusituko da eta berarekin batera beharrian-printzipioa -ezgaitasun kasuetan, esaterako-, eta prozesu penal batzuetan, aukera-printzipioa izango dugu oinarri -kalumnia-kasuetan, adibidez-*** [ZCP-Ak, Zuzenbide Prozesalerako sarrera, A. Saiz, UPV/EHU (2006)]

Horrez gain, legeek diotena zehazki jasotzeko ere erabiltzen dira (39) (40) eta baita lege-erreferentziak zehaztasun handiagoz emateko ere (41). Erreferentzia horiek gehienetan euskaraz emanak datoz (39) (41); baina zenbait kasutan gaztelaniaz ematen dira (40).

- (39) Foru Legeak *artikulu bakar bat* eskaintzen dio eremu ez-euskaldunari; ***hots, «Aitortu egiten da herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela. Azken hauek interesatuei gaztelaniazko itzulpena eska diezaiokete, edo 9. artikuluan aurreikusitako itzulpen zerbitzuak»*** [ZCP-Ak, Euskararen egoera juridikoa Nafarroan, J. L. Mendoza, ELERIA (2002)]
- (40) Era berean, lerro hauetan 1985eko *Uraren Legeak 1.2 atalean zehazki azpimarratzen duena* hitzez hitz gogoratzea komeni da, ***hots, «las aguas continentales superficiales, así como las subterráneas renovables, integradas todas ellas en el ciclo hidrológico, constituyen un recurso unitario, subordinado al interés general, que...»*** [ZCP-Ak, Emari ekologikoa, X. Ezeizabarrena. ELERIA, (2001)]

- (41) Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoa, esate baterako, *azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoan* sortu zen, **Ikastetxeen Parte-Hartzeari, Ebaluazioari eta Gobernuari buruzkoan alegia**, eta beste hirurak, berriz, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren xedapen bidez sortu ziren [ZCP-Ak, Hezkuntza Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako zenbait kideko osatzeko legea, X. Ezeizabarrena. ELERIA, (2008)]

Zehaztapen-funtzioa duten erreferentzia esleitzeko birformulazio esplikatioak, bestalde, berbaldira ekarri nahi den gai, informazio edota datu berriren bati bidea egiteko estrategia gisa erabiltzen dira; alegia, estrategia honen bidez irakurlearen (ikaslearen) arreta bideratzen da atal birformulazioetan jasotako informaziora (42) (43). Zenbaitetan enumerazioei bide egiteko erabiltzen da (44).

- (42) Hona hemen adingabeen zuzenbide penalak eduki beharko lukeen *berezitasunetatik bat*: **zuzenbide penala hezitzailea izatea, alegia** [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala. Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (43) *Lehenengo kasuan -hau da, zilegi ez den kausa bat duen kontratuari dagokionez-*, kontratua deuseza litzateke. [...] *Bigarrenean -hau da, zor gabe interesak ordaintzen direnean-*, errakuntzak ez du garrantzirik [ZCP-Ak, Zuzenbide zibila III. Betebeharren zuzenbidea, erantzukizun zibila eta kontratuen teoria orokorra, Ibon Viteri, UPV/EHU (2011)]
- (44) Hala kontzeptu nagusien -bai orokor eta komun, bai berezien- arloa itxita, *beste hiru irakasgai geratuko dira*, legearen zehaztasunetan gehiago sakontzeko: **alegia, delitua (laugarren ikasgaia), horren aurrean emandako erantzuna (bosgarren irakasgaia) eta biktima (seigarren ikasgaia) jorra ditzagun** [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala. Jon-Mirena Landa (Koord.), UPV/EHU (2011)]

Adibide-sorta honek erakusten duenez (36-44 adibideek, alegia), erreferentziako birformulazio esplikatioetan diskurtso-markatzaileek zeregin garrantzitsua dute bai lege-teorien eta bai lege-testuen erreferentziak ber-

baldian txertatzeko; eta, aldi berean, berbaldia osatzen duten elementuak modu egokian bereizi, antolatu eta kohesionatzeko. Alegia, testuinguru horietan birformulazio-markatzaile esplikatiboek funtzio metadiskurtsiboa dute (kanpoko erreferentziak berbaldian txertatzea) baina baita funtzio testuala ere (informazioa egituratzea eta kohesioa indartzea).

Definiziozko birformulazioak, bestalde, maiz samar erabiltzen dira zuzenbideko testu akademikoetan kontzeptu juridikoen adiera zehatza emateko (45) (46), kontzeptu juridikoen adiera modu samurrean emateko (47) (48) eta latinez emandako kontzeptuen esanahia argitzeko (49) (50). Definizioa emateko edota adiera argitzeko, askotariko egitura sintaktikoak erabiltzen dira.

- (45) Testamentuak, printzipioz, *notariala* izan behar du, **agiri publiko baten jaso, alegia** [ZCP-Ak, Familia Zuzenbidea. Leire Imaz, UPV/EHU (2009)]
- (46) Kideek *boto partikularra (hots, gehiengoaren iritziarekin bat ez datorrena)* idatziz aurkez dezakete. Idatzia aurkezteko berrogeita zortzi ordu izango dituzte, eta aktari erantsiko zaio [ZCP-Ak, Administrazio-zuzenbidea-atal-bereziak. I. Urrutia, UPV/EHU (2008)]
- (47) Ezegitea, aldiz, *itxarotekoa zen hura ez egitea da, alegia, Zuzenbidearen ikuspegitik egin behar zuena ez egitea* [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala, Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (48) Kontratua bada izan, pertsona bat edo gehiago ados daudenetik, beste pertsona bati edo batzuei begira, beren burua gauzaren bat ematera edo zerbitzuren bat egitera behartzeko (KZren 1254. art.). Kontratuaren alderdiek *efektu juridikoa, hau da, betebeharrak sortzera zuzendua dagoen adostasuna ematen dute (haien borondate komuna adierazten dute)* [ZCP-Ak, Zuzenbide zibila III. Betebeharren zuzenbidea, erantzukizun zibila eta kontratuen teoria orokorra. Ibon Viteri, UPV/EHU (2011)+
- (49) Eskubide errealak *erga omnes efikazia du, hots, edozeinen aurrean aurkatu liteke* [ZCP-Ak, Eskubide Errealak, Leire Imaz, UPV/EHU (2009)]

- (50) Onartu egin eta gero, *cretioaren bidez*, **hots, esanbidezko adierazpen solemnearen bidez** [ZCP-Ak, Zuzenbide erromatarreko praktikak, J. Arieta-Araunabeña eta B. Ganboa, UPV/EHU (2008)]

Definizio bati zer kontzeptu juridiko dagokion adierazteko (51), edo termino juridikoen aldaerak aipatzeko (52) edo beste hizkuntzetan emandako kontzeptuen euskarazko baliokideak emateko (53), berriz, izendapenezko birformulazioak erabiltzen dira. Izendapenezko birformulazioak maiz samar erabiltzen dira, halaber, kontzeptu baten azpikategorizazioei berbaldian bide egiteko ere (54).

- (51) Gizatasun-printzipioak, berez, ondoreak dakartza *askatasuna kentzen duten zigorren inguruan* (**zigor askatasun-gabetzailetan alegia**), batez ere aipatutako zigorrak betearazi behar diren fasean [ZCP-Ak, **Adingabeen zuzenbide penala**, Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (52) Bi hitzetan, Konstituzioak araugintzarako lankidetza-printzipioa ezarri nahi du *legegilearen eta administrazioaren artean* (**Legearren eta Erregelamenduaren artean, alegia**), eta legeari dagokiola neurri hori izango den agertzea [ZCP-Ak, **Administrazio Zuzenbidea: atal bereziak**, Iñigo Urrutia, UPV/EHU (2008)]
- (53) Egun normalean biek zuzenbidea ikasten dute, *baina bachellor titulua lortu ondoren abokatu bihurtzeko egin beharreko azterketak edo degree-ak*, **graduondoak alegia**, desberdinak dira batzuentzat eta besteentzat [ZCP-Ak, **Epailtzara nola sartu Ingalaterran eta Galesen**, I. Ordeñana, ELERIA (2002)]
- (54) Instituzioak edo erakunde publikoak. Erakunde publikoak sortzetikoak dira. Erakunde-administrazioa da deszentralizazio funtzionalaren adibidea. Kasu horretan, *lurraldedun administrazioak* (**hots, Estatuko administrazioak, Autonomia Erkidegoko administrazioak edo Toki-administrazioak**) erakunde bat sortzen du, hari dagozkion zereginetatik batzuk (funtzio batzuk) erakunde berriak bete ditzan [ZCP-Ak, **Administrazio zuzenbidea eta ekonomian esku-hartzeko teknikak**, Iñigo Urrutia, UPV/EHU (2010)]

Azalpenezko birformulazio esplikatiiboak ere maiz erabiltzen dira konzeptu juridikoen esanahia argitzeko. Zeregin honetarako azalpenezko birformulazio aposatu gabeak erabiltzen dira gehienbat (55) (56).

- (55) Eta agian, garrantzitsuena, gazteen *delitugintza «normala»* dugu, zentzu deskriptiboan -ez balioesteko asmoarekin- ulertu behar duguna. **Alegia, gazte gehienek bere gaztaroan delituren bat egiten dute baina, bakarrik salbuespenez bihurtzen da delituak egitea ohiko jarduera (ez da «karrera kriminala» sendotzen) eta, denbora pasa ahala, delitu egiteari utzi egiten dio gazte izandako helduak** [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala. Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (56) Horrekin esan nahi dugu egoera batean arau bi edo gehiago batera gertatzea. Horretarako *hierarkia printzipioa kontuan hartu beharreko erregela bihurtzen da, baina Lan Zuzenbidean ez da erregela bakarra. Beste era batera esateko, hierarkia batez ere subordinazioa eskatzen duten arauen arteko harremanetan aplikagarria izaten da eta hori ez da beti gertatzen lan arauekin* [ZCP-Ak, Lan Zuzenbidearen iturriak, K. Gorostiaga. ELERIA (2000)]

Era berean, azalpenezko birformulazio aposatu gabeak erabiltzen dira, halaber, lege edota printzipio juridikoen interpretazioei (57) (58) edota inplikazioei (59) (60) bide egiteko ere.

- (57) *Legeak zenbait baldintza zehaztu ditu eskumena bereganatzeko aukerari ekin dakion, eta hori horrela izanik, eskumena bereganatzen denean, arrazoitu beharko da (14.2). Hots, goiko organoak agertu beharko du zergatik bereganatzen duen bere menpekoaren eskumena* [ZCP-Ak, Administrazio-zuzenbidea-atal-bereziak, I. Urrutia, UPV/EHU (2008)]
- (58) Kasu honetan, Estatuko epai sistemaren erpinean dagoen auzitegira joatea eskubide bat da herritarrentzat: *Auzitegi Gorenak ezin du aukeratu zein kasu ezagutu nahi duen eta zein ez; beste hitz batzuetan, derrigorrezko eskuduntza dauka (mandatory jurisdiction), legeak helegitea aurreikusten duen guztietan auzitegiak helegite hori ezagutu behar duelarik* [ZCP-Ak,

Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa: Lerro nagusiak (1), I. Ordeñana. ELERIA, (2003)]

- (59) Batzuen ustez, derrigorrezkotasuna ohituratik eratorriko da, KZren 1089. artikulua lege esapidean barneratzen dena (Alguer, Pérez González). *Beste batzuek, berriz, onartzen dute berez ez duela betebeharrak sortzeko gaitasunik; baina, aldi berean defendatzen dute, promesak hirugarrenei itxaropenak sortzen badizkie, promesa egin duenak ezingo duela edonola ezeztatu. **Hau da, haien ustez, itxaropen bat sortu duena derrigortuta dago*** [ZCP-Ak, Zuzenbide zibila III: Betebarren zuzenbidea, erantzukizun zibila eta kontratuen teoria orokorra, Ibon Viteri, UPV/EHU (2011)]
- (60) *Bestalde, akusatzaileak akusazioaren oinarria aurkeztu behar zuen; **hots, frogak aurkeztu behar zituen.*** [ZCP-Ak, Zigor Prozesu Adierazlea, K. Etxebarria, I. Ordeñana eta J. Perez, UPV/EHU (2007)]

Laburbilduz, zuzenbideko testu akademikoetan ugariak eta esangarriak dira birformulazio-markatzaile esplikatiboen agerpenak eta erabilerak. Batetik, oso maiztasun handia dute, EUDIMA corpusean jasotako testuetan behintzat. Bestetik, berariazko zereginak dituzte ideia eta kontzeptu esangarriak berbaldira ekartzeko; teoriaren eta legeen erreferentziak diskurtsoan txertatzeko; kontzeptu eta terminoen aldaerak eta hizkuntza desberdinetako ordainak emateko; zuzenbidearen printzipioen eta kontzeptuen esanahiak argitzeko; eta printzipio zein kontzeptu juridiko horien inplikazioak azaltzeko. Eragiketa horiek burutzeko erreferentziatzko, definiziozko, izendapenezko eta azalpenezko birformulazioak erabiltzen dira. Alabaina, aztertutako testu akademikoetan maizago agertzen dira kontzeptuak eta printzipioak argitzeko eta haien inplikazioak azaltzeko pasarteak, bestelakoak baino (definiziozkoak, ordainak ematekoak...). Ondorioz, birformulazio-markatzaile esplikatiboak maizago erabiltzen dira aposatu gabeko azalpenei bide egiteko zereginen, beste eginkizun batzuetan baino. Horrek argituko luke lege-testuen eta testu akademikoaren artean atzemandako alde estatistikoen arrazoia. Dena den, erabilera metadiskurtsibo hau lagungarria da, bide batez, testuaren harian informazioa bereizi, antolatu eta josteko ere. Alegia, markatzaile hauek oso lagungarriak dira, halaber, testuaren kohe-

sioa eta konexioa bermatzeko ere. Alde horretatik, baliagarriak izan daitezke testu akademikoek duten helburu komunikatiboa erdiesten laguntzeko, hau da, irakurleentzat (ikasleentzat, alegia) ezezagunak edota ulergaitzak izan daitezkeen ideiak edota kontzeptuak ulergarriagoak egiten laguntzeko. Alde horretatik ere logikoa dirudi zuzenbideko testu akademikoetan (zientzia eta teknologiko zabalkunde testuetan bezala) diskurtso markatzaile hauek gehiagotan erabiltzeak, lege-testuetan edota zabalkunde-asmoa ez duten bestelako testuetan baino.

4. Ondorioak

Lan honetan aurkeztu ditugun datuek zein adibideek erakusten dutenez, birformulatzailerik esplikatiboen agerpen-maiztasunek eta erabilerekin lotura estua dute diskurtsoaren nolakotasunarekin. Izan ere, erabilitako datu estatistikoek adierazten dutenez, birformulatzailerik esplikatiboen agerpen-maiztasunek korrelazio esangarria dute bai eremu diskurtsiboarekin eta baita –arlotan juridikoko testuen kasuan behintzat– testu-generoekin ere. Alegia, eremu diskurtsiboaren arabera eta testu-generoaren nolakotasunaren arabera, pisu erlatibo desberdina izango dute azalpenezko eragiketa diskurtsiboek eta, ondorioz, desberdina izango da, noski, sail honetako markatzaileen agerpen-maiztasuna ere.

Eremu diskurtsiboaren eta testu-generoaren araberrako joera bereizgarri horiek oso agerikoak dira, hain zuzen ere, arlotan juridikoko testuetan. Izan ere, azterlanaren hasieran aurkeztu diren datuen arabera (ikus 3.2. atala), alor honetako lege-testuek euskarazko testu orokorren antzeko ezaugarriak dituzte (birformulatzailerik esplikatiboen agerpen-maiztasun erlatibo ertain-txikia eta orekatua, eta nagusiki, erabilera metadiskurtsiboa); zuzenbideko testu akademikoek, berriz, Giza eta Gizarte Zientzien eta Zientzia eta Teknologiararen alorretako testuen antzeko ezaugarriak dituzte (birformulatzailerik esplikatiboen agerpen-maiztasun erlatibo handia eta, aldean, azalpenezko erabilera nabarmen ugariagoa). Alegia, lege-testuetan birformulazio partzialak dira ugariak eta testu akademikoetan, berriz, erabateko birformulazioek dute pisurik handiena.

Bestelako eremu diskurtsiboetan bezalaxe, testu juridikoetan lau markatzaile erabiltzen dira nagusiki birformulazio esplikatiboei bide egiteko: *alegia*, *hau da*, *hots* eta *bestela esanda*. Lauren pisu erlatiboa antzekoa da lege-testuetan eta zuzenbideko testu akademikoetan. Hala ere, azterlan honetan egiaztatu dugunez, lege-testuetan birformulazio esplikatibo gehienak aposizio moduan agertzen dira (sintagma soil baten birformulazio gisa eskuarki) eta horien artean ugariak dira birformulakizunaren enuntziatuan tarteki gisa txertaturik ematen direnak. Bada, EUDIMA corpuseko adibidetegian ikusi dugunez, inguramendu horretan lau markatzaileak ageri badaitezke ere (*alegia*, *hau da*, *hots* zein *bestela esanda*), lege-testuen kasuan *hots* erabiltzeko joera egiaztatzen da. Testu akademikoetan, berriz, nabarmen ugariagoak dira azalpenezko birformulazio esplikatibo aposatu gabeak, eta, corpuseko datuen arabera, inguramendu horretan maizago erabiltzen da *hau da* beste hiru markatzaileak baino. Ondorioz, *hots* birformulatzailerak pisu erlatibo handixeagoa du lege-testuetan, eta *hau da* markatzaileak, berriz, agerpen nabarmenagoa testu akademikoetan; betiere, testu horiek dituzten be-reizgarri diskurtsiboen adierazle gisa.

Zeregin diskurtsibo zehatzei bagagozkie, bestalde, egiaztatu dugunez, birformulatzailerak esplikatiboei markatzaileen kategoria honi oro har egotzen zaizkion funtzio nagusi guztiak betetzen dituzte lege-diskurtsioan: erreferentziakoak, definiziozkoak, izendapenezkoak eta azalpenezkoak (*hots*, ez dirudi *hau da*, *hots* eta *alegia* markatzaileek inolako espezializaziorik dutenik). Hala ere, batetik, azalpenezko birformulazio aposatu gabeen adibide gutxi topatu ditugu lege-testuetan; bestetik, sail honetako markatzaileak lege-testuen aurkezpen eta zioen ataletan agertzen dira nagusiki. *Hau da*, lege-testuetan markatzaile hauek funtzio metadiskurtsiboa dute nagusiki eta gutxitan agertzen dira lege-testuen artikuluetan, ez bada kontzeptu baten bi izendapen edo termino erlazionatzeko edo formulazio sintaktikoa soildu eta ulergarriagoa egiten laguntzeko (adibidez, lege-izen konplexuak berbaldian txertatzeko orduan; gaztelaniazko bertsioan eskuinera hedatzen diren erlatibozko esaldien kateak euskaraz emateko orduan; eta abar.). Testu akademikoetan, aldiz, askotariko zereginak esleitzen zaizkie markatzaile hauei, betiere, testu hauek duten azalpenezko funtzioari hertsiki atxikiak; *alegia*, zuzenbidearen alorreko kontzeptu, ideia eta teoriak azaltzeko edota argitzeko helburua duten pasarteetan.

Hori horrela, corpuseko adibideek erakusten dutenez, esan liteke markatzaile hauen erabilera zentzu betean dela estrategikoa testu akademikoetan, hain zuzen ere, ez dirudielako erabilera hori, besterik gabe, ausazkoa edota berbal-diaren haria kudeatzera datorrenik. Aitzitik, markatzaile hauek berariazko asmo kognitibo-diskurtsiboa duten estrategiei atxikita agertzen dira eta estrategia horiek (kontzeptu eta ideia juridikoak azaltzea; kontzeptuak argitzea; definizioak ematea; termino juridikoen aldaera samurrak eskaintzea; legeen edota kontzeptu juridikoen inplikazioak agertzea; eta abar) irakaskuntza-asmoari lotuta datoz, zalantzarik gabe.

Horrenbestez, esan liteke azterlan honetan agertutako datuek berretsi egiten dituztela sorburuko hipotesiak. Alegia, agerian uzten dituzte birformulatzailerik esplikatiboez arlo juridikoko testu mota desberdinetan (lege-testuak/testu akademikoak) dituzten banaketak eta erabilerak. Baina, areago, egiaztatzen dute aztertutako diskurtso-markatzaileek berez dutela funtzio komunikatibo estrategikoa; hau da, hartzaileari diskurtsotik inferentziak ateratzen laguntzeko gida edo jarraibide moduko batzuk eskaintzeko funtzio diskurtsibo berezkoa dutela, eta funtzio hori hertsiki lotuta datorrela testu-generoaren nolakotasunarekin eta zeregin komunikatiboarekin. Beraz, aurkeztu ditugun datu estatistikoak zein adibideen analisi kualitatiboak ikuspegi horretatik hartu behar dira; alegia, testuen inguramendu diskurtsiboari atxikita aztertu eta interpretatu behar dira; izan ere, lan honen euskarri teorikoak azaldu direnean agertu denez, inguramendu diskurtsibo horretan aztertzeak dira markatzaile diskurtsiboak berak hizkuntza-kategoria gisa ere.

Aipaturiko bibliografia

ALBERDI, X., 2011a, «Diskurtso-markatzaile berri bat: *hurrenez hurren* birformulatzailerik», *ASJU*, XLV-1, 301-325.

———, 2011b (prentsan), «*Erran nahi baita* birformulatzailerik esplikatiboa gaurko prosan», *ASJU*, XLV-2.

ASCHENBERG, H.; LOUREDA, Ó. (eds.), 2011a, *Marcadores del discurso: de la descripción a la definición*. Frankfurt am Main Iberoamericana-Vervuert.

———, 2011b, «Introducción. Marcadores del discurso: descripción, definición, contraste», Aschenberg, Heidi/Loureda, Óscar (eds.): *Marcadores del discurso: de la descripción a la definición*. Frankfurt am Main: Iberoamericana-Vervuert, 9-31.

BACH, C., 2001, *Els Connectors Reformulatius Catalanas: Anàlisi i Proposta d'Aplicació Lexicogràfica*, IULA/Pompeu Fabra, Barcelona, internet: <http://www.tdx.cat/handle/10803/7487>

BLAKEMORE, D., 1997, «Non-truth condional meaning», *Linguistische Berichte* 8, 92-102.

———, 2002, *Relevance and Linguistic Meaning: The Semantics and Pragmatics of Discourse Markers*. Cambridge: Cambridge University Press.

BORJA, A., (2000), *El Texto Jurídico en Inglés y su Traducción al Español*. Barcelona: Ariel.

CUENCA, M.J., 2012, «La gramaticalización», Iraide Ibarretxe-Antuñano, Javier Valenzuela (Dir.): *Lingüística cognitiva*, Barcelona: Anthropos, 281-304.

ESNAL, P., 2002a., «Testu-antolatzaileak», *Hizpide*, 50, 25-36.

———, 2002b, «Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa», *Hizpide*, 51, 19-33.

EUSKALTZAINDIA, 1990, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 1999, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 2008, *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.

FUENTES, C., 2009, *Diccionario de conectores y operadores del español*. Madrid: Arco Libros.

GARCÉS, M.P., 2008, *La organización del discurso: marcadores de ordenación y de reformulación*. Madrid: Lingüística Iberoamericana.

———, 2009, *La reformulación del discurso en español en comparación con otras lenguas (catalán, francés, italiano, inglés, alemán e islandés)*. Madrid: Universidad Carlos III de Madrid. Boletín Oficial del Estado.

GÜLICH, E.; KOTSCHI, T., 1983, «Les marqueurs de la reformulation paraphrastique», *Cahiers de Linguistique Française* 5; 305-351.

———, 1987, «Les actes de reformulation paraphrastique dans la consultation La dame de Caluire». *L'Analyse des Interactions Verbales*. Ed. P. Bange. Berna: Peter Lang. 15-81.

———, 1995, «Discourse Production in Oral Communication. A Study Based on French», Quasthoff. U. (ed.): *Aspects of Oral Communication*. Berlín: De Gruyter, 30-66.

HERNÁNDEZ GIL, A., 1986, *Saber Jurídico y Lenguaje*. Madrid: Espasa-Calpe.

HERNANDO, L.A., 2003, *El Lenguaje Jurídico*. Madrid: Verbum.

LARRINGAN, L.M., 1996, *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboa eta argudiapenezkoa*. Doktorego-tesia, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

———, 2007, «Testu-motak eta testu-antolatzaileak: zer lotura?», Plazaola, Itziar/Alonso-Fourcade M^a Pilar (eds.): *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea*. Donostia: Erein, 119-134.

LLAMAS, C., MARTÍNEZ, C., eta TABERNEIRO, C., 2012, *La Comunicación Académica y Profesional. Usos, Técnicas y Estilo*. Zizur Txikia: Aranzadi-Thomson Reuters, Colección Despachos.

LOUREDA, Ó., ACÍN, E., (koord.) 2010, *Los estudios sobre marcadores del discurso en español, hoy*. Madrid: Arco/ Libros.

MARTÍ SÁNCHEZ, M., 2008, *Los marcadores en español L/E: conectores discursivos y operadores pragmáticos*. Madrid: Arco/Libros.

MARTÍ SANCHEZ, M., 2011, «Los conectores discursivos (entre los otros marcadores discursivos y los otros conectores)», *Linred, Lingüística en la red*, IX, 05-11-2011, 1-37, (<http://www.linred.es/numero9.html>), Universidad de A Coruña, http://www.linred.es/numero9_articulo_8.html

MARTÍN ZORRAQUINO, M^a A.; PORTOLÉS, J., 1999, «Los marcadores del discurso», I. Bosque y V. Demonte (ed.), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Madrid: Espasa, Vol. III, 4051-4213.

MARTÍN ZORRAQUINO, M^a A., 2010, «Los marcadores del discurso y su morfología», Ó. Loureda y E. Acín (coords.), *Los estudios sobre marcadores del discurso en español, hoy*, Madrid: Arco/ Libros, 93-181.

MAZZI, D., 2011, «*In Other Words, ...: A Corpus-based Study of Reformulation in Judicial Discourse*», *Hermes – Journal of Language and Communication Studies*, 46-2011, 11-24.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (RAE), ASOCIACIÓN DE ACADEMIAS DE LA LENGUA ESPAÑOLA, 2010, *Nueva gramática de la lengua española, Sintaxis II*. Madrid: Espasa Libros.

ROBLES, F., 2012, «Marcadores de reformulación alemanes: entre la conexión y la argumentación», *Revista de Lingüística y Lenguas Aplicadas*, Vol. 7, nº 1 (2012), 213-224.

ROSSARI, C., 1990, «Projet pour une typologie des opérations de reformulation», *Cahiers de Linguistique Française*, 11, 345-359.

———, 1993, «Projet pour une typologie des opérations de reformulation», *Cahiers de Linguistique Française*, 14, 151-171.

———, 1997, *Les operations de reformulation*. Bern: Peter Lang..

ROULET, E., 1981, «Échanges, interventions et actes de langage dans la structure de la conversation», *Études de Linguistique Appliquée*, 44, 7-39.

———, 1987, «Complétude et connecteurs reformulatifs», *Cahiers de Linguistique Française* 8, 111-140.

URRUTIA, A., 1990, *Euskara Legebidean*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

———, 2008. «Legeen eta administrazioaren hizkera, testu-antolatzaileen ikuspegitik», *Euskera* 53, 2008-2, 525-546.

———, eta LOBERA, A., (arg.) (1997), *Euskara, Zuzenbidearen Hizkera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

VÁZQUEZ VEIGA, N., 2011, «El tratamiento lexicográfico de los marcadores del discurso», *Linred, Lingüística en la red*, 02-05-2011, 1-20, Ana M^a Cestero Mancera, Manuel Martí Sánchez (coord.): *I Jornadas de lengua y comunicación: marcadores discursivos. Anexo monográfico* (<http://www.linred.es/numero9.html>), Universidad de A Coruña, http://www.linred.es/numero9_monografico1.html

VILCHES, F. eta SARMIENTO, R., 2010, *Manual de Lenguaje Jurídico-administrativo*. Madrid: Dykinson.

ZABALA, I., 1996, «Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketen antolatzailleak: *hau da, hain zuzen (ere), adibidez, batez ere*», I. Zabala (koord.): *Testu-lotu-*

rarako baliabideak: euskara teknikoa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 113-130.

Aipaturiko corpusak

Ahotsak, internet: <http://www.ahotsak.com/>

Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD): <http://ehu.es/ehg/epd/>

Goenkale, internet: <http://ehu.es/ehg/goenkale/>

Pentsamenduaren Klasikoak, internet: <http://ehu.es/ehg/pkc/>

Zientzia eta Teknologiaren Corpusa (ZTC): <http://www.ztcorpusa.net/cgi-bin/kon-tsulta.py>

ZIO corpusa, internet: <http://www.ehu.es/ehg/zio/>

XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, internet: <http://www.euskaracorpUSA.net/XXmendea/>



*Dena dela, dena den, edonola ere, balio askotariko diskurtso-markatzaileak*¹

Dena dela, dena den, edonola ere, marcadores de discurso polivalentes

Dena dela, dena den, edonola ere, marqueurs polyvalents de discours

Dena dela, dena den, edonola ere, polyvalent discourse markers

GARCIA-AZKOAGA, Ines M.
Euskal Herriko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2013-04-02

Noiz onartua: 2013-07-09

¹ Lan hau ikerketa-proiektuak garatzeko laguntza hauei esker egin da: EJKO IT418-10, US10/10 eta MV-2012-2-34.

Dena dela, dena den, edonola ere eta *edozeelan ere* birformulatuzaile urruntzaileen balioak eta erabilerak aztertzen dira lan honetan. Azterketa hurbilbide diskurtsibo-pragmatiko batetik egiten da. Horretarako behar diren hizkuntza-ekoizpen enpirikoak eskuratzeko, euskarazko corpus zabala osatzen duten testuetatik ateratako adibideak baliatzen dira. Erabilerari erreparatuz gero, emaitzek erakusten dute, kontzesiozko eta argudiozko balioez gain, markatzaile hauek balio diskurtsibo anitz bereganatzen dituztela eta, bestalde, lau birformulatuzaileek elkarren baliokide moduan funtziona dezaketela.

Hitz-gakoak: diskurtso-markatzaileak, birformulazioa, kontzesioa, diskurtsoa, lokailuak, testua.

En este trabajo se estudian los usos y valores de los marcadores de discurso polivalentes *dena dela, dena den, edonola ere*. El estudio se ha realizado desde una aproximación discursivo-pragmática y para los casos lingüísticos empíricos que demanda tal aproximación, se han utilizado ejemplos de los textos que componen el amplio corpus lingüístico vasco. Los resultados demuestran que estos marcadores, a parte de tener un valor concesivo, se apoderan a su vez de un valor argumentativo y múltiples valores discursivos. Hay que añadir, además, que estos reformuladores pueden funcionar como equivalentes entre sí.

Palabras clave: marcadores de discurso, reformulación, concesión, discurso, conectores, texto.

Ce travail étudie les usages et les valeurs des marqueurs polyvalents de discours *dena dela, dena den, edonola ere*. L'étude a été réalisée à partir d'un rapprochement discursivo-pragmatique et pour les productions linguistiques empiriques qui requièrent un tel rapprochement, on a utilisé des exemples de textes qui constitue le vaste corpus linguistique basque. Les résultats démontrent que ces marqueurs, mis à part le fait d'avoir une valeur concessive, prennent alors une valeur argumentative et de multiples valeurs discursives. Ces reformulateurs peuvent fonctionner comme équivalents entre eux.

Mots-clés : marqueurs de discours, reformulation, concession, discours, connecteurs, texte.

This piece of work examines the values and uses of the distancing reformulators *dena dela, dena den, edonola ere*, and *edozeelan ere*. This is done from a discursive-pragmatic approach; examples taken from texts constituting the broad Basque language corpus have been used to obtain the necessary empirical examples of language production. The results show these markers also assume an argumentative value in addition to their concessive value; they further take on a number of discursive values. The four reformulators can function as equivalents of each other.

Keywords: discourse markers, reformulation, concession, discourse, connectors, text.

1. Sarrera

Lan hau diskurtso-markatzaileen azterketa helburu duen ikerketa zabalago baten barruan kokatzen da: EUDIMA proiektua, jomugan markatzaileen hiztegia duena. Proiektu horretan diskurtso-markatzaileen sail ezberdinak aztertzen dira, besteak beste, birformulatzailer urruntzailerena. Sail horri dagozkion elementu batzuk besterik ez dira ekarriko lerro hauetara, izenburuan aipatutakoak, alegia.

Diskurtso-markatzaileen hiztegi horri begira egindako hastapeneko ezaugarritze batean (Garcia-Azkoaga, 2013), birformulatzailer urruntzailer artean kokatzen dira *dena den*, *dena dela*, *edonola ere*, *edozein ere*. Ezaugarritze hori osatzeko, ordea, ezinbestekoa da birformulatzailer horien erabilera eta balioak banan-banan eta sakonago aztertzea; horretarako testuetara jo behar da, haiek ematen baitute hizkuntzaren ekoizpen enpirikoetan gertatzen denaren testigantza. Hori da, hain zuzen, lan honen helburua, testuetan, oro har, markatzaile horiek nola erabiltzen diren eta hartzen dituzten balioak aztertzea; horregatik, lan hau, nolabait, aurrekoa osatzera dator eta, hala, ekarpen xume bat egitera euskarazko diskurtso-markatzaileen analisiari.

Terminologia eta sailkapenetan dagoen anabasak ez du gehiegi laguntzen, ikusi bestela Fraserrek (1999) dioena eta ematen duen definizioa: «Whether they are called discourse markers, discourse connectives, discourse operators, or cue phrases (I shall use the term ‘discourse marker’), the expressions under discussion share one common property: they impose a relationship between some aspect of the discourse segment they are a part of, call it S2, and some aspect of a prior discourse segment, call it S1. In other words, they function like a two-place relation, one argument lying in the segment they introduce, the other lying in the prior discourse. I represent the canonical form as <S1. DM+S2>» (Fraser 1999, 938).

Euskararen kasuan, nahiz eta lanen bat egin den (Alberdi, 2011), oraindik ez dira asko aztertu diskurtso-markatzaileak bere horretan. Lan honetan aztertuko diren elementuak diskurtso-markatzaileen artean eta, haien barruan, birformulatzailer urruntzailer artean kokatu diren arren, euskal gramatikak aurkaritzako lokailuen artean kokatzen ditu (EGLU-III, 1990; Goenaga, 1980);

Larringanek (1996), ISD²ari jarraituz (Bronckart et al., 1985; Bronckart, 1996), testu-antolatzaileen³ artean azertzen ditu elementu hauek eta, horien barruan, lokailu gisa, baina zalantza egiten du kontzesibotasunaren eta aurkaritzakotasunaren artean; testuaren ikuspegitik ere, Esnalek (2008, 32) testu-markatzaile hitza hobesten du diskurtso-markatzaile izendapenaren ordeztu, testu-antolatzaileen azpisail gisa kokatuta eta, gaztelaniaren kasuan Martín-Zorraquinok eta Portolések (1999, 4082) egiten duten bezala, lokailuen sailetik bereizita dagoen birformulatzaile urruntzaileen multzoan kokatzen ditu hizpide ditugun elementuak; Garcések (2008, 154) ere gauza bera egiten du; eta Fuentesek (2009) lokailuei eta operatzaileei buruz hitz egiten du, eta kontzesiozkoen artean kokatzen ditu. Aipatu behar dugu, halaber, Zabalaren (1996) lana; bertan, zenbait birformulatzaile analizatzen dira testu-antolatzaile izendapenean bilduta, baina horien artean ez dira agertzen hemen aztergai ditugunak.

Sailkapenak sailkapen, hizpide ditugun birformulatzaile urruntzaile horiek balio bat baino gehiago bereganatzen dutela erakustea du helburu lan honek, eta horretarako, erabileran eta diskurtsoan har ditzaketen balio ezberdinak aztertuko dira. Analisia egiteko, sarean eskuragarri dagoen euskarazko corpusa⁴ ez ezik, EUDIMA proiekturako apropos egokitutako tresna⁵ ere erabiliko da hemen.

Kontuan hartuta, alde batetik, testuinguruaren parametro fisiko eta sozialek eta, bestetik, interakzioen eraginez diskurtsoan egiten diren eguneratzeek beren aztarna uzten dutela testuan, aipatutako corpusa baliatuta, aztergai diren birformulatzaile urruntzaile horien askotariko balioak erakusten saiatuko gara. Era

² Interactionnisme socio-discoursif.

³ Gogoratu testu-antolatzaileen artean daudela hauek: juntagailuak, lokailuak, funtzio espezializatua duten adberbio zenbait; proposizio-egiturez kanpo geratzen diren unitateak, erantsiak zein askeak; beste lokuzio eta esapide batzuk, lotze-, ataltze-, edota antolatze-zereginetan agertzen direnak; idatziaren formulismoak. Testu-antolatzaile gehienak proposizio-egituren osagaietatik kanpo geratzen dira (Larringan 2007, 124) eta, alde horretatik, bat datoz Fuentesek (1998) «enlaces extraoracionales» izenarekin azertzen dituen elementuekin.

⁴ ZIO corpusa, EHUko eskuliburu itzuliak, Zuzenbidea / lege-testuak, Zuzenbidea / testu akademikoak, Pentsamenduaren Klasikoak, EPD liburuak, EPD prentsa; ZT Corpusa, ETBko dokumentalak, Goenkale corpusa.

⁵ <http://ehu.es/ehg/eudima/admin> (sarbide mugatua).

berean, *dena dela*, *dena den*, *edonola ere* eta *edozeelan ere* markatzaileak erabilera eta balio berdinekin agertzen diren eta sinonimotzat har daitezkeen argitzen ahaleginduko gara. Analisia egiteko, alderdi diskurtsibo-pragmatikoaren azterketa sistematizatzen lagunduko digun metodologia erabiliko dugu.

Euskarari dagokionez, Larringanen (1996, 2007) lanak dira horrelako azterketa bati heltzeko arrasto gehien ematen digutenak, eta arrasto horiei jarraiturik egingo da lan hau. Hizkuntzalari horren lanean (Larringan, 1996), kontzesiozkoen artean sailkatuta agertzen dira hemen aztergai ditugun birformulatzailerik urruntzailerik. Hiru multzotan banatzen ditu egileak kontzesioa bidera dezaketan unitateak: A, B eta C. A eta B multzoen kasuan, kontzesioa bideratzen duen unitatea perpaus berberean kokatzen da; A taldekoek ez bezala, B taldekoek *ere* partikula gehitzen diote unitate horri. C multzoko unitateak esapide-egituratik kanpo geratzen dira, eta C multzo horretan sartzen ditu, hain zuzen, *dena dela* antolatzailea eta haren parekoak. Egileak berak dioen bezala: «Multzo honetan biltzen diren antolatzaileak, heterogeneo samarrak dira, kontzesiozko, birformulazio eta aurkaritzako bide-gurutze horretakoak hain zuzen. DENA DEN (DELA) -rekin dudak izan ditugu: hemen bildu, aurkaritzako artean ala birformulatzailerik ez-parafraasikoen artean? Maiz, errekapitulazio eta laburbiltze egitekoa nabari zaiola, ezin uka.» (Larringan 1996, 187). Ikusten den moduan, egileak zalantzak agertzen ditu elementu hauek kontzesiozko, aurkaritzazko edo birformulaziozko antolatzaileen artean kokatzeko orduan.

1.taula. Kontzesiozko testu-antolatzaileak Larringanen (1996) lanean

<p>KONTZESIOZKO TESTU-ANTOLATZAILEAK: C multzoko motakoak (Larringan 1996, 187)</p>	<p>HALA(Z) (ETA) GUZTI(Z) (ERE); DIREN (DEN) + ADITZONDO -EN(A) + ERE; GORABEHERA; ... EDO. ., + IZAN (batzuetan, IZAN isilean dago); -(DA) (-TA) ERE; INFINITIBOA + GABE + ERE: (... erori gabe ere); -(r)IK + ERE; NOR ZAREN ERE; GUZTIAREKIN ERE; DENA DELA</p>
---	--

Birformulatzaileri buruz hitz egiten duen atalera jotzen badugu, honela dio: «Hitz, enuntziatu, esaldi-sail edo testu-zati batek duen zentzua interpretatzeko, argitzeko, esplizitatzeko, birformulaziora jo ohi du hiztunak... Bigarrena ez da lehen formulazioarekin nahasten, haren errepikatze edo tautologia hutsa ez den bezalaxe... Antolatzaile hauek aztertzerakoan arazo bat baino gehiago aurkitzen ahal dugu, hala unitateen mugaketan, nola sailkapenean zein izendapenean... Birformulazioa, enuntziatuen artean gertatzen den elkarreragintzazko funtzio-mota bat litzateke: esatariak, lehen formulazio baten ordeztu bigarren bat jartzen du, enuntziatio-ikuspegiaren aldaketa bat bideratuz (E. Roulet, 1991 eta 1987). Birformulazite-eragiketean mugimendu bikoitza ohar daiteke: lehenbizikoan ikuspuntu «desegokiaren» formulazioa agertzen zaigu; bigarrenean, beste «egokiago» bat. Abiaturukoa bigarrenaren mendeko agertzen da, enuntziatio-ikuspuntua aldatu egiten delarik (antolatzaile konkretuaren arabera). Hau guztia, bestalde, atzetik-aurrera egiten da. Enuntziatio ikuspuntuaren aldaketak, halere, ez du esan nahi argudiaketaren norabidea ere aldatu egiten denik.» (1996, 245).

Larringanek birformulatzaileri parafrastikoak eta ez-parafrastikoak bereizten ditu, eta berak zerrendan sartzen ez dituen arren, aitortu egiten du beste hizkuntzatan (Roulet, 1987; Murat & Cartier-Bresson, 1987) birformulazioaren barruan sartzen dituztela EGLU-IIIIn aurkaritzakoaren artean sartzen diren horrelako lokailuak: *nolanahi ere*, *edozein modutan*, *zemañhi gisaz*, *guztiarekin ere*, *edozein ere*, eta abar. Larringanen lanari dagokionez (1996, 261), lerro gutxi batzuk besterik ez dizkie eskaintzen birformulatzaileri ez-parafrastikoei, eta haien artean hauek aipatzen ditu: «AZKEN BATETAN, AZKEN BATEZ, AZKENIK, FINEAN, AZKEN FINEAN, AZKEN PUNTUAN, FUNTSEAN, DENA DEN (?)», baina ez du ezer esaten birformulatzaileri urruntzailei buruz. Ohar gaitzen, halaber, hor agertzen den zerrenda mugatua dela eta elementu gehiago ere egon litezkeela, Larringanek testu jakin batzuen gainean eta haietan agertzen diren antolatzaile aukeratu batzuen gainean egiten baitu azterketa.

Batetik, Rouletek (1987, 111)⁶ ematen duen birformulazioaren definizioa eta Larringanek (1996, 245) zabaltzen duen azalpena onartuta, eta bestetik,

⁶ «Subordination rétroactive d'un mouvement discursif, éventuellement d'un implicite, à une nouvelle intervention principale, du fait d'un changement de perspective énonciative.» (Roulet 1987, 111).

Garcia-Azkoagan (2013) aipatzen diren definizioak bilduta, birformulazioa diskurtsoa antolatzekeo prozedura bat dela esango dugu, non hiztuna aurretik (esplizituki edo inplizituki) agertzen den atal batera itzultzen den, atal hori beste era batera adierazteko eta haren gainean zuzenketak, zehaztapenak eta laburpenak egiteko, edo harekiko urrunketa adierazteko, aldi be-rean, enuntziatio-aldaketa eraginez.

Bestalde, Garcésen (2008, 154) sailkapenera joko dugu zehaztapen handi-diagoren bila.

2. taula. Birformulatzaille urruntzaileak Garcésen (2008, 154) sailkapenean

Marcadores de reformulación	Separación	<i>De todas maneras, de todos modos, de todas formas</i>	Supresión de la relevancia del miembro anterior y de sus posibles inferencias
			Indiferencia tanto respecto de los estados de cosas referidos como de los contrarios para llegar a una conclusión
		<i>En cualquier caso</i>	Revisión de alternativas anteriores que no se tienen en cuenta por la mayor relevancia del miembro reformulado
			Sustitución de lo anterior por una nueva formulación
<i>En todo caso</i>	Atenuación de la fuerza argumentativa del miembro precedente		

Sailkapen horretan egileak hiru azpisail bereizten ditu birformulatzailleen zereginen arabera. Euskararen kasuan, ordea, orain arteko datuekin (EGLU-III, Sarasola, Elhuyar, EEH, OEH, Euskaltzaindiaren Hiztegia...) nekez egin daiteke horrelako sailkapen bat. Garcia-Azkoagaren lanean (2013) ikusten den bezala, lan lexikografikoek ematen duten informazioaren arabera, *dena dela* eta *dena den*, adibidez, gaztelaniazko bost forma horien baliokidetzat har daitezke.

Amatasunaren inguruko kritikak oso ikuspegi diferenteak erakutsi ditu denboraren joanean, eta, aldi berean, oso landuak. Amatasuna inskribatzen duten hainbat eta hainbat ikerlan argitaratu da kritika feministaren arloan. Baina, batez ere, hiru teoriagilek eta hiru liburuk zedarritu dituzte amatasunaren inguruko ikerlerroak: Simone de Beauvoirren *Le deuxième sexe* (1949), Shulamith Firestoneren *The Dialectic of Sex* (1971) eta, azkenik, Adrienne Richen *Of Woman Born: Motherhood as Experience and Institution* (1976) lanek. Ez dira ahaztu behar, halere, teoriagile horien inguruan eginko berrirakurketak eta hausnarketak gaurko amatasunaren inguruan jardun ahal izateko. Goazen, labur bada ere, liburu horien eta haien ingurumarian esandako hainbat kontu lerro hauetara ekartzera. Simone de Beauvoirrek egindako amatasunaren azterketak balirudike alde ezkorak baino ez dituela uzten agerian. Zailtasun edota alde negatibo horiek, ordea, Linda Zirellirentzat (1996), Beauvoirrek erabilitako estrategiak dira. Beauvoirrek nahitaezko amatasuna kritikatzan zuen, eta estrategia horretan, Zirelliren hitzetan, apaizentzat, filosofoentzat eta zientzia-gizonentzat amatasuna ekoizpen biologikoaren hautu bakarra eta zorientasun paradigma zen bezala, Beauvoirrentzat, gatazka eta diferentzia gunea zen. Amatasuna beste modu batera interpretatzeko keinu bat egiten ari zen Beauvoir, Zirelliren hitzetan. Edonola ere, esan behar da berdintasunaren feminismoak nahiz feminismo materialistak berdintasunerako bidean aztertu dutela amatasuna. Horrekin esan nahi da amatasunak, emakumeen bizitza profesionalean,

politikoan eta kulturalean, gizarteratzeko zailtasunak ekarri dituela eta rol bakartzat hartu dela. Shulamith Firestonek azken ikuspegi hori aintzakotzat hartzen du, eta, bere esanetan, emakumeak funtzio biologikoagatik zapalduak izan dira; hitz batean, emakumearen zapalkuntza ugalketarekin hasi zen, eta gero ere zapalketa horrek *continuum* batean jarraitu du. Azkenik, Adrienne Richek amatasunaren bi interpretazio proposatzen ditu. Batetik, amatasuna erakunde gisa, eta, bestetik, amatasuna gozamen, ezagutza eta emakumeen botere gisa. Richek dio amatasunak, erakunde gisa ikusita, institua inteligentziarekin nahasten duela, norberaren garapena eskuzabaltasunarekin eta besteekiko atentzioa norberarekikoarekin. Horregatik dio Richek amatasunaren erakundeari erasotzen dioten hainbat jardun, hala nola abortua, lesbianismoa edota harreman heterosexualetik kanpoko amatasuna, arriskutsuak direla.

Biruté Ciplijauskaiték dioen modura (1994), amatasuna bi modutara ikusia dago literatur lan gehienetan: deuseztatzaile modura, independentziaren eta norberaren garapenaren suntsitzaile modura eta, bestalde, botere mitikoaren jarraipen modura. Botere horretan, gorputzaren jarduna eta mintzairaren dialektika proposatzen dira. Beraz, proposaturiko irakurketan, batetik, Firestonek eta berdintasunaren feminismoak izendatutako hainbat zehaztapen ezkor begi bistan jarriko dira, eta, bestetik, amatasuna norberaren esperientzien sorburu eta identitate eraikitzaile gisa azalduko da. Teresa del Valle (1995) esaten duen bezala, amatasuna gorputzaren ezagutzatik abiatuta eraikitzen da eta emakume askok horretan oinarrituta eraikitzen dute euren identitatea eta erabiltzen dute euren memoria.

Artikulu honetan amatasunaren inguruko irakurketa bat proposatzen dugu, eta Lucienne Goldmanek (1964) esaten zuena baieztatzeko: literatur egituren eta jendarte egituren artean homologiak daudela. Proposatzen ditugun narrazioetako ama protagonistek amatasunaren gainean kontakizunak eraiki dituzte. Euskal antropologo feministek (Díez, 1995, 2000; Imaz, 2007) esandakoa berrestera gatoz, euskal sendia eta amatasuna aldatzen ari direla, alegia, eta amak direla aldaketa horretako protagonista. Eli Imazen hitzetan, amatasunaren eta sendiaren aldaketa genero harremanen inguruko eraldaketarik esanguratsuenetan kokatu behar da. Emakumeak aldatzen ari dira, eta eurekin, bikote harremanak eta familia. «La

maternidad se percibe como uno de los escenarios principales, si no el más importante, en la redefinición de las relaciones de género» (Imaz, 2007: 389). Imazek bere doktorego tesian dioenez, horren ondorio nagusiak hauek dira: sendi eredu ugaritzea, amatasun berrien agerraldia eta ama izateko modu diferenteak.

Hala, amatasun berrien adibidetzat, honako hauek azpimarratzen ditu Imazek, beste batzuen artean: ama langileak, ama helduak, ezkontza erakundetik kanpo sorturiko amak, ama lesbianak eta ama bakarrak. Amatasun eredu horiek guk ere aurkitu ditugu Urretabizkaiaren iruditerian.

Ondorio hauetara iritsi baino lehenago esan behar da, halere, eraikuntza sinbolikoen bidez sortu direla amatasunaren irudikapenak: bisualak nahiz diskurtsiboak. Irudikapen horiek ideia, sinesmen eta esanahi multzoen osaketa dira; mundua esplikatzen dute, eta adibiderik esanguratsuenak estereotipoetan, gorputz metaforetan eta ereduetan aurkituko ditugu. Ereduak, ordea, irudikatzeaz gain, karga handia hartzen dute, gure jarrerak nolakoak izan behar duten esaten baitigute.

Amatasunaren gaiarekin amaitzeko, bi amatasun eredu aipa genitzake. **Amatasun hegemonikoa**, betikoa, normak, rolak, eta estereotipoak nahiz gorputz metaforak oso markatuak dituena. Horretan amatasuna modu naturalean sortua balitz bezala ulertzen da. Beste modu batera esanda, zerbait pribatua, biologikoa edota, asko jota, zerbait psikologikoa da. Zientziaz oso urrun eta aztertu gabe dagoen zerbait. Emakumeen kontu bat.

Eredu emergenteak, ordea, Del Vallek koordinatutako lanean (2002) bistan geratu den modura, identitatea duten eraikuntzak dira, eta eredu normatibotik kanpo egon gabe ere, balio eta esanahi berriak bereganatu dituzte. Harreman berriak adierazten dituzte. Dudarik gabe, artikulu honetako amatasun irudikapen gehienak amatasun emergenteak dira. Kontzientzia bat dago batez ere, aldaketarako intentzio garbia. Beraz, eraikuntza sinbolikoez gain, hitz egin daiteke aldaketa eta bilaketa estrategiez; hitz batean, agentzialitateaz (Esteban, 2004).

Horiek baldin badira amatasunaren irudikapenak egun, hurrengo galdera hauxe litzateke: zer da amatasuna?, zeintzuk dira amatasuna egituratzen

duten ardatz nagusiak? Eraikuntza, garapena, ugalketa, identitatea, gizarte posizio bat, rol soziala? Orain arte, amatasun hegemonikoetan ardatz horien omisio sistematikoa gertatu ohi da, amatasun aldizkakoetan, ordea, balio berriak sortzen ari dira, eta agerian geratzen dira Arantxa Urretabizkaiaren literatur lanetan.

2. *Hiru Mariak*

2.1. Emakumeak eta zahartzaroa

Ezer baino lehen, argitu behar da historikoki emakumearen gorputzaren pertzepzioa, eta, ondorioz, identitatea, gizonezkoena baino askoz baldintzatuagoa egon dela. Arau soziokulturalek emakumeengan gizonengan baino askoz eragin handiagoa izan dute (Wolf, 1991; Ventura, 2000; Esteban, 2006). Jendarteak emakumearen gorputza sedukzioarekin eta ugalketarekin lotu du historikoki. Venturak esaten du (2000: 20) emakumeak seduzitzeko duen aukera bakarra alderdi fisikoa duela; gizonezkoek, berriz, estatusa, prestigioa, indarra, aberastasuna, boterea eta umorea dituztela. Beraz, emakumeak gizartean onartua izateko gorputza izan du amu: eskuen leuntasuna edo laztasuna, bularra, sexualitatea, amatasuna, umeen hazkuntza, zimurrak, zahartzaroa.

Hiru Mariak zimurrak eta zahartzaroa besterik ez dute aurretik. Naomi Wolfek esaten du emakumeek bizitza osoa edertasuna lortzeko eta zahartzarora ekiditeko borrokan dihardutela, edertasunaren mitoaren esklabotzapean (1991: 301). Eta emakume baten bizitzaren herena, gutxienez, zahartzarora dela eta gorputzaren beste herena gantza. Era berean, esaten du gizonezkoetan adina nortasun seinalea dela; emakumeetan, aldiz, akats bat (Wolf, 1991: 121). Orain arte literaturak eman duen emakume zaharraren arketipoa oso gogorra da. Horra hor laburki esanda.

Alcahuetas, viejas verdes, sucias y chismosas comadres, decrépitass cortesanass. Esta imagen asociada al miedo ancestral a la feminidad oscura cuaja, lo cual no debe extrañarnos, en la figura temible de la bruja, a la que se persigue, se caza y se tortura para el gozo de las buenas almas. (Azpetia, 2001: 60)

Urretabizkaiak orain arte esandako guztia iraultzen du. Emakume adindunak hartu ditu pertsonaia nagusizat. Batetik, ikusgarri bihurtu ditu; izan ere, gaztetasunaren estetika gailendu den garai hauetan emakume adindunak ikusezinak dira (Azpeitia, 2001: 237). Bestetik, gorputzaren jabetza lortu dute, eta horren jakitun dira. Azpimarragarria da, bestalde, Mari Txuri alarguntzen denean orduantxe hasten dela eleberri honetako istorioa. Mari Txuri bakarrik geratzen da; izan ere, seme bakarra aspaldi ezkondata etxetik joana du. Baina amaren asmoen berri duenean, beste lagun batekin bizitzen jartzera doala alegia, berehala datorkio hitz egitera. Mari Txurik transgresioari beste koska bat eransten dio; izan ere, semeari kasurik egin gabe, bere nahiari jarraitzen dio. Urretabizkaiaren mezua argia da. Amak, seme-alabak hazten diren bitartean, haien menpe, haiek zaintzen, eta zahartutakoan, ezindutakoan berriro ere haien esanetara. Eta Mari Txurik ezetz esaten du.

2.2. *Hiru Mariak, memoria baino gehiago, etorkizun egitasmo bat*

Hiru Mariak eleberrian, Urretabizkaiak zahartzaroa hartu du gaitzat, eta hiru emakume zaharren ahotsak jarri nahi izan ditu gerraostearen eta zahartzaroaren inguruan hitz egiten.

Urretabizkaiaren gerraostea, eleberri honetan, bizitzan marra bat da, non hiru lagunek elkar ikusteari uzten dioten: lehena, lehen ahotsa eta protagonista nagusia (Mari Txuri), Euskal Herrian geratuko da; bigarrena, (Mari Gorri) erbestera joan beharrean izango da; eta hirugarrena, (Mari Handi) gerra irabazitakoekin, handiekin galduko da. Baina zahartzaroa etorritakoan, alargundutakoan, hirurek bat egitea bihurtzen da protagonista nagusiaren xedea. Eta hori da, benetan, eleberri honen berrikuntza. Mari Txurik esaten digu zahartzaroa ez dela memoria soilik, zahartzaroa egunero modu duinean bizi behar den bizilegea dela, egitasmo bat dela. Urretabizkaiaren azken eleberri honetan, nahiz eta gerra garaiko umeak izan, iraganaren gainean baino gehiago, etorkizunaren gainean hausnartzen dute. Atzera begira baino gehiago, aurrera begira daude protagonistak.

Mari Gorri, izenak berak dioen modura, zahar transgresorea izango dugu, eleberriaren ikuspegi semantikoa edota esanahia, eta Mari Txuri, berriz,

paper zurian idazteko eta kontatzeko tresna. Eleberritari suspensea emateko, absentziaz baliatzen den hirugarren protagonistaren jokoa eskaintzen digu Urretabizkaiak: Mari Handirena. Mari Handi misterioa baita hasieratik bukaera arte, eta horren peskizan ibiliko da irakurlea. Beraz, pertsonaia-eleberri honetan, gaiari dagokionez, berrikuntza Gorrik ekarriko du; halaber, Mari Txuriren hizkerari darion sintaxi neurtua aitzakia literario bihurtuko du Urretabizkaiak, ohituta gaituen kontatzeko era natural eta zuzena eskaini ahal izateko.

Gure idazle garaikideetan, zahartzaroa gai inportantea bilakatzen ari da: batzuek, sasoi horretara iristen ari direlako eta horri buruz gogoeta egin beharra dutelako; beste batzuek, historiari begiratu bat emateko beharra sentitzen dutelako, historia hurbilari, Espainiako gerrari, eta, hartara, nahitaez adinean oso aurreratutako literatur pertsonaien premian aurkitzen direlako. Koldo Izagirrek, Ramon Saizarbitoriak, Xabier Montoiak, Karmele Jaiok eta Uxue Alberdik, batzuk aipatzearren, euren eleberrietan protagonista adindunak eta gerrarekin lotuak sortu dituzte azken urteetan. Zahartzaren ari den jendarte baten ispilua, historia beste modu batera kontatzeko aukera edota gaztetasunari aurrez aurre zahartzaroa jartzeko *leitmotiv*-a.

Urretabizkaiak, puntu honetan esan duguna azpimarratuz, ekarpen berri bat egin dio eduki aldetik euskal literaturari, esan nahi da zahartzaroan ere pentsa daitekeela eta egitasmo bihurtu, gazteen eskuetan edo erakundeen menean utzi gabe. Zahartzaroa antolatzeaz dihardu, eta sendi formula berri bat proposatu digu: lagun zahar alargunduekin osatutako komunitate bat. Emakumeen arteko konstelazio forma berri bat. Emakumeak, amak, alargunak eta bizitzak bere joanean adiskide handi giten dituenak.

Zahartzaroa begi berriekin begiratzeko gomita luzatzen du. Inoiz ez dela berandu bizitza berri bat hasteko, elkarren arteko odol loturarik izan gabe familia osa daitekeela. Eta, epilogo gisa, hausnar bat: bizitzak gurekin zer egin duen galdetzea baino, ez ote den egokiago guk zer egin dugun bizitzarekin pentsatzea. (Galarraga, *Deia*: 2011-02-19)

Testuinguru horretan amatasuna urrun geratzen da, atzean, iragana da, eta ez du lekurik orainean. Amatasuna, beraz, literatur pertsonaia hauen bidez bizitzaren etapa bat bezala aurkezten zaigu, seme-alabek euren ibilbi-

dea egiten hasi arteko etapa bat. Izan ere, emakumeek seme-alaben independentziarekin eta alarguntzearekin batera euren askatasuna ere lortzen dutela adierazten da.

2.3. Txuri, Gorri eta Handi

Txuri, alargun geratu da laurogei urteen atarian; beste nobela batzuetan, halako egoera gertatzen denean, pertsonaia atzera begira jartzen da, eta behin eta berriro memoriaren inguruan bueltaka ibili ohi da, errota bailitzan. Urretabizkaiak, ordea, beste ibilbide bat eraiki dio Txuriri. Gorri Txuriren gaztaroko adiskide zaharra da, eta aspaldiko boladan herritik alde egina da. Gorri Txuriren senarraren hileta elizkizunetara etorriko da, eta hantxe elkartuko dira, herioa dela medio, iragana eta oraina. Hirugarrena falta zaie ordea, Handi: Handirekin osatzen zuten gaztaroko adiskide-triangelua. «Txuri eta Gorri guztiz desberdinak dira, bata errotuta dago, landare bat bezala; bestea munduan zehar ibili da eta beti dago egitasmu berriak pentsatzen, geldirik egotea ezinezkoa izango balitzaio bezala. Jakin badakigu Txuriren bizitzan gazi-gozoek daudela, bizipozak izan dituela, eta hutsune nabarmen eta mingarriak» (Rojo, 2011). Horietaz, ordea, gutxi hitz egiten da. Izan ere, Txurik alabaren heriotza jasan behar izan du, baina ez da halako atsekabeetan murgiltzen, eta ez digu horretaz xehetasun handirik ematen. Gorrik inskribatzen du liburu honen esanahi semantikoa, edota zahartzaroaren ikuspegi esanguratsua; Txurik, berriz, sintaktikoa, lehen esan dugun moduan, bera baita ahotsa, bera espazioa eta denbora, eta Handik suspensea jartzen dio, hasieratik bukaerara hutsune bat baita, irakurleak betetzen jakin behar duena. Beraz, irakurketan zehar literatur pertsonaia horren nondik norakoa osatzen joango da irakurlea, eta bukatutakoan ere ez du batere argi izango nor den Handi eta zer gertatu zen hiru nesken artean; izan ere, hiruren arteko triangelu harremanean erpin bat hutsik geratzen da, irakurleak nahierara osatzeko. Triangeluak itxiak badira ere, Urretabizkaiak ireki egin du, eta halaxe bukatu da eleberria, bukaera ireki batekin, eta, horretarako, literatur pertsonaiak baliatu da.

3. *Koaderno gorria*

3.1. Amak eta nazioa

Emakumeek Euskal Herrian, Katalunian bezala, hizkuntzaren eta kulturaren transmisioan hartu zuten arnasa agertoki publikorako bidea egiteko. Baina euskal nazionalismoa eraikitzen ari zen diskurtsoetan, amatasunaren eskutik bakarrik aurki zezaketen ezagutza emakumeek. Emakumeak familiaren, lurraren eta aberriaren metafora bilakatu ziren nazionalismoarentzat, amatasunaren sinbolopean (Ugalde, 1993, 1994; Elorza, 1978; Del Valle, 1985, 1999; Aretxaga, 1988).

La importancia de la madre en la sociedad tradicional vasca le convertía en un símbolo cultural: símbolo de linaje que renacía en sus hijos, y símbolo de la tierra que les servía de sustrato, y símbolo de la casa que les cobijaba y les hacía nacer a la vida social. El mismo Sabino Arana la convertiría después en el símbolo de la patria. (Ugalde, 1993: 43)

La participación femenina en la evolución del nacionalismo vasco es muy intensa y tal vez la más eficaz por comparación con otras tendencias políticas surgidas en el marco político español con anterioridad a 1936. Sin embargo, este peso social de la mujer vasca tiene poco que ver con la difusión de las concepciones feministas y sí en cambio con la solidez del sistema familiar, eje de la vida rural tradicional en Euskal Herria. (Elorza, 1978: 5)

Euskal genero eta nazioari buruzko ikerketa leerroari begiratu ostean, esan daiteke aurretik ikusitako perspektiba globala kasu lokal honetan ere betetzen dela, hau da, euskal emakumeek ere euskal nazioa zenbait modutan birsortu dutela. «Biologikoki (amatasunaren bidez), kulturalki (hizkuntza eta kulturaren transmisioa eginez) eta sinbolikoki (baserriarekiko lotura bermatuz, etxeoandre lanari esker). Horretaz gain, parte-hartze soziopolitikoak izan zuten» (Alvarez, 2011: 109).

Euskal Herrian, XX. mendearen lehen hereneko feminismoa katolikoa, femeninoa eta abertzalea izan zen. Aldaketa garaia izan arren, euskal emakumeek ezin izan zuten bere egin emakume modernoaren irudia, orduko

diskurtso katoliko errepresiozkoaz gain, diskurtso mediko-zientifiko misoginoa zutelako kontra (Aresti 2001, *apud* Alvarez, 2011). Horren haritik, Miren Llonak (2010), amatasuna eta naziozintza ardatz harturik, II. Errepublikan emakumeek egindako lan politikoaz mintzatzeko, Polixene Astrabada emakume abertzalearen ibilbide politikoa aztertu du. EABko militante ezagun horren esanetan, amatasunaren erretorika oso diskurtso baliagarria izan zen emakumeen jardun publikoak zuen zentzu transgresorea ezkutatzeko. Jardun publiko horren adierazle izateaz gain, ordea, Astrabada garai hartako amatasun berrien paradigma gisa azaltzen da Llonaren artikuluan. Beraz, ama sinbolikoaz gain, amatasunaren zentzu sozialaz mintzo zaigu argi eta garbi Llona.

Ikuspegi sinboliko eta sozial hori literaturan nola irudikatu den aztertu dute Maite Nuñez Beteluk *Género y construcción nacional en las escritoras vascas* (2001) eta Iker Gonzalez Allendek *Género y nación en la narrativa vasca durante la guerra española (1936-1939)* tesietan. Literatura alorrean, Joseba Gabilondo ikerlariak ere ondo aztertu du amatasunaz nola idatzi den, eta diosku abertzaletasunak barruko erbeste batera kondenatu dituela emakumeak, amatasun nazionalistaren eredia onartzen ez badute bederen. «Erbeste horretan emakumezkoen literaturak benetako bakardadearen kronika malenkoniatsu eta magnoa eman digu, beste ezein literatura maskulinstak ez bezala» (Gabilondo, 2006: 289). Eta egia da nazionalismoaren haritik oso nobela gutxitan topatu direla emakume aktibistak, armak hartu eta borroka armatuan sartu direnak. Guk hiru topatu ditugu: Bernardo Atxagaren *Zeru horiek*, Laura Mintegiren *Nerea eta biok* eta esku artean dugun *Koaderno gorria*.

3.2. *Koaderno gorria* eta kritikak esandakoak

Olaziregik dioen bezala (1999: 58), amatasuna da nobelaren gunea, eta maiuskulaz izendatzen den Amaren jardunak harilkatzen du narrazioaren unibertso osoa. Nobelaren eduki tematiko guztia Ama horrek koaderno gorri batean idatzitakoak bideratzen du. «Horretarako, gailentzen da pertsonaien barne mundua, denbora proustiarraren ildotik, oroimenak gogora

dakarzkigun guneetan geratuz» (Olaziregi, 1999: 58). Olaziregik dio nobela honetan, emakumezkoek idatzitako kontakizun askotan bezala, genero autobiografikoa protagonistaren egonezina azaltzeko forma narratiboa bilakatzeko dela. Pertsonaien barne-solasa testu-atzekoa, zehar estiloa eta zehar estilo askea darabiltza narratzaileak, gehienetan aditza ezabatuz eta erritmo arinari eutsiz. Baina Olaziregik dio guztiarekin ere amatasunaren alderdi fisikoaz nahiz psikologikoaz haratago joaten ahalegintzen dela nobela hau, eta amatasunaren alderdi soziala edo politikoa ere azaleratzen saiatzen dela (Olaziregi, 2002: 107).

Protagonistarentzat, konpromiso politikoa amatasunarekin uztartu ezinezko ahalegina da, eta horixe dugu, hain justu, nobelan behin eta berriro azpimarratzen zaiguna. Bere amatasunaren gunerik garrantzitsuenak (haurdunaldia, erditzea, gaixoaldiak...) gertakari politikoekin daude lotuta (amnistiaaren aldeko kanpainarekin, itxialdi eta manifestazioekin), pertsonaiak aukeratutako konpromisoarekin. Modu horretan, trebezia handiz, konpromiso politikoa eta amatasuna uztartzea eragotzi dioten emakume baten aitortpena eskaini digu Urretabizkaiak (Olaziregi, www.basqueliterature.com).

Susan L. Lanese-ek (1996) narratologia feministan proposatzen duen narrazio publikoen eta narrazio pribatuen arteko diferentzia zedarritzen du Retolazak. Hala, narrazio publikoan, irakurlearekin parekatzen den narratario edo hartzaile bati egiten zaio kontakizuna. Narrazio pribatuan, berriz, testu barneko narratario edo hartzaile bati egiten zaio. Horregatik, narrazio publiko horiek hurbilago daude irakurle eta egile arteko harreman mota horretatik. Laburbilduz, Retolazak dio *Koaderno gorria*-n, testuaz kanpoko narratariora edo hartzailea irudikatzen denean, «narrazio publiko argia» dugula, eta *Zergatik panpox*-en, aldiz, geroago ikusiko dugun moduan, argi eta garbi eleberri barruko narratariora edo hartzaileari zuzentzen zaiola kontalaria. Hortaz, espazio pribatutik publikorako jauzia nabarmena da bi eleberri horien artean (Retolaza, 2007: 233).

Gabilondok dio Urretabizkaiak espazio nazional domestikoak, *Zergatik panpox*-en azaltzen zirenak, egoera politikoagoekin hibridatu dituela *Koaderno gorria*-n. Gabilondoren arabera, eleberriak ez ditu amaren sinesmen politikoak legitimatzen ez kondenatzen, ezta amatasuna zertan datzan ere

diskurtso politiko bateratzaile baten arabera erabakitzen. «Bestela esanda, Euskal Herritik kanpo, Babel globalean bizi den eta gaztelera mintzatzen den alabaren aurrean, eleberriak jouissance bat aurkezten du, zeinak ama, alaba eta laguna batzen dituen» (Gabilondo, 2006: 209). Komunikazio linguistikoaz haratago doa komunikazioa eleberrian, Gabilondoren hitzetan. Komunikazioa ere hibridoa da; izan ere, koaderno gorria euskaraz idatzia dago, baina irakurle gaztelaniaduna du. «Hala, koaderno gorria eleberri ere bihurtzen da, hain zuzen irakurleak alabaren ikuspuntutik irakurri behar duena, Venezuelen kokatutako gaztelera-ko posizio batetik» (Gabilondo, 2006: 209). Kritikak esandakoarekin amaitzeko, Ibon Sarasolaren ustez, eleberri honen aurkezpenean egindako adierazpenetan esan zuenez, nobela honetan daude Urretabizkaiaren orrialderik onenak.

3.3. Ama aktibista eta paradigma militarra

Emakume eta herritar den aldetik bete behar dituen rolen kontra oldartu egiten den heinean, *Koaderno gorria* eleberriko Ama transgresorea dugu. Baina zertan oinarritzen da transgresio hori?

Koaderno gorria-n estreinakoaz, amak umeak utzi egin behar ditu jardun militarrek segurtasun arazoak sortzen dizkiolako. «Zure amak Euskal Herriarren alde egiten du borroka, edo zure ama askatasunaren aldeko gudaria da». (KG, 9). Beraz, amatasunetik atera eta esparru publikoan hasi da nazioa eraikitzen KG-ko ama. Hori horrela, KG-ko ama naziogintzan subjektu gisa agertzen zaigu, baina eleberriko korapiloa aktibismoak eta amatasunak sortzen dituen zailtasunetatik bideratzen da. Horren harira, Olaziregik dio (1999) konpromiso politikoa eta amatasuna uztartzea eragotzi dioten emakume baten aitorpena eskaini digula Urretabizkaiak.

Haurrak lapurtu zizkioten moduan, amatasuna eta familia lapurtu zizkiotelako. Eta hortxe dago, segur asko, istorio honetako tragediarik handiena: emakumezkoaren errealizazio pertsonala oraindik ere ukatzen duen gizarte matxistaren salakuntzan. (Olaziregi, 1999: 61-62)

Paradigma aktantzialari erreparatzen badiogu, subjektuak (amak) helburu edo objektu (seme-alabak) errekuiperatzea du. Izan ere (senarra) izan da

seme-alaben lapurretaren (eragilea), baina eragite horretan (laguntzaile) inplizitua (nazioa) izan du. Beraz, paradigma aktantzialean bertan amatasunaren (aurkari) inplizitu gisa azaltzen zaigu nazioa.

Koaderno gorria nobelako Ama hegemonikoki gizonezkoena den mundu ikuskera militarrean aurkitzen dugu kokatua eta, lehenik eta behin, ertzak lausotzearen, begiratu bat emango diegu Isabel Carrerak postmodernismoaren, postkolonialismoaren eta feminismoaren artean egindako analogiei. Carrerak hiru teoria horien artean helburu komun batzuk aipatzen ditu; tartean, subjektibotasunaren deseraikitzea (2000: 75). Deseraiki beharreko subjektua, teoria postmodernoetan, gizakia da; feminismoan, gizaki patriarkala, eta postkolonialismoan, subjektu inperialista.

Gizaki militarra deseraikitzeke, gizaki patriarkalaren eredia baita, Miren Alcedok (1996), nortasun maskulinoaren inguruan azaltzen dituen ezaugarriak kontuan hartu ditugu. Ezaugarri horiek honako hauek dira: afeminitua ez izatea, garailea izatea, independentea izatea, beste inorekin ez kontatzea eta, azkenik, besteak baino indartsuagoa izatea. «El hombre debe aparentar ser audaz, incluso agresivo; demostrar que está preparado para correr todos los riesgos, incluso aunque la razón y el temor aconsejen lo contrario» (Alcedo, 1996: 353).

Izaki militarren ezaugarri horiek abiapuntutzat hartuta, KG-ko amaren subjektibotasuna deseraikitze aldera, Alcedok maskulinitatearen ezaugarritzat hartzen dituen paradigmak alderatu ditugu KG-ko ama protagonistarekin. Lehenik, esan behar da oso femeninoa dela ama; zenbaterainoko sensibilitatea duen jakiteko, aski da seme-alabei idazten dien koaderno irakurtzea; esaterako, haurdunaldiak, gogoetak testu bihurtzen dituenean (KG, 66). Bestetik, ez da garaile bat, izugarrizko inpotentzia sentitzen du senarrak seme-alabak lapurtu dizkiolako. Independentea bada, baina seme-alabak berreskuratzeko besteengana jo behar du; ez da batere lehiakorra, umila da oso, eta horrela azaltzen da bere seme-alabengan pentsatuta idazten duen koadernoan. Hori izango litzateke, beraz, pertsonaia femenino honen karakterizazioa, betiere maskulinitatetik eskaintzen diren ezaugarriak iraulita. Pertsonaia femenino honetan hibridazio bat gertatzen da; izan ere, amatasunak zipriztintzen du pertsonaia honen izate militarra. Hibrida-

zio horrek, erpin borobiltze horrek oso sinesgarri bilakatzen du protagonista femenino honen irakurketa semantikoa nahiz pragmatikoa.

Mercedes Ugaldek esan ohi du emakumearen rola amatasunera mugatzen dela, baina emakumeak euskal nazio gintzan agenteak direla eta zeharkako estrategiak erabili ohi dituztela: erresistentzia egoeretan atzera eginez eta egoera egokiak aurrera egiteko aprobetxatuz. KG-ko protagonista femeninoaren izatea ikuspegi historiko horren transferentzia litzateke, kritika marxistak aipatzen duen heroi problematikoa gizartearekin dialektikan erakitzen delako. Edota Bakthinek proposatzen duen *dialogismo* adierak esaten duen bezala, testu narratiboak, testuko ahotsen arteko solasaldia ez ezik, testuko eta gizarteko ahotsen solasaldia ere eskaintzen duelako.

Koaderno gorria nobelako ama erakunde militarrean subjektu gisa agertzen da, eta, era berean, bere amatasuna aldarrikatzen du. Argi dago zaintzaren pragmatikatik aldentzen dela, eta bere sinesmen politikoen aldeko apustua egiten duela amatasunaren pragmatika alde batera utzi gabe. Eta hor, jendarteak ez dio barkatzen, senarrak seme-alabak bahitzen dizkio eta erakundeak amatasuna eta armak bateraezinak direla gogoratzen dio. Eta hausnarketa horretan topatuko dugu literatur pertsonaia transgresore hau: hain kontraerriak diren bi mundu ikuskerak elkartzeko, hegemonikoki gizonetzkoena den armen mundua eta emakumezkoena den amatasuna uztartzeko. Esan behar da eleberri bakarria dugula gai horrekin etorri zaiguna euskal literaturara, horregatik da hain berritzailea eta transgresorea *Koaderno gorria* obrako ama.

4. *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik eta Zergatik panpox.*

Arantxa Urretabizkaiaren *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik* ipuin bildumako *Espero zaitudalako* ipuinean (Erein, 1983) ama berezi bat agertzen zaigu. Olaziregik esaten duen bezala (1999), 80ko hamarkadan euskal literaturan izan zen ipuingintzaren *boom*-aren barruan kokatu behar dugu liburu hau. Tenore hartan, gure ipuingintzan nagusiki Ipar Amerikako errealismo zikina eta Hego Amerikako errealismo magikoa sar-

tzen ari zirela, Urretabizkaiak bestelako kontaketa bat ekarri zuen gurera: barne kontaketa. Olaziregik (1999) liburu horretan amodio debekatuak ikusten ditu. Gabonetako lau egunez Coro mojak Jesus Haurra jaiotzan ikusita sentitzen duen maitasun kontaezina azaltzen da ipuin horretan. Amodio debekatua, amatasun garatu gabekoa, edota Maria Guztiz Garbiaren irudia, sexu harremanik gabe haurra munduratu zuen Ama Birjinari buruz egindako irudi deseraikitzailea? Dena dela ere, esperoan, esperantzan, haurdunaldiarekin lotzen den izenburupean, ipuinean, amatasunaren irakurketa modu mistiko edo ezustekoan proposatzera dator Urretabizkaia. Amatasun mistikotik hurbil dagoen irudikapen honek *Zergatik panpox*-en eskaintzen den amatasun aldarritik gehiago du, beste bi eleberrietan ikusi ditugun amatasunek eskaintzen dituzten mugetatik baino. Izan ere, lehen bi eleberrietan amatasunaren alde negatiboak jartzen dira begi bistan. Lehenak, amatasuna bizitzako etapa modura aurkeztu digu, eta bigarrenak, emakumearen jardun politikoa eta amatasuna bateraezinak direla sinetsarazten digu.

Zergatik panpox eleberriko amatasuna oso gainetik aztertuko dugu, gehiago jakin nahi duenak aldizkari honetan irakur dezake (Lasarte: 2010). Olaziregik (1999) lirikotzat jotzen duen eleberri hau barne bakarriketa luze batek osatzen du. Ama batek bere 7 urteko semearekin bizi dituen 24 orduak kontatzen ditu. Senarrak bost urte lehenago utzi zuen protagonista, eta bakarrik dago semea aurrera ateratzeko.

Zergatik panpox guraso bakarreko familiaren edota amatasunaren ereduak dugu. «La maternidad monoparental no sólo es una posición familiar nueva, sino una realidad compleja y significativa en curso, que las mujeres tras una experiencia de separación y/o divorcio van dotando de sentido» (Barrón, 2004: 229). Dolores Julianok (2004) eta Marina Subiratsek (2007) azpimarratu dute elkarbizitza, sendi tradizioaletik urrunduz, beste eredu pluralagoak hartzen ari dela, eta hor ikusten dituzte emakumeen sareak edota konstelazioak. Kontua da aztertu ditugun hiru eleberrietan Urretabizkaiak ez duela familia tradizionala irudikatzen, egitura horretatik urundu egiten dela. Eta ez da urruntzen familiatik bakarrik, emakumeen roletatik eta estereotipoetatik ere aldentzen da. Maria Luz Estebanek honela dio (2011: 72): «La familia habría pasado de ser una comunidad de necesidad a una

asociación electiva de individuos con intereses, experiencias y planes propios, con diferentes controles, riesgos y constreñimientos».

Maitasuna ere oso modu diferentean ikusten da hiru eleberrietan. *Zergatik panpox* eta *Koademo gorria*-n abandonua azaltzen da, bietan senarrak abandonatzen du emaztea, baina bi eleberrietan oso modu diferentean ikusi da abandonu hori. Hiru eleberrietan maitasuna generoaren kategoria gisa ageri da, eta horrela landu dira amatasunaren eta zainketaren pragmatikak. Baina *Zergatik panpox*-eko amak abandonua eta zainketa sufrimendu gisa, eginbehar gisa, nahitaezko gisa ikusten du; Adrienne Richek esango zukeen bezala, maitasun gaindosi gisa ikusten du. Aldiz, *Koademo gorria*-ko amak eta *Hiru Mariak* nobelako protagonistek oso modu diferentean plazaratzen dute emakumeontzat genero edota kategoria politikoa den maitasuna.

Zergatik panpox lanarekin jarraituz, liburu honek izandako harrera kritikoa buruan, Olaziregik dio euskal kritikariek liburuari harrera ona egin ziotela. Olaziregiren esanetan, Aldekoak 1979ko nobela onentzat jo zuen, eta Txuma Lasagabasterrek gehien laudatu duen nobela da, J. A. Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*-rekin batera. «Bere 1986ko Antología de la narrativa vasca-ren hitzaurrean dioena guztiz da azpimarratzekoa, nobela biribil eta xarmangarri gisara definitu ondoren, euskal ahots femenino lortuentzat jotzen baitu. Lasagabasterrentzat, ahotsaren indarra ez dagokio egilea emakumezkoa izateari, narratzaile trebeziari baizik» (Olaziregi, 1999: 42).

4.1. Amaren gorputza eta ahotsa

Aztertu ditugun lehen bi eleberrietan amatasun hegemonikoez mintzatu gara, hau da, gizarteak markaturiko normaz, mugaz eta horien aurrean amek egin beharrekoaz, nahiz eta bietan ere agentzialitateaz mintzo. Baina,aldi berean, amatasunaren alde ezkorak begi bistan jarri ditugu, Beauvoirrek edota Firestonek aipatu zituzten moduan. Adrienne Richek, ordea, amatasunaren alde onak eta esperientziak aipatu zituen, eta horietarik eratorriak ditugu hainbat amatasun: ekofeminismoa, adibidez, lurra eta amatasuna (Shiva, 1995) bandera bihurtu dituen, edota amatasuna eta bakegintza (Ruddick, 1984) uztartu dituen feminismoa. Beste joera bat

amatasuna goستن duena Frantzian sorturiko diferentziaren feminismoa dugu (Muraro, 1994), zeinak amatasunarekiko zor sinbolikoa aldarrikatzen duen eta amatasuna, diferentziarako inflexio puntutzat ez ezik, botere guntzat ere hartzen duen. Aztertzen ari garen *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekulan bakarrik* eta *Zergatik Panpox* literatur lanak begirada horrekin aztertu behar dira, amatasunaren boterea aintzakotzat hartuta.

Ildo horretan, amaren gorputza eta ahotsa bizitza oso baten metonimia dira. Amaren gorputza umearentzat janaria, berotasuna, lasaitasuna, jolasa eta plazera da. Esperientzia hori narratzeko orduan, amaren eta haurraren gorputzak eta hizkuntzak berebiziko garrantzia hartu dute. Diferentziaren feminismoarentzat gai zentralak diren emakumearen gorputza eta odola antzeman genitzake: «La centralización del cuerpo y la sangre de la mujer, su proximidad con la Naturaleza (...) escribir en tanto que flujo (de la sangre menstrual, de la leche materna, del flujo uterino), sintaxis líquida» (Suleiman, 2007: 153). *Zergatik panpox*-en erabiltzen den hizkuntzan umearekiko hurbilpena dago. Berdintasunaren feminismoak, ordea, amek umeak ulertzeko erabilitako hizkera gutxietsi egin ohi du, betiere amaren nortasuna gutxitzen eta ezabatzen duelakoan. Diferentziaren feminismoak, aldiz, Luisa Muraroren teoriari jarraituz, umeak ulertzeko amek erabiltzen duten hizkuntza beste modu batera ikusi da. Amak, umeen hizkera erabilia, gutxietsi beharrean egokitu egiten direla dio Murarok. Amek euren boterea gutxitzeko asmoz, hizkuntza estrategia berezi bat abian jartzen dutela dio Murarok. Estrategia horretan ume-amen arteko harremanean hurbilpena eta berdintasuna gertatzen da. Jarrera horrekin, kultura toleranteagoa eta negoziatzaileagoa azaltzen dute amek, kontuan edukiz eurek dutela boterea eta jakintza. «La negociación conjunta de significados, en lugar de imposición de los propios o la falta de reconocimiento de los ajenos, sería básica en una sociedad que valorase la negociación» (Bengoechea, 2004: 103).

Ondorioak

- Azken hamarkadetan, euskal literaturan adinean aurrera egindako pertsonaia protagonista sorta bat sortu da, denak ere 80 urte aldera arri-

matuxeak, zahartzen ari den jendarte baten ispilua, historia beste modu batera kontatzeko aukera edota gaztetasunari aurrez aurre zahartzaroa jartzeko gogoia bihurturik *leitmotiv*. Baina, horren haritik, Urretabizkaiaren *Hiru Maria* eleberriak ekarpen berri bat egin dio eduki aldetik euskal literaturari, memoria albo batera utzirik, zahartzaroa egitasmo bilakatu digu, hau da, zahartzaroon ere pentsa daitekeela eta egitasmo bihurtu, gazteen eskuetan edo erakundeen menean utzi gabe. Zahartzaroa antolatzeaz dihardu, eta sendi formula berri bat proposatu digu: lagun zahar alargunduekin osatutako komunitate bat. Emakumeen arteko konstelazio forma berri bat. Emakumeak, amak eta alargunak eta bizitzak bere joanean adiskide handi egiten dituenak.

- *Koaderno gorria* laneko ama erakunde militarrean subjektu modura agertzen da, eta, aldi berean, bere amatasuna aldarrikatzen du. Argi dago zaintzaren pragmatikatik aldentzen dela, eta bere sinesmen politikoan aldeko apustua egiten duela amatasunaren pragmatika alde batera utzi gabe. Eta hor, jendarteak ez dio barkatzen, senarrak seme-alabak bahitzen dizkio eta erakundeak amatasuna eta armak bateraezinak direla gogoratzen dio. Eta hausnarketa horretan topatuko dugu literatur pertsonaia transgresore hau, hain kontrajarriak diren bi mundu ikuskera elkartzeko: hegemonikoki gizonezkoena den armen mundua eta emakumezkoena den amatasuna uztartzeko. Esan behar da eleberri bakarra dugula gai horrekin etorri zaiguna euskal literaturara, horregatik da hain berritzailea eta transgresorea *Koaderno gorria* obrako ama, hau da, aipaturiko literatur pertsonaia transgresore hauek jendartean egun gertatzen ari denaren lekukotasuna dira; izan ere, amak gizonezkoen munduan sartzen ari dira, neurri apal batean bada ere, eta gizonezkoak, berriz, amatasunaren munduan murgiltzen ari dira, neurri apalagoan bada ere. Ama helduak, bakarrak, ezkontzaren erakundetik at dauden amak dira eta, halaber, ohiko rol eta ereduetatik urrunduz posizio bat definitzen ari dira.
- *Zergatik panpox*-eko ama euskal literaturako lehen protagonista femenino modernoa da, bera da kontalaria, berak erabiltzen du ikuspuntua eta pentsamenduen jariora, *stream consciousness* teknikaren bidez. Paradigma aktantzialean subjektu nagusia da, eta 70eko hamarkadan ema-

kumezkoaren askapen mugimenduarekin lotuta zeuden hainbat gai ditu objektutzat: bikote harremanak, amatasuna, emakumezkoen gorputza, emakumezkoen ahotsa, antisorgailuak, egunerokotasunaren zama... Ezaugarri horietaz guztiez gain, abandonuaren trataera, amatasunaren denborak eta guraso bakarreko familiaren paradigma aurkeztea oso dira azpimarragarriak, eta zer esanik ez garai hartan emakume idazle batek idatziriko lana euskal kritikak goraiatu izana; izan ere, ez zen hori ohikoa tenore hartako kritika historiografikoan.

- Euskal antropologo feministek (Díez, 1995, 2000; Imaz, 2007; Esteban 2011) bere ikerketetan berretsi dute amatasunak aldatzen ari direla Euskal Herrian. Egile beraren hiru eleberri eta ipuin bat aztertu ditugu. Eta esanenezake genero harremanak aldatzen eta birdefinitzen ari direla; izan ere, aldaketa horiek, jendartean ez ezik, literaturan, diskurtsoetan ere gertatzen ari dira. Ama bakarrak, helduak, lan munduan nahiz politikan dihardutenak aurkitu ditugu literatur testuetan, harreman berriak sorrarazi dituzten literatur pertsonaiak. Harreman berri horiek, hain justu ere, zedarritzen dituzte genero arteko harreman berriak.

Bibliografia

ALCEDO MONEO, M., 1996, *Militar en ETA*. Donostia: Haranburu Altuna.

ARETXAGA, B., 1988, *Los funerales en el nacionalismo vasco*. La primitiva casa Baroja.

AZPEITIA, M., 2001, *Piel que habla. Viaje a través de los cuerpos femeninos*. Barcelona: Icaria.

BARRON, S., 2004, « Introducción: La maternidad monoparental », De la Concha, A.; Osborne, R. (koord). *Las mujeres y los niños primero: discurso de la maternidad*. Barcelona: Icaria

BENGOECHEA, M., 2004, « Mi madre es ... un hueco en el espacio: discursos poéticos y lingüísticos sobre la insignificancia materna », De la Concha, A.; Osborne, R. (koord). *Las mujeres y los niños primero: discurso de la maternidad*. Barcelona: Icaria.

CARRERA SUÁREZ, I., 2000, « Feminismo y poscolonialismo: estrategias de subversión », Suárez Briñones, M.B. et al. (ed). *Escribir en femenino*. Bartzelona: Icaria.

CIPLIJAUSKAITÉ, B., 1994, *La novela femenina contemporánea (1970-1985). Hacia una tipología de la narración en primera persona*. Bartzelona: Anthropos.

DEL VALLE, T., 1985, *Mujer vasca. Imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos.

———, 1995, « Identidad, memoria y juegos de poder », *Dena, Revista Cultural*, 2: 14-21.

———, 2002, *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Madril: Narcea.

DÍEZ, C., 1995, « Maternidad: ¿hecho natural?/¿constructo ideológico? », *Bitarte*, 7, 81-93.

———, 2000, « Maternidad y orden social. Vivencias del cambio », T. del Valle (arg.), *Perspectivas feministas desde la antropología social*, Ariel Antropología: Bartzelona, 155-185.

ELORZA, A., 1978, « *Emakume*. Las mujeres en el nacionalismo vasco ». *Tiempo de historia*, 38, 4-17.

ESTEBAN, M.L., 2004, *Antropología del cuerpo*. Bartzelona: Bellaterra.

———, 2006, « Amatasuna, eztabaida antropologikoa eta feministak », Alonso-Arbiol (koord). *Amatasuna eta aitatasuna, proposamen berriak*. Bilbo: EHU.

———, 2011, *Crítica del pensamiento amoroso*. Bartzelona: Bellaterra.

GABILONDO, J., 2006, *Nazioaren hondarrak. Euskal literaturaren historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: EHU.

GALARRAGA, A., 2011, « Zaharra naiz eta harro nago », *Deia*, 2011-02-19.

GOLDMANN, L., 1964, *Para una sociología de la novela*. Madril: Ciencia Nueva.

GONZALEZ ALLENDE, I., 2007, *Género y nación en la narrativa vasca durante la guerra española (1936-1939)*. Renon irakurritako doktorego tesia. Argitaragabea.

IMAZ, E., 2007, *Mujeres gestantes, madres en gestación. Representaciones, modelos y experiencias en el tránsito a la maternidad de las mujeres vascas contemporáneas*. Bilbo: EHU/UPV.

LASARTE, G., 2010, « Amatasunaren gaineko diskurtsoak euskal eleberrigintza garaikidean », *Euskera*, 55, 2, 993-1022.

———, 2011, *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*. Bilbo: EHU/UPV.

LONA, M., 2010, « Patriotic Mothers of Basque Nationalism: Women's Action during the Spanish Second Republic in the Basque Country », Esteban, M.L. & Amurrio, M., 2010, *Feminist Challenger in the Social Sciences: Gender Studies in the Basque Country*. Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada.

NUÑEZ BETELU, M., 2001, *Género y construcción nacional en las escritoras vascas*. Renon irakurritako doktorego tesia. Argitaragabea.

OLAZIREGI, M. J., 1999, *Intimismoaz harandi: Emakumezkoak idatzitako euskal literatura*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

———, 2002, *Euskal eleberraren historia*. Amorebieta-Etxanoko Udala: Labayru Ikastegia.

REDONDO GOICOECHEA, A., 2003, *Jóvenes narradoras de los noventa*. Madril: Narcea.

ROJO, J., 2011, « Zahartzaroan », *El Correo*, 2011-04-16.

RUDDICK, S., 1984, « Marenal Thinking », A. Trebilcote (arg). *Mothering Essays in Feminist Theory*, Totowa/New Jersey, Rowman&Allanheld Publishers.

SHIVA, V., 1995, *Abrazar la vida. Mujer, ecología y desarrollo*. Madril: Horas y Horas.

SULEIMAN, R., 2007, « Escritura y maternidad », Dovay, M. (ed.). *Maternidad y creación. Lecturas esenciales*. Madril: Alba.

UGALDE, M., 1992, *Mujeres y nacionalismo. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza*. 1906-1936. Bilbo: EHU.

URKIZA, A., 2006, *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Irun: Alberdania.

URRETABIZKAIA, A., 1979, *Zergatik panpox*. Donostia: Hordago.

———, 1984, *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekulan bakarrik*. Donostia: Erein.

———, 1998, *Koaderno Gorria*. Erein: Donostia.

———, 2010, *3 Mariak*. Donostia: Erein.

VENTURA, L., 2000, *La tiranía de la belleza*. Bartzelona: Plaza& Janes.

WOLF, N., 1991, *El mito de la belleza*. Bartzelona: Emece.

ZIRELLI, L., 1996, Un proceso sin sujeto: Simone de Beauvoir y Julia Kristeva sobre la maternidad, in Tubart (arg), *Figuras de la madre*. Madril: Cátedra-Feminismos.

Iturri elektronikoak

ALVAREZ, A., 2011, *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan*. <https://addi.ehu.es/handle/10810/7612>

OLAZIREGI, M. J. *Urretabizkaia, Arantxa. Kuaderno Gorria*. <http://www.basqueliterature.com/Katalogoak/obrak/urretabizkaia>. 2012ko maiatzaren 17an berrikusia.



Yuri Sam: Otoitza. Sorginaren berpiztea

Yuri Sam: Otoitza. La resurrección de la bruja

Yuri Sam. Otoitza. La résurrection du sorcier

Yuri Sam. Otoitza. Resurrection of the witch

VALVERDE, Jaime
Euskal Herriko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2013-03-25

Noiz onartua: 2013-07-09

Euskera. 2012, 57, 3. 761-799. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu honetan *Yuri Sam: Otoitza* (2003) antzezlanaz aztertzen da, Ander Lipus eta Antzerkiola Imaginarioaren obrarik adierazgarriena. Yuri Sam Noh teatroa, Kathakali, Baliko dantzak eta maputxeen zeremoniak euskal sustraiekin nahasiz sorturiko xamana dugu; heriotzatik bueltatzen dena bizitza aldarrikatzeko erritu baten bidez. Antzerti-antropologiaren eragina duen obra hau teatroa ulertzeko modu iraultzaile baten isla da eta azken urteotako euskal antzezlanik interesgarrienetakoa dugu.

Hitz-gakoak: Lipus, Antzerkiola, antzertia, antropologia, erritua, interkulturala.

En este artículo se analiza la obra teatral *Yuri Sam: Otoitza* (2003), la pieza más representativa de Ander Lipus y la Fábrica de Teatro Imaginario. Yuri Sam es un chamán creado de la mezcla del teatro Noh, el Kathakali, las danzas balinesas y las ceremonias de los mapuches con las raíces vascas. El chamán vuelve de la muerte mediante un rito para hacer un llamamiento a la vida. Esta obra, influenciada por la antropología-teatral, representa una forma revolucionaria de entender el teatro y es una de las representaciones teatrales más interesantes de los últimos años.

Palabras clave: Lipus, Antzerkiola, teatro, antropología, rito, intercultural.

Cet article analyse l'œuvre théâtrale *Yuri Sam: Otoitza* (2003), œuvre la plus représentative d'Ander Lipus et *Antzerkiola Imaginarioa*. Yuri Sam est un chaman qui réunit le théâtre kathakali, les danses de Bali et les cérémonies des mapuches avec les racines basques. Le chaman revient de la mort grâce à un rite où il fait un appel à la vie. Cette œuvre, influencée par l'anthropologie théâtrale, présente une façon révolutionnaire de voir le théâtre ; il s'agit de l'une des représentations théâtrales les plus intéressantes de ces dernières années.

Mots-clés : Lipus, Antzerkiola, théâtre, anthropologie, rite, interculturel.

In this piece of work the play *Yuri Sam: Otoitza* (2003), the most representative piece of Ander Lipus and the Imaginary Theatre Factory, is examined. Yuri Sam is a shaman based on Noh theatre, Kathakali, Bali dances and Mapuche ceremonies mixed with Basque roots; he returns from death by means of a life-affirming rite. This play which is influenced by theatre anthropology reflects a revolutionary way of understanding theatre and is the most interesting Basque play of the last few years.

Keywords: Lipus, Imaginary theatre factory, theatre, anthropology, rite, intercultural.

Lan hau Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen IT 851/13 Ikerketa Proiektuaren barnean kokatzen da.

1. Ander Lipus eta Antzerkiola Imaginarioa

Ander Lipus ezizenez, Iñigo Ibarra Lizundia izenez, Markina-Xemeinen jaio zen 1971an. Madrilgo William Layton antzerti laborategian ikasi ondoren, 1996an Bilbora bueltatu zen eta beste gazte batzuekin batera Mina Espazioa abiarazi egin zuen 1997an, garai hartako Bilbo postindustrialeko motor (kontra)kultural gisa hiru urtez funtzionatu zuena. Hain zuzen ere, espazioaren emaitzarik behinena Antzerkiola Imaginarioa¹ antzerti taldea izan zen, zeina, Udalak espazioa ixtea erabaki ondoren, hain proiektu aberasgarria izandakoaren aztarna bakarra bihurtuko zen.

Antzerkiolaren lau zutabeak Jon Gerediaga idazlea, Aitor Agiriano musikaria, Oier Ituarte argi-emailea eta Ander Lipus bera izan ziren. Horrez gain, bere ibilbidean zehar –2011ra arte– hainbat aktore gaztek hartu zuten parte proiektuan: besteak beste, Miren Gaztañaga, Veronica Fernandez, Leire Ucha, Alex Gerediaga, Na Gomes, Terri Florido, Miriam K. Martxante, Gabriel Ocina, Ainhoa Jauregi, Eriko Monroe, Itziar Izarra...

Baiki, esan daiteke Ander Lipus eta Antzerkiola Imaginarioaren arteko loturak berebiziko garrantzia izan duela noranzko bietan, non eta ezin den hitz egin Ander Lipusen obra edo estetikaz Antzerkiolaren obra edo estetikaz ere hitz egin gabe, eta aldrebes.

1.1. Estetika

Taldearen apustua antzertiaren inguruko ikerketa artistikoa eta esperimentazioa izanik, hasiera-hasieratik jite abangoardista egotzi zitzaizen ohiko teatrotik erakusten zuten distantziagatik –antzerti burges-psikologikoa edo komedia tradizionaletik alegia–. Orobat, artearen gaineko beren jarrera utopikoak publiko arruntetik urruntzen zuen taldea eta biziraupen ekonomikoa arriskuan jarri, baina, aldi berean, berezko estilo eta estetika bat garatzea ahalbidetu zien.

Hay actualmente experiencias tan esperanzadoras como las de Fábrica de Teatro Imaginario, que primero alrededor de Mina Espa-

¹ Fábrica de Teatro Imaginario (FTI) ere deitua. Hemendik aurrera Antzerkiola edo AI.

cio y actualmente en el Laboratorio del Drama, son los que mantienen un discurso más novedoso y con claras intencionalidades de romper los moldes clásicos (Gil 2002, 770).

Estetika berezi hori *ezetzaren estetika* edo *kaosaren estetika* izendatu zuten taldekoek. Funtsean, Mendebaldeko gizarte alienatua eta berari lotua dagoen teatro forma tradizionalaren kontrako jarrera baten isla litzateke hau tu hori: ezetza «[a]ntzerkiaren topiko, formula, estereotipo eta konkorreren kontrako orroa» bezala (AI 2007, 6); ezetza, Grotowsky-k aldarrikatu legez, benetako antzerkiari arrotz zaion guztiari; ezetza indibidualismoaz antolatzen den gizarte endekatuari; ezetza kultura bigarren mailakotzat duen egitura politikoari; ezetza, kontrakultura punkak egin bezala, hipokrisian oinarritutako gustu estetiko apaingarri eta hutsalari.

Eta horrekin batera, sistema sozial horren euskarri den estructures finkoaren aurka: kaosa. Kaos eszenikoa drama aristoteliko-psikologikoaren aurrean; kaosa antzerkigileak enpresari bilakatzera behartzen dituen egitura burokratikoaren aurka; kaosa, azken finean, hankaz gora ikusten zuten munduari buelta emateko; kaosa bere izaera eraldatzailean, aukera berri anitzen sorburu bezala; kaosa gizarte berri baten ernamuin gisa.

Artaudek egin zuen bezala (Artaud 2001, 12-13), Mendebaldeko antzerkiarekin batera Mendebaldeko zibilizazioa bera salatzen dute Lipusek eta Antzerkiolakoek, lehenengoa bestearen ondorio logikoa baino ez baita. Gizartearen endekatze prozesuaren oinarrian espiritualtasunaren galera ikusten dute haiek: «[A]rima erdi galduen garai honetan, fede eta balio gabeko garai honetan, makinaria eder eta biribil hau deuseztatu nahian gabiltza. Nora ezean.» (Lipus 2004) Espiritualtasuna galtzarekin batera Mendebaldeko gizarteak lurrarekiko atxikipena, tradizioarekiko lotura eta komunitatearen uztardura ere galdu ditu: «Sakratua zena, biluztua agertzen zaigu, komunitatean elkartu eta konpartitzen zena, orain modu indibidualean ematen da. Pertsonak Jainko bihurtu gara» (Lipus 2005b). Hortaz, gizarte hutsal horri loturiko antzerkia «aldare hutsa» izango da: «Erritoaren eta kulturaren oinarriak ahaztuta, ikuskizun hutsa bilakatu da egungo antzerkia» (Lipus 2001).

Lipusen ustez berreskuratu beharreko antzertia osotasun bat eratzen duten hiru zutabetan oinarritu behar da: espiritualtasuna, herria eta tradizioa. Espiritualtasunak antzerti hutsal hori zentzuz eta balioz beteko du; erritura hurbilduz. Herria antzertiaren helburu eta gai lehena izango da: herriarentzat, herriari buruzkoa eta, ahal den heinean, herriak sortua. Eta tradizioa herriaren arima bezala ulertuko da, iraganeko arbaso zein lurrarekiko lotura, non antzertia, hain zuzen ere, tradizio horren adierazpen nagusia baita.

Tradizioaz ari garelarik, seinalatu beharra dago Lipusengan Oteizaren filosofiak izan duen eragina. Oteizak aldarrikatu euskal arima estetikoak bilatzeko beharra bere egiten du Lipusek. Oteizak erabili esaldia «abangoardia prehistorian dago» lelotzat harturik, Lipusek uste du euskal tradizioaren iraganarekiko harremana berreskuratzea betebeharrak dela, eta bilaketa horrek azarna garbia utzi du bere obran. Haatik, *Yuri Sam: Otoitza* aztertu ahala ikusiko dugunez, Lipusek ez du jarauntsi Oteizaren irizpide esentzialista. Oteizak euskal tradizioa gainerakoez bereizten zuena bilatu zuen (Oteiza 1993); Lipusek, ordea, euskal tradizioak besteekin erkide duena bilatuko du, kulturaren unibertsaltasunean sinetsita baitago.

1.2. *Errituala, ikuskizuna eta kultura*

Gauzak horrela, lehengo proiektuak abiatu ahala taldearen asmo sozial eta artistikoaren inguruko ideia guztiak antolatzeke eta definitzeko beharra sortu zitzairen. Hala, Eugenio Barbaren antzerti-antropologiaren (Barba 1994) teoriarik eraginda, eta hausnarketa prozesu sakon baten ondoren, taldeak berezko marko teoriko bat eratu zuen bere jardunari zentzu eta koherentzia emateko. Markoak hiru kontzeptu orokor definitzen zituen: *Errituala*, *Kultura* eta *Ikuskizuna*²; eta haiei esker aukera zegoen Antzerkiolak sortuko zituen proiektu guztiak bizitza-printzipio batzuen arabera antolatzea³.

² Berezko esanahiak egotzi zizkietenez, Lipus eta Antzerkiolaren markoari dagozkion kontzeptuak – *Erritua*, *Kultura* eta *Ikuskizuna* – letra etzanez adieraziko dira.

³ Esan beharra dago Ander Lipusek eskema kontzeptual honi eutsi diola bere karrera osoan, baita AI-tik kanpo ere.

*Erritual*a antzertiaren muina eta aktibitate osoari zentzua ematen dion ideia da: *erritual*a «behar batengatik egiten duzun gauza bat [da], inongo konpentsazio ekonomikorik gabe» (Lipus 2011b). *Erritual*aren bereizgarritasunak trukea, partaideen arteko parekotasuna eta dirurik eza dira; alegia interes ekonomikorik gabeko giza-harremanetan oinarritua da. Eta diru birtarteko erlaziorik ez dagoen bezala, aktore-ikusle bereizketarik ere ez dago.

*Erritual*aren kontrako aldean *ikuskitzuna* legoke: *ikuskitzuna* katxe finko baten arabera taularatzen diren obrak dira eta, hartara, merkantzia bilakatu den antzertia litzateke. *Ikuskitzuna* antzertiaren esentzian dauden ezaugarri garrantzitsuenak galdu ditu –doakotasuna, sakratutasuna, partaideen parekotasuna, ea.– eta beraz, benetako teatroaren endekapena litzateke, egungo artistaren amore ematea gizartean bizitzeagatik (Lipus 2005b).

*Erritual*ak eta *ikuskitzuna* markatzen dituzten muturren artean *kultura* izango genuke. *Kulturak* badauzka *erritualetik* bereizten duten zenbait ezaugarri: ez da trukean oinarritzen, partaideen artean ez dago parekotasunik, eta dirua tartean egon daiteke. Baina aldi berean, *ikuskitzuna* bereizten duten ezaugarriak ere badaude: dirua presente egon arren, ez da, inondik ere, gertakariaren muina; kontrara, *kulturaren* esentzia *kultura* edo tradizioa ospatzea da. Artistak etekin ekonomikorik atera gabe eskaini dezake bere lana, garrantzitsuena antzertiaren aitzakiaz herria biltzea eta *kultura* partekatzea delako, non batzuetan ekitaldi bati *kultura* izaera ematen diona lekuaren balio sozial sinbolikotik datorren: txoko bat, gaztetxe bat edota herriko plaza.

1.3. **Bitalismo beltza**

Logikoa denez, horrelako jarrera utopiko bat izanik, taldeak desengainuari aurre egin behar izan dio maiz. Izan ere, Ander Lipusen zein Antzerkiolaren biografia artistikoa gizartea antzertiaren bidez aldatzeko borroka sutsu horretan ematen diren garaipen txiki eta galtze handien kontaketa izan liteke. Hain zuzen ere, bitalismo utopiko horren eta errealtate desatseginak sortzen duen etsipen sentimenduaren arteko tentsioa izan daiteke bai Lipusen bai AI-ren jarrera eta estetikaren ezaugarri bereizgarrienetako bat.

Itxaropen eta etsipen sentimenduen arteko kontrastea eszena gainean gauzatzen den munduaren oinarria da, bitalismo beltzaren sorburua.

Izan ere eszenaratzeetan giro iluna nagusi da, non musika goibelak paraje baztertu eta irrealak sortzen dituen. Argiztapen mehearekin gaua eta itzalen mundua ekartzen dira tauletara maiz gorria bezalako koloreekin fantasiaren edo ametsaren erreinua iradokiz. Orobat, eszenografia soil, sinboliko eta hieratikoak espazio gordin eta aldi berean irudimentsua eskaintzen die pertsonaiei, zeinak usu grotesko edota fantasmagorikoak izaten diren, betiere drama klasikoko aginduei muzin eginez. Ez alferrik, Ander Lipusen pertsonaien berezitasuna da gatazka dramatikoa barnean daramatela, alegia, barruko indarren artean, pertsonaien arteko tentsio dramatiko tradizionalaren orde.

Jaso dituen eraginen artean –Artaud, Meyerhold, Grotowsky...– aipatu beharreko bat Tadeusz Kantor eta bere heriotzaren teatroa dugu; batez ere *Yuri Sam: Otoitza*-ri gagozkion honetan. Kantorrek heriotzarekin lotzen zuen eszena –aktorea dagoen eremu «arraro eta definigaitz hori»–. Bere iritzi, taula gainean gizakiak «eskala gupidagabe eta erabateko batekin neuritzen du bere patua, bere heriotzaren eskala» (Kantor 2004, 249). Haren ustez bizitza bakarrik adieraz daiteke bizitzarik eza eta heriotzaren bitartez artean (Kantor 2004, 247).

La impresión confusa, inexplicada, de que la muerte y la nada entregan su inquietante mensaje mediante una criatura que tiene un engañoso aspecto de vida, pero al mismo tiempo está privada de conciencia y destino: eso es lo que provoca en nosotros ese sentimiento de transgresión, que es al mismo tiempo atracción y rechazo. (Kantor 2004, 246)

Ander Lipusek paisaia ezaguna topatzen du Kantorren teatroan: poloniarak paratzen dituen objektu hilen taularatzeetan Lipusek errekonozitzen du Bilbo postindustrialeko ingurune sentimentala. Lantegi hutsak, pabiloi hondatuak, garai bateko eraikin erraldoiak egun herdoilak kontsumituta: behingo gizartearen motorrak oraingo arkitekturaren hilotzak. Eta Kantorri bezala, Lipusi objektuen heriotzak bizitzaz hitz egiten dio; are gehiago, Peter Brookek ohartarazi bezala, antzerkigilearen aurrean espazio hutsak aukera guztien potentziala gordetzen du.

Hain zuzen ere, horretan datza Kantor eta Lipusen heriotzen artean dagoen aldea: Lipusen kasuan bizitza berri baten aukera da, itxaropenez beteriko aukera iturria, edo, *Yuri Sam. Otoitza*-n ikusiko dugun bezala, bizitzearen urgentzia aldarrikatzera datorren heriotza bat. Ez alferrik, bertan behera lagatako lantegiaren metafora oso adierazgarria suertatzen da bai Lipus bai Antzerkiolaren iruditeriaren berri emateko: lantegi hutsak galera, utzikeria eta heriotza irudikatzen dituen arren, aldi berean berriro hasteko aukera-gunea ere bada, erabilpen berri anitzi leku eman diezaiekeen espazioa, non ekimen biziaren adorea bizitza berri bat sor daitekeen.

2. Antezlanaren azterketa

2.1. Harrera

Yuri Sam: Otoitza Ander Lipus eta Antzerkiolaren obrarik goraiatuena izan da. 2004ko Donostia Hiria Saria jaso zuelarik, kanpoan ere antzezteko aukera ugari izan zituzten; hala nola Madrilen (2004), Egiptoko nazioarteko teatro jaialdian (2004), New Mexico-n (2004), Tortosako nazioarteko teatro jaialdian (2005), Argentinako EXPERIMENTA jaialdian (2003), Chicagon (2004), Miami XXI Nazioarteko teatro hispanikoan (2006) eta Iraneko Fadj nazioarteko antzerti jaialdian (2006), besteak beste.

Kritikei dagokienez, laudorio eta onespak orokorrak izan ziren. Agus Perez-ek «botere handiko» antzezlanat jo zuen eta aktoreen presentzia eszenikoa nahiz beraien mugimenduen adierazkortasun eta zorrotasuna nabarmendu zituen; horrez gain, muntaketaren estetika ikaragarri zaindua, deklamazioaren indarra, osagai eszenikoen sinbologia edota argiztapenaren edertasuna ere nabarmendu zituen (Perez 2003).

Fernando Andú-k bestalde, heriotzaren eremuan egindako sakontze erakargarria dela idatzi zuen, publikoaren inplikazioa bilatzen duena eta erabateko konbentzimenduekin planteatuta dagoena. Hala ere, Artauden ankerkeriaren teatroarekin alderatzean, hizkuntzak obran duen nagusitasunak garrantzia kentzen diola ikuskizunari ere esan zuen, berau begira eta belarriera emana delako (Andú 2004).

Gloria Monterok «izugarrizko edertasuna duen ikuskizun liluragarria» dela esan zuen, eta hizkuntza arkaiko baten bidez, hitzez harantzago doazen hots eta oihuetan oinarritzen dela, bizitzaren edertasunaz mintzatzeko. Julio Cejasek obraren estetika landua eta zorrotza aipatu zuen (Cejas 2004); eta Carlos Pachecok dramaturgia doitu eta probokatzaileria azpimarratu (Pacheco 2003). Finean, kritika guztietan nabarmentzen zen Lipusen aktore lan bikaina.

Baina nolana ere den, esan beharra dago *Yuri Sam: Otoitza*-ren kasua paradoxikoa suertatuko zela azkenean; paradoxikoa eta, aldi berean, euskal teatroaren egoeraren adierazgarri tristea. Kritika on eta laudorio guztiak gorabehera, taldeak zailtasun handiak izan zituen gurean kontratazioa lortzeko (AI 2007, 7).

2.2. Pertsonaiak

Hiru pertsonaia ditu antzezlanak: Yuri Sam (Ander Lipus), Kurma (Miren Gaztañaga) eta Kumalen (Verónica Fernández). Yuri Sam, ahalmen magikoen bidez mundu batetik bestera igaro daitekeen pertsonaia miragarria, burutuko den errituaren gida eta, aldi berean, sakrifizioaren biktima ere bada. Hori bai, antzezlanaren eskuorrian hala nola lehenengo momentuetan ohartarazten zaigun bezala, Yuri Sam hilda dago jada; beraz, taula gainean bere berpiztea ikusiko dugu.

Yuri Sam pertsonaia zenbait kulturatako zantzuekin eratu xamana da: batez ere indiar, maputxe eta euskal aspektuekin. Identitate kulturalarekin ados, identitate sexual uherra ere badu: gizon batek jokatu izan arren, momentu batean «alaba» eta «arreb» dela esaten baitu (AI 2007, 21); hau da, Yuri Sam pertsonaia transgeneroa dugu. Izan ere, bai maputxeren kulturari bai paganismo euskaldun zaharrean erritu magikoen gida espiritualaren papera emakumezkoei dagokie. Hori dela eta aproposa deritzot *xaman* izenarekin batera –gidok gizonetakoak diren kultura siberiarretik hartutako maillegua– *sorgin* izendapena ere erabiltzeari, egokitasun geografiko zein kulturala duelakoan. Bada, sorgin honen barne gatazka, bizirik zegoela espiritualtasuna galdu egin zuela da, eta horrek, heriotza tarteko, gorputzari

dagozkion plazerak galarazi zizkiola. Hortik aurrera akats horren damutzeak eta galdutako plazeren oroimenak torturatuko dute.

Kurma eta Kumalen ilargia eta eguzkiaren espirituak dira, hurrenez hurren. Pertsonaia hauek karakterizazio laua zein funtzio ordezkatzaila duten arren, behar-beharrezkoak dira obran. Arlo dramatikoan Yuri Sam-i elkar-reragina eskaintzen diote eta, errituari dagokionez, xamanek izan ohi dituzten laguntzaileen papera betetzen dute. Haien presentzia eszenikoari esker Yuri Sam-en irudia indartzen da kontrastez, eta berarekin izaten dituzten borroka eta jolasek antzezlanak ezinbesteko dituen ekintzak osatzen dituzte. Testuaren aldetik ere Yuri Samen jarduna monotono eta aspergarria izango litzateke beraien parte-hartzeekin ez bazen eta, gehiago dena, beraiek izango dira Yuri Sam sakrifikatuko dutenak.

Horiez gain badaude beste zenbait pertsonaia maila diegetikoan: Evohé, Henk eta Wendel, apenas garrantzirik ez duen besteren baten artean. Pertsonaia hauek Yuri Samen oroimen nahasian dabiltzan mamuak dira eta behin eta berriro ekarriko ditu ahotara, galdutako bizitzaren lekuko gisa. Evohé «argiaren printzea» da, Yuri Samen maitalea bizirik zegoenean eta obran zehar sorginaren intziri eta aitorten gehien jasotzailea. Henk eta Wendel pertsonaia itxuragabe eta lausoak dira, zeinak, Parnaso izeneko psikiatriko batean ezagutuak direnez, eromenaren sinboloa diren hein handi batean. Henk-ek «norena da errua?» galdera besterik ez omen zuen esaten eta Wendel berriz, zorientasun eroaren adibidea da.

2.3. Testua

Esan beharra dago AI hasiera-hasieratik dakusagula logozentrismoaren oposaketan kokaturik. Antzerti tradizionalen testuak erabat baldintzatzen badu antzezpena, non taularatzea «itzulpen» (Braun 1986, 81; Grotowski 1983, 50) prozesutzat har daitekeen, AI-k kontrako norabidean eratu ditu bere sortze prozesuak; hots, antzezpenerik testura. Izan ere, Antzerkiolaren sortzeko era «idazketa eszenikoan» (Sánchez 2002, 78) oinarritzen da: ideia idazlearengandik ateratzen den kasuetan ere –*Yuri Sam. Otoitza*, adibidez–, sortze prozesuaren motorrak irudia eta soinua ditugu, eta testua, betiere,


haien ondorengoa izango da. Eszenan gauzatuko diren irudi eta soinuak ezarritakoan geratzen den idatzizko hondarra baino ez da testua (AI 2007, 5).

Antzerkiolarentzat Gerediakak paratu testu guztietan jite poetikoa handia bada, *Yuri Sam: Otoitza*-ren izaera bereziak aukera eman zion joera poetiko hori erabat garatzeko. Sorgin berpiztuaren ahotsa eta antzinateko erritualaren ospatzea testuinguru ezin hobekak ziren Gerediagaren poesiak duen alde metafisikoari bidea emateko. Poetikotasun kutsuaz ez ezik, esan daiteke antzezlanaren testua poemez beterik dagoela, non Gerediakak sakontzen duen Lipus eta Antzerkiolarekin erkide dituen obsesioetan: jainkoaren eta gizakiaren arteko erlazioa, natura eta espiritualtasuna edo mitoen mundu liluragarria. Izan ere, *Yuri Sam: Otoitza*-ren testua osatzen duten pasarte asko poema gisa argitaratuko zituen geroago poetak, *Fitola balba, karpuki tui* (2004) bere lehenengo olerki bilduman: besteak beste, *Evohé, Mea Culpa* edota antzezlanaren hasiera den *Sehaska kanta beltza*.

2.4. Eszenografia, atrezzo eta jantziak

Eszenografia eta atrezzoan (Jose Pablo Arriaga), obraren gainerako arloetan bezala, asmo dramatiko eta sinbolikoa uztartzen dira. Eszenaren gainean aldare nagusi bat dago; eszenaurrearen alde banatan, bi aldare txikiago; momentu oro piztuta dagoen zuzi bat beraien artean; eta atzeko partean, ezker eta eskuin, bi totem soil. Aldare nagusia errituaren –eta antzezlanaren– erdigunean dugu; errituaren fase jakin batzuetan pertsonaiak bertara igoko dira eta, bestalde, zenbait objektu gordetzeko ere balio du. Amaierako partean espirituak lurrean etzango dute aldare nagusia eta, era horretan hilkutxa forma duelarik, Yuri Samen azken sakrifizioa egiteko baliatuko da. Atezko totemetatik zenbait objektu aterako dituzte espirituak: beste zuzi bat, sakrifizioaren ezpatak eta zenbait makila. Errituan agertutako objektu guztiak erabili ostean aurreko zuziaren alde banatan utziko dituzte espirituak, solemnitatea emanaz eta haien balio sinbolikoa nabarmenduz. Zentzu horretan, Rakel Marinek seinatu duen bezala, antzezlanean erabili objektu guztiak euskal tradizioan hain usua den egur ilunez eginak dira (2011, 202).

Eszenografiaren planoak



Berebiziko garrantzia dute antzezlanean erabilitako makilek: alde batetik, erritmoa emateko errituaren momentu askotan erabiltzen direnez, txalaparta jotzeko erabiltzen direnak irudikatzen dituzte eta, beraz, euskal kulturaren erreferentzia dira; bestetik, guztira hogeitak makila izanik, erritu-unitateen arabera erabiltzen diren esanahi sinboliko desberdineko lau makila motatan antolatzen dira. Lehendabizi, kontaktuaren sinboloa diren makila laburrak erabiltzen dira; gero, ertaineko luzerarekin, borrokarenak; ordenaren sinboloa direnak hurren, luzeenak; eta azkenekoz espiritualtasuna adierazten dutenak, ertz batean gako moduko formarekin (Lipus 2011a). Errituan zehar spirituek aurreko aldareetan utziko dituzte makila guztiak tente txertaturik; ezkerrekoan errituak izan dituen fase sinboliko guztiak hurrenkeran adierazita uzteko eta eskuinekoan espiritualtasuna irudikatzen duen konposizio bat eratzeko. Finean, xamanak normalean instrumentu magiko batez baliatzen diren bezala, Yuri Samek ere makulu luze bat erabiltzen du, zeinak

goiko muturrean AI-ren ikurra daukan: «Ixten ez dan zirkulu bat. Badirudi, izakiak egindako lehen irudia dela.» (Lipus 2011a)

Yuri Samen jantzia (Miren Lore Garmendia), detaile handiz egina, Kathakali teatroan erabiltzen diren jantzien euskal moldaketa bat da, zeinak txano, lepo ikusgarri eta azpikogona zabalarekin, xamanaren izaera sexual anbigua eratzten laguntzen duen. Espirituen jantziak berriz (Azegiñe Urigoitia), xamanaren ikusgarritasunarekin kontrastea egiteko pentsatuta daude eta, beraz, soil-soilak dira: inongo apaingarririk gabeko kolore zuriz eginak. Arestian esan bezala, espirituek zapi batez dute aurpegia estalita antzezlan osoan.

2.5. Espazioa⁴ eta denbora

Printzipioz antzezlan italiar erako agertoki arruntean taulartzeko pentsatuta dago; hots, Pavis-ek (1984, 171) eszena itxia deitzen duena, non «laugarren pareta» baita publikoaren aretora ematen duen bakarra. Hori bai, Oier Ituarteren argiztapenak gainerako hiru hormak ikustarazten ez dituenetz, espazioaren mugak itzalek zedarrituak dira, lekuari linbo itxura emanek. Obraren argiztapenak espazio ilunekin nahiz itzalekin jolasten da, antzezlan misterioz zipriztinduz baina, aldi berean, eszenografiak duen soil-tasunari ere eutsiz.

Maila sinbolikoan ordea, erritualizazioak trataera berezia ematen dio hala espazioari nola denborari. Hasteko, antzezlaneko ekintza guztiak leku berean eta denbora tarte berean jazotzen direnez, *Yuri Sam: Otoitza*-k espazio eta denboraren unitatea erakusten du. Haatik, ezaugarri horretan ez da ikusi behar, inondik ere, arau aristoteliko klasikoak jarraitzeko intentziorik, baizik eta errituak berezko duen nolakotasun bat erreproduzitzeko asmoa: errituak leku eta denbora tarte bakarrean gauzatzen baitira.

Gauzak horrela, espazio eta denborari ematen zaien trataerak antzezlanaren denbora-lekua eta antzezenarena (hurrenez hurren, denbora-leku

⁴ Espazioarekin batera argiztapena ere deskribatzen dut espazioa argiztapenak egiten baitu.

erreala eta irudikatua) gauza bera direla pentsatzera garamatza. Espazioari dagokionez ikusten dugu haren balio sinbolikoa markatu gabe dagoela; gainerako osagai guztiak ez bezala. Esan nahi baita otoitzak, jantziak, objektu sinbolikoak eta abarrekoak erreferente diren tradizio kulturalen arabera zehaztuta daudela, baina espazioari lotutako informazioa ordea, bete gabe dago. Horren aurrean, aukera bat da pentsatzea antzezten den errituaren espazioa edozein edo bat ere ez dela; Ander Lipusen poetika ezaguturik berri, ondorioztatu behar dugu antzeztanaren espazio erreala eta irudikatua bat eta bakarra direla; alegia Yuri Samen berpiztea agertokian bertan beste inon ez dela gertatzen.

Denborari dagokionez maila diegetikoaren informazioak kokatzen du antzeztana. Kumalenek «Yuri Sam, 2000. urteko neguan hil zen.» esaten duenean (AI 2007, 16), aurrekariak ezartzeaz gain antzeztanaren denbora ere ezartzen ari da, non eta antzeztanaren momentu berean. Heriotzaren data antzeztanaren iragan hurbilean kokaturik, zehaztu gabe dagoen antzeztanaren momentua orainarekin identifikatzen da. Beste modu batez esanda, denborazko erreferentzia hori seinalaturik, pertsonaiak publikoaren denborazko perspektiba berean kokatzen dira, iraganeko gertakari horretatik *distantzia* berean daudela iradokiz. Horrela, Yuri Sam «2000. urteko neguan hil zelarik», antzeztan bakoitzean –2003an, 2004ean, 2007an...– berpizten da berriro.

Izan ere, Ander Lipusen pentsamenduari ez ezik, interpretazio hori erabat koherentea da gainerako antzeztanaren baldintzekin: pertsonaien jardunak, argi eta garbi, ez dauka beraien artean informazioa trukatzeko inongo asmorik; pertsonaiak publikoaren presentziaz jabetuta daude eta, are gehiago, publikoa *dagoelako* hitz egiten dute, askotan zuzenean hitz egiten diotelarik. Orobat, publikoa ez da «antzeztanaren hitzarmenaren» (García Barrientos 2003, 29) magiaz eszena horiek ikustea egokitu zaion eta ez ikusiarena egiten zaion errealitate bat: Yuri Sam berpiztearen arrazoia heriotzatik mezu bat zabaltzea da, eta mezu horren jasotzailea antzokiaren eserlekuetan biltzen den jende multzoa baizik ez da. Hartara, erritua gauzatzeko espazioa antzoki bakoitzaren agertokiarekin identifikatu behar dugu, hala nola errituaren denbora antzeztan bakoitzaren iraupenarekin; ordubeteko hain zuzen. Ez alferrik, *Yuri Sam: Otoitza*-ren atzean –eta baita Lipusen antzerkigintza osoaren atzean ere– agertokia sakratu bihurtzeko asmoa ikusi behar dugu.

2.6. Mugimendua eta ahotsa

Obraren alderik interesgarrietako eta funtsezkoenetakoa da Yuri Samen mugimenduari dagokiona, zeina, Ander Lipusek egindako ikerketa sakon horretan gauzatzen denez, proiektu artistikoaren atzean dagoen asmo ideologikoaren azalaraztea ere baden. Yuri Samen egoera eszenikoan ga-koak dira Katakhaliko teatrotik, Baliko dantzatik eta Noh antzertitik bereganaturiko teknikak. Yuri Samen grabitate zentroa, Katakhaliko aktoreen antzera, oso baxu dago, eta bere belaunak ia momentu oro daude tolesturik; hau da, aktorearen energia nahiz indarra gorputzaren sabalpetik ateratzen dira. Horrek, alde batetik, bere jite sensua eta eskatologikoa ematen dio Yuri Sami; bestetik, lurrarekin duen harremana nabarmentzen du, sorginari dagokion izaera telurikoa sendotuz. Indarra eta energia ez ezik, pertsonaiaren ahotsa ere irteten da sabalpetik, eite berezi-berezi bat emanez: alegia baxu-baxua den tonu bat, ezkutua eta iluna, hilobiaz haraindikoa balitz bezala. Finean, kontrastea eta bitxitasuna sortze aldera, Yuri Samek intziri agudoak ere botatzen ditu tarteka.

Horrez gain, Baliko dantzarien presentzia berezia ere antzematen da xamanaren jarrera eszenikoan: gorputzaren posizioa ia momentu guztietan orekaren mugara eramaten da baina, aldi berean, erosotasun fisikoa iradokitzen du aktoreak, gorputz atal bakoitzari kontrol zorrotzaz eusteko kapaza delako. Orobat, mugimenduei adierazgarritasun berezia ematen dion Noh teatroaren neurritasun geldoa ere nabaria da, eszena gainean momentu batzuetan denbora gelditu den irudipena sortuz. Baliabide tekniko horien guztien uztardura harmonikoak –non nekez antzeman daitekeen zer mugimendu dagokion teknika bakoitzari– ematen dio Yuri Sami bere presentzia irrealia, aldi berean solemnea eta fantastikoa, magikoa eta erakargarria: organikoa.

2.7. Estructura

Erritu baten antzezpena izateak dramaturgia osoa erritualizazioaren menpean egotea dakar. Adibidez, nekez aurkitu ahal da fabula bat obran eta, halakorik egotera, maila diegetikoan kontaktzen den Yuri Samen istorioa

litzateke. Gainera, testua osatzen duten esaldi deitzaile ugariei erreparatuz, elkarrizketa bat baino gehiago, publikoari zuzendutako kontaketa bat bezala ikusi behar da. Bestalde, erritu baten antzezpina den arren obrak ez du «meta» izaerarik, publiko bat eta bakarra dagoelako: erreala alegia.


Yuri Sam: Otoitza ez da istorio baten antzezpina baizik eta asmatu-rik erritu baten antzeppen estetikoak. Beraz, antzeplan klasikoetan dramaturgia- ren deskribapena egiteko istorioaren hezurdura aproposa suertatzen den legez, *Yuri Sam*-en dramaturgia azaltzeko ere baliagarria izango da erritua eta horri dagozkion osagai sinbolikoak erreferente bezala izatea. Hala, antzeplanaren estruktura behar bezala adierazteko bi plano bereiziko ditugu.

Lehenengoa antzeppenaren muina izango da: errituari dagokiona. Plano hau taldeak antzeplanerako propio asmatutako iruditeri sinbolikoaren eta osagai erritualen dimentsioa izango da. Edozein erritu bezala, barneko erritu hori koherentzia eta esanahi sinbolikoa duten ekintza zeremonialek osatzen dute. Publikoarentzat sinbolok partzialki ulergaitzak diren arren, aldi berean errituak behar duen autonomia eta entitatea ere ziurtatzen dute; benetakotasuna, azken finean.

Bigarren planoan errituaren zeremoniari zuzenean ez dagozkion osagaiak izango dira; kanpoko dimentsioa alegia. Plano hau errituaren eta publikoaren arteko komunikazio eremua izango da, publikoak jaso eta ulertuko duen mezua bertan garatuko baita. Plano honetan pertsonaiek Yuri Samen istorioa publikoari adieraziko diote eta, zeharka bada ere, errituaren helburua azaldu. Beraien jardunean, beraz, funtzio diegetikoa eta, batez ere, ideologikoa nabarmentzen dira. Mezaren zeremoniarekin antzekotasun handia duenez, esan dezakegu pertsonaien solasak sermoi izaera duela, non publikoari helarazi nahi zaion mezu nagusia bizitza profitatzearen beharra den (*Carpe Diem*). Guztiarekin, irakurleari ohartarazi behar zaio antzeplanak osotasun organikoa duela eta, hortaz, bereizketa hau artifiziala dela, azterketa sistematikoa egiteko beharraz bakarrik justifikatua.

Estruktura adierazteko lehenengoz taldeak berak prestatu-rik eszena-eszenako energia dramatikokoaren partitura grafikoa erakusten da, eta ondoren deskribapenaren taula. Taulak hiru zutabe ditu: hurrenez hurren, eszena zenbakiak, barneko planoak (erritua) eta kanpokoak (publikoarekiko

komunikazioa). Barneko planoaren zutabeen testu dramatikoan aipatzen diren erritu-unitateak agertzen dira (beltzez) eta errituari dagozkion ekin-tza nagusiak azaldu. Bigarren planoaren zutabeen, argiztapena eta musikaren deskribapen orokorraz gain, pertsonaien esaldi gako zenbait agertzen dira erritu-unitate bakoitzari dagokion sermoiaren partea –mezua– adierazteko. Parentesi artean testu dramatikoaren orrialdea eta hitz egiten duen pertsonaiaren erreferentziak agertzen dira: Yuri Sam (Y); Kurma (Kr); eta Kumalen (Kl).



Eszena	Barneko planoa	Kanpoko planoa
0	<p>Kurma eta Kumalen, xamanaren laguntzaileak, ikusgai egiten dira.</p> <p>Sarrerako purifikazioa</p> <p>Bi espirituak dantza zoroan, mugimendu espasmodiko eta oihuekin, espazioa purifikatu egiten dute Yuri Sam aldare nagusiaren atzetik altxatzen den bitartean.</p>	<p>Iluntasuna. Espazioan aurreko zuzia baino ez da ikusten. Musika geldoa eta malenkoniatsua.</p> <p>Sehaska kanta «Off» ahotsez:</p> <p>(13) «<i>Ixo!, ixo! saguzarrak lotan daude,/ amets erotikoak franko dituzte saguzarrek eta/ixo! arren, lotan daudela. /Zeintzuk dira haien begiak, /begi xume itsuak badituzte, /begiak. /Zein da haien norabidea /noraeza ez bada, /noraeza. /Zein da haien iparra /hegoak ez badira, /hegoak. /Zein da haien metafisika, /metafisikarik badute,/ez badute. /Ixo! Saguzarrak lotan daude.</i>»</p> <p>Musika bizi-bizia. Espazioa argitzen da.</p>
1	<p>Espirituek kontaktuaren sinbologia diren makilak totemetik hartu eta beraien eta ahotsarekin Yurik botatzen duen otoitzaren oihartzuna egiten dute.</p>	<p>Lehendabiziko otoitza:</p> <p>(14) A otoitza</p>
2	<p>Yuri Sam aldare nagusira igo. Espirituak esaldi laburrak bota makila kolpeak tartekatuz. Yuri Samek bizkarra ematen dio publikoari, eta gero berriz aurpegiz jarri.</p> <p>Isiltzeko agintzen die makila kolpe batez.</p>	<p>Espirituek publikoari aurkezten diote Yuri Sam:</p> <p>(Kr, 14) «<i>Yuri Sam, lehen, panteista amorratua zen, edonon sumatzen zuen jainko adiskidetsu baten aztarna.</i>» (Kl, 15) «<i>Gero, tamalez, izpiritua ezkatatu eta buruarekin pentsatzen hasi zuenean, mundua profano bilakatu zitzaion eta barraskiloa barraskilo.</i>»</p>

Eszena	Barneko planoak	Kanpoko planoak
3	Otoitza izpirituen begirunerako Espirituek kontaktuaren sinbolo diren makilak txertatzen dituzte aurreko aldareetan, bina bakoitzean.	(16) B otoitza
		Heriotzaren gaztigua: (Kl, 16) «Yuri Sam, 2000. urteko neguan hil zen.» Bizitza eta sexua galdu izanaren intziria.
	Oroimenaren letania Evohé-ri hitz egiten dio Yuri Samek; aldare nagusitik jaitsi, makulua espiritu bati eman. Honek eutsi tarte batez eta gero aldare nagusiaren gibelean tente txertatu.	

Eszena	Barneko planoak	Kanpoko planoak
4		Musika bizi laburra
	Zintaren borroka: Espirituek Yuri Sami bi zinta jartzen dizkiote esku-muturretan. Zintekin dantza-borroka egiten dute hirurek, espirituek Yuri Samen mugimenduei eutsiz.	Henk pertsonaiak hitz egiten du: (Y, 17) « <i>Henk ezagutu dut pamasoan. Pamasoan Henk, Henk ezagutu dut.</i> »
	Zintak askatu. Espirituak Yuri Samen gonaren azpian sartzen dira eta imintzio sexualak egin.	(Y, 18) « <i>Norena da errua?</i> » 1. apelazioa publikoari: (Y, 19) « <i>Eta zuek, ba al dakizue galdera horri erantzuna ematen? [...] Zuek ez, zuek lasai, goza ezazue gozatzeko daukazuen aukera paregabea.</i> »
	Espirituak zintak totemetan utzi eta borrokaren makilak hartu erritmo bizia baina baxua eginez Yuri Samen solasari.	(Y, 20) « <i>Wendel ezagutu bazenute zuok gizaki bizidunok</i> »
	Aingeruen ospakizuna Espirituak makilez erritmoa egin. Dantza. Bat-batean dantza bukatu; espirituek borrokaren makilak ezkerreko aldean uzten dituzte.	Musika bizia.

Eszena	Barneko planoak	Kanpoko planoak
5	<p>Xamanaren aurkezpena, jainkoen lekuko</p> <p>Espirituek, ordenaren sinbolo diren makilak hartu eta aldare nagusira igotuta, Yuri Sam aurkezten dute eta makila bana ematen diote.</p> <p>Ondoren, Yuri Samek 2. dantza hasten du</p> <p>Isiltzeko agindu.</p>	<p>(K1, 21) «Yuri Sam [...] (Kr) kosmosaren zazpi espaloiak igotzeko eta jaisteko ahalmena dauka [...] hegaldi magikoen azkenengo xamana.»</p> <p>Musika bizia.</p> <p>(Y, 21) «Ayahuaskaren alaba naiz, Daturaren arreba, peyotearen lagunmina.»</p>
	<p>Errua</p> <p>Bat-batean Yuri Sam lurrera belauniko erortzen da, etsitua bezala.</p> <p>Espirituek eraso saiakerak egiten dizkiote Yuri Sami, bere makiletan kolpatuz.</p>	<p>(Y, 22) «Ez dut aitortu behar [...] nire aldare kutuna aspaldi profanatu nuela [...] zuek errugabeak zarete, nik aurkitu eta galdu nituen mapa, fede, aldare eta Atlantida guztiak. Mea culpa.»</p>
	<p>Erruaren itzulera eternala</p> <p>Ordenaren makilak kendu eta itzuli egiten dizkiote hiru aldiz. Gero, espiritu bakoitzak aurreko aldare banatan uzten ditu makilak.</p>	<p>(Y, 23) «Ez dugu inoiz larrua joko amets erotikoetan ez bada.»</p>

Eszena	Barneko planoak	Kanpoko planoak
6	<p>Jakinminaren bekatua</p> <p>Espirituak totemen atzean ezkututzen dira.</p> <p>Espiritu batek makila nagusia hartu eta Yuri Sami eman.</p> <p>Espirituak lurrean jartzen dira, Yuri-ren aldamenean.</p>	<p>Musika geldo eta arranguratsua.</p> <p>(Y, 24) «Zer dago mugaz bestalde? [...] Zuek biziduntxoak, jakinminaren gatibu beti [...] heriotzaren ostean dagoenari begiratzeko prest.»</p> <p>(Y, 25) «Eta zuek fedebako gixajoak, indar telurikoen sema-alaba prodigoak, zorioneko bizidunak, zuek zuen arbasoen ahotsa ahaztu egin duzue, eta Mariren orrazia harkaitz artean galdu. Ah! Latza da fededumen bidea.»</p> <p>(Y, 25) «Baina nik, Yuri Samek, nire borondatearen kontra otoi egiten dut otoi egiten ez duzuen bizidun guztien partez.»</p> <p>C otoitza</p>

Eszena	Barneko planoak	Kanpoko planoak
7		<p><i>Hibris-aren aitormena:</i></p> <p>(Y, 26) «Ai Ebohé, laztana, belarrira esango dizut [...] ez zela giza axolagabetasun ergela izan, ezta kilkerak brome-tan hartzea ere, baizik eta jainko guztiak akatzea. [...] Hori izan zen zure zerua-rekiko zaletasun hura zapuzteko arrazoi bakarra.»</p> <p>(Kr, 26) «Jainkoa izaten saiatu zinen.»</p> <p>Desioaren aitortpena: (Y, 26) «heriotz honetan gauza bakarra nahi dudala [...] izandakoa izan.»</p>
	<p>Sakrifizioaren odola</p> <p>Aldarean kopa bat dago hautsez beterik.</p> <p>Espirituek Yuri Samen bihotzetik bi zinta gorri ateratzen dituzte eta aldarearen alboetan jarri.</p> <p>Yuri Samek kopa hartu eta, bat-batean eskukada bat hauts botatzen du lurrera.</p>	<p>Ilunantz gorrixka, musika arranguratsua; gero, hasierako argia.</p> <p>Itakaren metafora: (Y, 27) «<i>Jakin ezazue bidearen luzeera alde aurretik erabakita dagoela, [...] bi puntuen arteko bidea dela Itaka bakarra.</i>»</p>

Eszena	Barneko planoak	Kanpoko planoak
8	<p>Yuri Samek hauts gehiago hartu eta ibiltzen hasten da hautsak eskuetatik ihes egiten diolarik.</p> <p>Espiritu batek aldareko kopa hartu eta zuziaren ondoan jarri, zapi zuri baten gainean.</p> <p>Yuri Samek aldare gaina hankarekin indarrez zapaldu.</p>	<p>«Carpe diem»</p> <p>(Y, 27) «Ez izan presarik/Zure bidearen helmuga/Zu zeu zara»</p> <p>(Kl, 29) «Zin egin [...] (Y) erritmo geldo-geldoan ahoskatuko duzuela bizitza.»</p>
	<p>Agindutako lur galdua</p> <p>Kurmak kontzertina bat hartu eta lurrraren doinua jotzen du. Yuri Sam aldarearen gainean dago. Kumalenek zuzi bat hartzen du totem batetik.</p> <p>Zuzia amatatzean kea barreiatzen da espazioan.</p> <p>Yuri Samek bi ezpata txiki dauzka eskuetan.</p> <p>Concertina zuziaren beste aldean jarri eta kaparekin estali.</p> <p>Espirituek kapa beltzak ateratzen dituzte totemetatik.</p>	<p>(Kr, 30) «Lurran bizirik geundeneko garai ahaztezin hura [...] Gure eskuak lur hura harraipatzeko gai ziren.»</p> <p>(Kl, 31) «Orain ordea, kea da gure eskuak harraipatu dezaketen gauza bakarra.»</p> <p>(Kr, 31) «Berandu zabiltzate.»</p> <p>Iluna. Isiltasuna.</p> <p>Argia itzultzen da, baina aldareak nabarmenduz bakarrik.</p>

Eszena	Barneko planoa	Kanpoko planoa
9	<p>Guda dantza</p> <p>Espirituek espiritualtasunaren makilak hartu.</p> <p>Aldarearen gainean dago Yuri Sam.</p> <p>Yuri Sam aldaretik jaitsi eta espirituak igo.</p> <p>Yuri Samek guda dantza egiten du ezpatekin eta bat-batean espirituak aldaretik berriz jaitsi eta Yuri Sami ezpatak kendu.</p>	<p>Musika bizia, danborrak.</p> <p>Argia aldatzen da, berde kutsua, ezkerretik.</p> <p>(Y, 33) «<i>Munduko indigenak gara eta ez gaituzue akabatuko!</i>»</p>
	<p>Porrota</p> <p>Kurmak kutxa txiki bat hartzen du aldaretik eta horren gainean jarri. Ezpatak batu eta espiritualtasunaren makilak aurreko aldareetan uzten dituzte espirituek, bina bakoitzean. Kuralen kutxatik hautsa «lau haizetara» botatzen hasten da. Espirituek kapa beltzak kendu eta aurreko aldareen tartean uzten dituzte kopa eta kutxa txikia horiekin estaliz.</p> <p>Yuri Samek makulua hartu.</p>	<p>Parnaso psikiatrikoa dela argitu:</p> <p>(Kl, 34) «<i>Baina azkenean... preso hartu eta Parnaso izeneko psikiatrikoan sartu dute Evohé.</i>»</p> <p>Musika arranguratsua.</p>

Eszena	Barneko planoa	Kanpoko planoa
10	<p>Maitasun mezua pekatarietzat</p> <p>Hizketa bizia. Espirituek petaloak barreiatu.</p>	<p>Perkusio bizia entzuten da.</p> <p>(Y, 36) <i>«Pertzepzioaren ateak zabaltzeko bedar, hauts eta perretxiko magikoak hartzen dituztenei. [...] Eta munduan pekatari izateko dauden aukera zenbaezinak praktikatzen dituztenei, [...] Amodiozko mezu bat bidali nahi nieke: Izan gizaki eta ez jainko.»</i></p> <p>Isilunea</p>
	<p>Azken aurreko otoitza</p> <p>Kurmak Yuri Sami aldare gainera laguntzen dio eta makulua eman.</p> <p>Espirituek espiritualtasunaren sinbolo diren makila bana ematen diote Yuri Sami eta beste bina beraietzat hartu.</p>	<p>Musika arranguratsu eta bizia.</p> <p>(Y, 37) <i>«Erregu bat bizitzaren meandroen alde, azkenaurreko oparia mugaz bestaldeko biztanleei.»</i></p> <p>D otoitza</p>

Eszena	Barneko planoa	Kanpoko planoa
11	<p>Galdutakoaren aienea</p> <p>Guztiek erritmoa markatzen dute makilekin.</p> <p>Espirituek bat-batean Yuri Sami kentzen dizkiote espiritualtasunaren makilak eta guztiak aurreko aldareetan utzi: aldareak osaturik daude.</p>	<p>Musika bizia (perkusioa).</p> <p>Mundu magiko zaharreko biztanleak non dauden galdetzen dute behin eta berriz (Henk, Wendel, Kallfumallen, Anchimallen...)</p>
	<p>Azken sakrifizioa</p> <p>Espirituek aldare nagusia etzaten dute sakrifizioa prestatzeko.</p> <p>Yuri Sam aldare etzanak osatzen duen hilkutxan jarri. Espirituek jantziak atondu, makulua aldarean kokatu eta ezpatak hartu.</p> <p>Espirituek makilak bihotzean sarturik Yuri Sam sakrifikatzen dute.</p> <p>Espirituek otoitz egiten dute kantuka Yuri Sami hil-atorra egin bitartean; txanoa kentzen diote.</p>	<p>(Y, 40) «<i>Esaiozue bihotza hautsi zaidalako hil naizela. [...] Aio Evohé. Aio bizidunak [...] gozatu bizitzaren meandro zoragarri guztiak. Gozatu.</i>»</p> <p>Iluntasuna.</p>
	<p>Agonia geldoa. Azkeneko otoitzak, aintzak eta agurrak</p> <p>Espirituak hilkutxaren atzeko parteko alde banatara igo. Kantatzen hasten dira eta makuluarekin jolasten; tarteka Yuri Sam kolpatzen dute.</p> <p>Kolpatzeari utzi eta aurreko aldareak zutik jartzen dituzte espirituak. Gai-neko muturrean ezpata bana sartuz Yuri Sam erabat akabatzen dute.</p> <p>Yuri Samen heriotza. Consummatum est</p>	<p>(Y, 41) «<i>Agurtzen ditut bizidumen pribilegioak.</i>»</p>

Eszena	Barneko planoak	Kanpoko planoak
0	<p>Epilogoak.</p> <p>Yuri Samen gorputza altxatzen da eta kontrargian fantasma-irudia erakutsi; beste alderako muga zeharkatzen ari dela dirudi.</p> <p>Errituala bukatu da</p> <p>Errituala bukatu dela adierazteko neskek laguntzen diote arropa erazten zeremonialki.</p> <p>Maskarak kendu eta publikoen txaloetara joan.</p>	<p>(Yuri Samen off ahotsa, 42) «<i>Saguzarrak esnatu dira jadanik.</i></p> <p><i>Aurpegiko bi begiak itxita hegaz gorputzeko beste begi guztiak erabiliz.</i></p> <p><i>Begi da begi ez zena.</i></p> <p><i>Amets erotikoak izan eta gero, erotismoz beteko dute bizitza.</i></p> <p><i>Animalia metafisikoak oso eta metafisikarik gabe bizi direnak.</i></p> <p><i>Haiek ere amasa hartzen dute eta, noiz-bait,</i></p> <p><i>amasa hartzeari uzten diote.</i></p> <p><i>Baina begirik gabe,</i></p> <p><i>begi zena begi ez dela,</i></p> <p><i>hegaz egiten dute.</i></p> <p><i>Bitxia da saguzarren nahigabeko jakinduria.»</i></p>

2.8. Azalpena eta interpretazioa

Estrukturaren deskribapena baliatuz, bertatik kanpo geratu diren zenbait aspektu interesgarri seinalatuko ditugu eta, aldi berean, Ander Lipusen filosofiarekin erabat koherentea den obraren interpretazio bat egingo dugu, testuarentzako erreferentzia garrantzitsuenak aipatuz.

0. eszena. **Saguzarren olerkia (13)**

Antzezlanaren hasieran Mikel Laboaren ahots grabatuaz entzuten den olerkia aparatu sinbolikoaren giltza da. Saguzarrak Mendebaldeko biztanle xeheen metafora bezala uler daitezke: espiritualtasuna zein lurrarekiko antzinako harremana galduta, Mendebaldeko gizakia loaldi luze batean balego bezala dago. Gorputzeko plazerak ahaztu zituenetik, espiritualtasuna arrazoi sutsu baten alde galdu zuenetik, espektakuluaren gizartean bizi denetik, lo

egotearen parekoa den ilusio batean erori eta noraezean mugitzen da. Beraz, saguzarren aipamenean antzezpenean parte hartzen duten pertsoneri egindako erreferentzia bat ikusi behar dugu: aktoreak nahiz ikusleak, guztiak dira saguzar eta lokartuta daude. Zentzu horretan, isiltzeko aginduak *-ixo!-*, antzezlanean gehien errepikatzen den hitzak, ustez saguzarrak ez esnarazteko, zentzu ironikoa du; ikusiko dugunez errituaren helburua, hain zuzen, saguzarrak bere ilusio horretatik esnaraztea baita.

1. eszena. *Lehendabiziko otoitza (14)*

A, B, C eta D letraz adierazitako otoitzak maputxeek erabiltzen dituztenak dira. Hizkuntza zahar bateko otoitz sakratuekin errituari antzinakotasuna eta benetakotasuna ematea lortzen da.

2. eszena. *Espirituek publikoari aurkezten diote Yuri Sam (14-15)*

Yuri Sami gertatutakoa Mendebaldeko gizakien patuaren metafora litzateke. Puntu horretan adierazten da nola garai batean gizakiak pentsamendu erlijioso-animista zuen, espiritueltasuna inguruko edozein lekutan topatzen zuelarik. Baina momentu batean mundua «profano» bilakatu zitzaion eta orduan naturari magiarik gabe begiratzen hasi zen.

3. eszena. «*Yuri Sam, 2000. urteko neguan hil zen.*» (KL, 16)

Gaztigu horrekin publikoari jakinarazten zaio Yuri Sam hilda dagoela eta, beraz, orain bere berpiztearen lekuko direla ikusleak.

4. eszena. «*Norena da errua?*» (Y, 18)

Henk-ek egindako galderak balio erretorikoa du: nor izan du munduarekiko kontaktua galtzeko errua? Noiz galdu zuen Mendebaldeak espiritualtasuna?

– Aingeruen ospakizuna (20):

Dantza horretan ikus daiteke Noh teatroaren eragina.

5. eszena. *Xamanaren aurkezpena, jainkoen lekuko* (21)

Eszena honetan Yuri Samek egiten duen dantzan Arratiako jota tradizionalaren pausuak antzematen dira.

– «*Ez dugu inoiz larrua joko amets erotikoetan ez bada.*» (Y, 23)

Amets erotikoek bizitzaren alde dionisiakoari egiten diote erreferentzia. Mendebaldeko gizarteak Apolo/Dionisio oreka galdu du lehenengoaren alde (Nietzsche 2000). Adimena <> gorputza funtsezko bereizketa zela-eta gorputzari dagozkion gozamenak bekatuaren eremura igaro zirenetik, bizitzaren alde arrazionalen baino ez omen da bizi egungo gizakia, eta plazer horiekin amets egin baino ezin du egin. Amets erotikoak behinola izanda eta ondoren galdutakoaren arrastoa lirateke. Zentzu horretan, Yuri Samen heriotza Mendebaldeko gizartearen heriotza ere bada: hiltzeak ez dio xamanari pentsatzeko gaitasuna kendu baizik eta sexua izatekoa; hau da, Yuri Samen heriotzak gizartearen alde dionisiakoa, gorputzaren heriotza islatzen du.

6. eszena. *Jakin-minaren gatibu* (24)

Jakin-minaren gatibutasunarekin garapen zientifikoaren demasak salatu nahi dira. Mundua arrazoimenaren bidez kontrolpean izateko grina, dena jakiteko desioa. Gehiegizko jakin-min hori da Mendebaldeko gizakia mundutik bereizi egin duena: naturaren gertakariei buruz azalpen arrazionala emanda, naturari zegokion magiaren nozioa galtzen da. Ildo horretan, espiritualtasuna galdu izana Mariren orrazi magikoa –euskal mitologiaren jainko nagusia eta naturaren pertsonifikazioa– galtzearen metaforak islatzen du.

– «*Baina nik, Yuri Samek, nire borondatearen kontra otoi egiten dut otoi egiten ez duzuen bizidun guztien partez.* » (Y, 25)

Yuri Samek, Jesu Kristok bezala, egiten ez dutenengatik egiten du otoitz.

7. eszena. *Hibris-aren aitormena*

Oh! Jaon Barbera hori eztereiztut igaranen Zoure itzarotza gezurtaria dela brobaturik dago. Ezi zoure solstizean (s)angratu izan diren ourdetarik guziak ikhousi dutut hiltzen.

Jaon Erretora (erri karkazaz)

Hartan zer arrapostu eman zerei(an) Barberak?

Errejenta

Batere, Jaona. Begi biribilturik samurkeria handian zagoela ikhousirik ta (baketu) nahiz, aoherki erran, banakiala harek etzutiala sangratu. Joan zen ziolarik, haren aztaparretan erorten banintzan, harek sangraturen nundiala behar bezala.

Jaon Erret.

Sinhesten diat. Ni berme har eta halakoek sangraturen (haie)
hire liburua kaprikorenako mugan delakoz hen ofizioaz mintzo.

Errej.

Jaon Erretora ogen dikezie ezi ni eniz medika dirionetzaz has
(egiten).

Jaon erret.

Ez bena bai *utsularria* Frantzesez utzirik bekhatia tchipi lukek,
huskaraz dukek mortal dialakoz goure etcheko andere guziak
barbertu.

Errej.

Hala baliz ere, Jaona, mina hain handi lizatekia.

Jaon Erret.

Ez egiazkorik. Bena egin baginero goure oskiak zer erran liroie
oski egileek. Eztugia guziek goure ofizioetzaz bizi beharra.
Ohore egit(ea) dago phuntia: bost sos khosta hogeï phaka-e-
raztia bide har, etzakiat sobera elizatekianez hamarren galtha-
tzia: hetan joan jinak, (prezioak) lana ezari, osagarriari phezia
arhintxiago lukek ta herioak bethi ogen dialakoz (eliro egin)
deusere bena bai zerbait kontzientziari; ezi monopolioa duk
ohoinkeriaren askazi huillenena; nonbait ere e(z)kiribuz bere
kastigoa diana.

Jarraik-ezak hik bihoztoiki hire egingeia, lan guzietan buztana
duk gaitzena. Eztukek naba(ski) aoher hire liburua beno jakin-
tsuago eztirener. Ekhar izadak (az)kentzia ikhousi nahiaz hus-
karaz izigarri gaintzen egarria.

Tx. Peillenen iruzkina.

Honela amaitzen da idatzia, errejentak diolarik ez duela barberak san-
gratu txerrietarik bat bizirik irauten ikusi eta berak ez lezakeela bere
burua utz esku harrez odola ateratzera. Euritakoa (paisola) eta sudur
zapi (mokanas) hitzen inguruko itzulpenekin, tonu berdinean jarrai ge-
nezake: gure hizkuntza, gure eguraldiak bezala euritik marrantara ibil-
tzen zaizkigulako.

Bibliografia

ALTUNA F. (S.J.), 1967, «Larramendiren iztegi berria», *Euskera*, 12, 139-300.

BELA J. de *Tablettes?* Archives Départementales de Pau, Ms IJ 62/2 Maulen egina, argitaragabea.

BELA J., 1665, *Commentaires à la coutume de Soule*, Baionako Euskal Museoa, argitaragabea.

LARRAMENDI M. de (S.J.), 1745, *Diccionario trilingüe*. Donostia.

MITXELENA, L., 1963, «Eraskin gisa» *Egan*, 1-3, Donostia, 78-81. Egiategiren Aberastarzun guzien giltz bakoitza, aurkitu zuenaz.

PEILLEN, Tx., 1963, «Juseff Egiategui, Larramendiren zuberotar jarraikizale bat», *Egan*, 1-3, 75-77.

———, 1983, *Lehen liburua edo Filosofo huskaldunaren ekheia* : [(1785)]. Euskaren lekukoak 6. Euskaltzaindia : Bilbo.

———, 2011, *Egiategiren filosofo huskaldunaren ekheia*, [bigarren liburukia]. Euskaltzaindia: Bilbo.



Antonio Arrue: Euskaltzaindiaren eta Francoren erregimenaren laguntzaile

Antonio Arrue: colaborador de Euskaltzaindia y el régimen franquista

Antonio Arrue : collaborateur d'Euskaltzaindia et le régime franquiste

Antonio Arrue: collaborating with Euskaltzaindia and the Francoist regime

SUDUPE, Pako
Idazlea. Euskal Herriko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2012-12-30

Noiz onartua: 2013-07-09

Euskera. 2012, 57, 3. 823-838. Bilbo
ISSN 0210-1564

Liburuak argitaratzeko, eta Euskaltzaindiaren biltzarrak eta bertso txapelketak antolatze-ko laguntza eman zuen. Eta gastronomiaz idatzi zuen euskaraz eta zenbait literatur kritika ere egin zituen; karlista tradizionalista euskaltzalea izan genuen. Era berean, azpijokoan aritu zen Nemesio Etxaniz edo On Manuel Lekuona bezalako jeltzaleen aurka, haien merituak ezkatatzen eta haien jarduera publiko euskaltzalea oztopatzen. Alde biei erreparatu gabe, Antonio Arrueren jardueraren irudi faltsua gera liteke gure kultur memorian. Eta bi-degabea litzateke!

Hitz-gakoak: Euskaltzaindia, *Egan*, zentsura, Nemesio Etxaniz.

Ayudó a la hora de organizar reuniones de Euskaltzaindia, competiciones de bertsolaris y publicar libros. Escribió sobre gastronomía y realizó algunas críticas literarias; fue un carlista tradicionalista y vasquista. Pero a su vez, conspiró contra miembros del PNV, tales como Nemesio Etxaniz o Don Manuel Lekuona, tapando/ocultando sus méritos o dificultando su labor en pro del euskera. Si no nos fijamos en las dos vertientes, puede quedar en nuestra memoria una imagen falsa de la labor de Antonio Arrue. Cosa que sería injusta.

Palabras clave: Euskaltzaindia, *Egan*, censura, Nemesio Etxaniz.

Il apporta sa contribution dans l'organisation de réunions d'Euskaltzaindia, de joutes de bertsolaris et dans la publications de livres. Il écrivit des ouvrages de gastronomie et plusieurs critiques littéraires ; il fut carliste traditionaliste et bascophile. Pourtant il conspira contre des membres du PNV, comme Nemesio Etxaniz ou Manuel Lekuona, en occultant leurs mérites et en entravant leurs travaux en faveur de la langue basque. Si nous ne considérons pas le deux aspects de sa personne, nous pouvons garder une image fausse du travail d'Antonio Arrue et ce serait injuste.

Mots-clés : Euskaltzaindia, *Egan*, censure, Nemesio Etxaniz.

Arrue gave assistance in publishing books and organising *Euskaltzaindia's* meetings and *bersolari* contests. He wrote in Basque on gastronomy and also wrote a number of pieces of literary criticism. He was a traditionalist Carlist Basque language loyalist. At the same time, he was active in plotting against PNV members such as Nemesio Etxaniz or Manuel Lekuona, silencing their merits and hindering their public activity in support of Basque. Unless we bear in mind both of these aspects, we will create a deceptive image of the activity of Antonio Arrue in our cultural memory. And that would be unjust!

Keywords: *Euskaltzaindia*, *Egan*, censorship, Nemesio Etxaniz.

Sarrera

Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian A. Arrueri buruzko artikulu laudoriozko bat argitaratu zen 2011ko azken alean; haren bi alderdi jorratzen dira: Arrue politikaria, batetik; eta euskaltzalea, bestetik, Euskaltzaindiaren eta *Egan* aldizkariaren lankidea. A. Arrueren ideologiaz eta hark politikari gisa egindako lanaz informazio jakingarriak ematen ditu delako artikulu horrek, baina beste alderdiaz, Arrue euskaltzaleaz den bezainbatean, apologia egiteaz gain ez dakar deus berririk, eta artikulu honen xedea hain zuzen A. Arrueren beste alde ez hain goresgarri hori azaleratzea da, argitan ezartzea, eta haren ekarpena merezi duen lekuan kokatzea.

Besteak beste dio artikulugileak ezezaguna dela hark euskararen alde egindako lana, eta gainera giltzarri izan zela euskararen aldeko borrokan 50eko eta 60ko hamarkadan. Ez nator bat; ez ezezaguna izan da, baizik eta oso ezaguna –nagusiki fama kaskarrekoa, euskalgintzan norbait izan ziren euskaltzale gerra-galtzaileen artean– eta giltzarri ere ez, beraren euskararen aldeko kultur lanagatik –nahiz ekarpena ukatzen ez zaion–, baizik eta batez ere erregimenean aski ongi kokatua zegoelako laguntzaile ere izan zitekeelako euskaltzaleen arteko bilerak eta antolatzeke –elkartzeke eskubidea auzoan baitzegoen Francoren erregimenean–; eta laguntzaile izan ere izan zelako, kontrolatzaile eta zentsuratzaile izan zen bezala. Beraz, figura anbiguala.

1. Euskararen alde egindako lanaren hedadura eta mugak

J. M. Torrealdai *Artaziak* liburuan oso ongi laburbiltzen du frankismoak maite zuen euskara zein zen: «*Frankismoak maite (?) duen euskara herri-mai-lakoa da, tradizionala, antigoaleko kulturaren ekarlea. Horri deitzen dio jatorra. «Sano regionalismo»aren hizkuntza litzateke.*

Borrokatzen duen euskara, aldiz, euskara jaso da, kultura, kultur tresna gisa erabili nahi dena. Izan ere, frankismoak euskarari eman dion egitekoa oso bazterrekoa da, folklorikoa, familia-barnekoa, hilzorian dagoen gizataldeek bakarrik

erabiltzekoa. Euskara ez da hirian, pulpitan edo eskolan ibiltzeko hizkuntza, beraiek esan ohi zutenaz. Jakobide horren funtsa ezin argiago adierazi zuen Donostiako *La Voz de España* egunkariak (1937.4.13): «El peligro para un Imperio es la coexistencia de dos o más idiomas culturales». (...) Euskara ongi dago, nekazari eta arrantzaleentzat denean; burugabekeria da euskara hizkuntza kultu bihurtzeko pretentsioa» (Torrealdai, 2000).

Jakina, Torrealdairen azterketaren eskutik jarraituz, berrogei urtean, gauza guztiek bezala, bere bilakaera izan zuen zentsurak. Hasiera batean, 40ko hamarkadaren erdialdera arte gutxienez, gidatzaile edo «dirigista» izan zen, eta gerora aldatuz joan zen, zer egin behar den esatetik zer ez den egin behar esatera pasatu zen.

Hemen ez dugu frankismoaren garaiko zentsuraren bilakaeraren azterketa xehaturik egingo, horren baitan A. Arrueren lantegia kokatzeko, baina zenbait gertakari adierazgarri bai ekarriko ditugu, zantzu esanguratsu batzuk eta garaiko iruzkin koalifikatuak.

1953an, Iparragirren omenaldirako –Madrilen *Gernikako arbola* estreinako kantatu zuenaren mendeurrena ospatzen zen–, Urretxun, olerki lehia-keta ofiziala antolatu zen. Nemesio Etxaniz aurkeztu zen, eta sariren bat lortu ere bai, nahiz ez aurrenekoa. Honela idatzi zion Andima Ibinagabeitiak Nemesio Etxanizi lehiaketa horretaz:

«Zorionak ere eman bear dizkitzut irabazi duzun sariagatik, ots, Iparragirre ´ren omenez egin eralguntzan irabazitakoa. Nere uste kaxkarran, zuk bear zenukean, bete-betea, aurreneko saria. Ikusi dut Bordarik aurkeztu zuen erri poema ere. Ez dago gaizki, baina errikoien errikoiez, inspirazio laburreko arkitu dut. Zer dugu «euskerak popular» ori? Poetan ametsak kabian bertan sakailtzeko asmatu duten ezpata gaizto bat. Orrela beartu nai ditute gure poeta euskaldunak garaiko ezere ere ez idaztera. Argi ikusi da ori Iparragirre ´ren batzaldian. Amaika lan baidzik ez ditute aurkeztu euskeraz. Zergatik? Olerkari sentitzen diranen inspirazioa popularkeri orrekin ito dutelako. Ikusiko zenuen egak libre utzitzekotan [sic] zenbat aurkeztuko ziren. Garaia dugu onuzkero txorakeri oiek al[bo] batera uzteko. Erriak ez du euskerarik irakurtzen, ez popularrik ez eta bertzerik, ain ederki Orixe ´k esan zuenez. Beaz alper-lan ori utzite, obe dugu gere bidetik euskera goi mailalara iasotzen ekin, bakoitzak

bere almenaren neurriak. Gero ere, literatura guztietan bezela, gurean idazlan garaioak izkera eta erria bera ere goraltzatuko dute» (1953-VIII). Argitaragabea.

Antzera idatzi zuen Pariseko *Euskal Deya*-n 1953ko azaroan, 365. alean: «batzaldirako bertsuak errikoi bear zutela, bertsularien ariora taintuak. Auxe da gero, gure olerkarien egak moztu-bearra! Zer dala-ta bertsularien ariora egiñak? Batzaldia antolatu zuten iaunek euskera goi-maillatara inola ere ikusi nai ez dutelako. Aiek euskera gaur arkitzen dan eror-zuloan geruago ta sakonago ikusi nai dute; usteltzen, iltzen. Ez nago ni erri-bertsularien aurka, aitzitik aien alde nago. Bakoitzari berea ordea...».

Herriko seme kutun izendatu zuten 1953an Urretxun Iparragirre. A. Arruek parte hartu ote zuen jaialdi horretan? Segur aski bai. Urte hartan bertan ziotson Nemesio Etxanizek Andima Ibinagabeitiari, Arrue bezalako karlista euskaltzaleak beharrezkoak zituztela erakunde publikoetatik laguntzak lortzeko. Zegaman, 1960an, Zumalakarregiren heriotzaren 125. urteurrenaren ospakizunean parte hartu zuen hizlari gisa A. Arruek. Euskaraz ideia hauek adierazi omen zituen:

«...reiteró el compromiso del carlismo con los «fueros, usos, costumbres y lenguas de los diversos pueblos de las Españas». Para nosotros –dijo-, las libertades de los pueblos, las libertades regionales no tienen más que un límite: la unidad de la gran patria española. Para nosotros, por ejemplo, no es Rey legítimo quien no sea amante verdadero del auténtico pueblo; ni tampoco el que no haya jurado previamente, bajo el Árbol de Gernika, los Fueros del País Vasco» (Martorell, 2011).

Herri-poema, bertsoak nahi zituzten olerkiak bainoago Urretxun Iparragirre omentzeko. Bertsoak maite al zituen A. Arruek? A. Zavalak 2008an Arrueren *Idaztiak eta hitzaldiak* liburua apailatu zuen, eta hitzaurrea egin zion. Hori irakurrita, ikusten da A. Arruek usadiozko bertsoa maite zuela, eta bertsolarietara laguntzen ziela guardia zibilek jarritako oztupoak-eta gainditzen, bazituelako adiskideak. Bertsogintza modernoa ez zuen aukerarik izan asko ezagutzeko 1976an hil baitzen, baina ez dakit oso gustuko izango ote zuen –jakina, eskubide guztia zuen gustuko ez izateko–. Behin, 1976an edo, hil zen urtean segur aski –hitzaurrean ez da izendatzen urtea, baina

esaten du gehiago ez zituela bertsolariak entzungo-, Oiartzunen bertsolariak entzuten izan omen ziren biak ala biak, eta bertso saioaren ondotik etxera bueltan, horrela aitortu omen zion Arruek: «Gaurko bertsolaritzak artifizialkeriz kutsatzeko arriskua du». Franco hil berritan, haren aurkako bertsoren batzuk entzun ote zituen? 1976an, Oiartzunen, artifiziala bertso-gintzan zer ote zen?

Zer iradokitzen ari gara: A. Arruek euskara soilik bertso, dotrina eta horrelakoetarako nahi zuela? Ez ote zuen, bada, gastronomiaz euskaraz idatzi? Bai, eta literatur kritika banaka batzuk ere egin zituen.

Hortik asko zegoela erregimeneko gizonen kudeaturiko erakundeek antolatutako lehiaketetan ez da zalantzazkoa: alegia, Torrealdaik adierazten zuen horretatik, hots, euskara maila herrikoi apolitiko apalera soilik onartzearena, hortik gorako alorretan hego-puntak mozturik. Harelere, ezin da ezkutatu egiari zor zaiona ukatu gabe, A. Arrue, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelenarekin batera, 1954ko bigarren zatitik aurrera *Egan* birmoldatu, modernizatu eta erabat euskaraz ateratu zutenetako bat izan zela.

Lan gehiena K. Mitxelenak egin zuen: zinema eta literatur kritika, eta letra eta arte munduko famatuei egindako elkarrizketen bitartez-eta, baina A. Arruek ere bere alea ekarri zuen: gastronomiari buruzko artikulua eta beste zenbait literatur kritikekin-eta; inork ukatu ez diona, bestalde!

Beste hau ere esan beharra dago: bi eredu nagusi zeuden 50eko hamarkadan: *Euzko-Gogoa* eta *Egan*. Hura euskara goi mailetara jasotzen ahaleginean, bide klasikotik, eta *Egan* maila apalagoan, modernoago alde batetik, baina, bestetik, goi mailetan gaztelaniari borrokarik planteatu gabe –Euskaltzaindia bezala–.

Baina gauzak bere neurrian: A. Arruek ez zuen, dakigunez, bere abokatu lanean inoiz erabili euskara, eta ezta inoiz aipatu ere horrelakorik egin behar zenik, hots, euskara arlo guztietara zabaldu, beste batzuek egin zuten bezala; *Euzko-Gogoa*-koek egin bezala. Bere ideologiak eta erregimenean zuen lekuak galarazten zion osoki.

2. Alde ezkutuagoa: laguntzaile-kontrolatzaile-zentsuratzaile lana

Goazen berriz ere ideologiaz eta tratabidez lagun izan zuen Aita Zavalarengana, ea zer zioen tolosarrak *Auspoa saila* ateratzeko A. Arruek emandako laguntzaz. Kontatzen du, lehenbizi, denok dakiguna: zentsura zegoela garai hartan, eta hiru kopia utzi behar izaten zirela Donostian, eta baimena emanaz gero, aurrera, eta bestela han geratzen zela liburua «kotxea semaforo gorrian jartzean bezala».

Jarraitzen du esaten A. Zavalak Arrue ez zela liburu-zentsorea, hots, euskal liburuei buruzko txostena egiten zuena, baina hark aldeko gutuna eginez gero, agintariek aintzat hartzen zutela. Eta gainera, eta hor dago aitoren adierazgarri-salagarriena, zentsurari ondo pentsatzen jarrita ez zitzaioala tranpa egiten; izan ere, A. Arrue konpromisoan ez jartzeko autoreak berak ondo neurtu behar zuen zer jarri, eta hartara, beraz, «era ortan egilleak berak egiten du bere liburuen zensura».

Erregimenak, besteak beste, A. Arrueren bitartez lortzen zuen euskal idazleak berak bilakatzea beren buruen zentsuratzaile; hartara ez zegoen zentsuratzaileei dirua ordaindu beharrik eta eragin bera lortzen zen, zentsuratzailerik gabe zentsura ezartzea. Zer hoberik erregimenarentzat!, noren bitartez eta A. Arrueren arartekotasunaz.

Gurean, zentsuraren zoko-moko ezkutuak arakatzen eta argitara ateratzen lan gehien egin duena J.M. Torrealdai dugu. Zer dio Torrealdai Antonio Arruez:

Han-hemenka eskuratu ditudan datuen arabera, Donostiako Ordezkaritzan zentralizatu zen urtetan euskarazko argitalpenen «irakurketa». Donostian zentsore-talde bat badagoela badakigu, eta zerbitzuak eskaintzen dizkiela beste ordezkarietzi. Baina inongo paperetan ezin izan dut aurkitu «irakurle», «informatzaile» edo «zentsore» hauen izenik. Delegazioko txostenak, euskal liburuei buruzkoak ere, delegatuak berak sinatzen ditu beti, nahiz eta ez jakin euskaraz.

Lekuko askoren ahotan dabil Antonio Arrueren izena. Arrue karlista eta abokatu ezaguna zen, Asteasun jaio eta Donostian bizi izan zena.

«Asteasuko beltza» zuen gaitzizena. Egan-en zuzendari izan zen Koldo Mitxelena eta Aingeru Irigarairekin batera. Euskal literatura ongi baino hobeto ezagutzen zuen, eta bereak dirudite txosten batzuek.

Edozein modutan ere, badirudi Antonio Arrue ez zela plantillakoa. Plantillan bazeuden beste batzuk, prentsa eta komunikabideen zentsura egiten zutenak. Aldizkari zuzendariak bi aipatzen dituzte sarritan: Angel Casadamón, militarra, eta Florencio Salsamendi. (Torrealdai, 2000).

Aurrera jarraitu aurretik, adierazpen horietatik honako esaldi hauek go-goan har ditzagun: *Lekuko askoren ahotan dabil Antonio Arrueren izena (...)* «Asteasuko beltza» zuen gaitzizena (...) eta bereak dirudite txosten batzuek (Torrealdai, 2000).

1956an, badakizu irakurle, zein euskal argitalpenek aztoratu zituen bazterrak: Mogelen *Peru Abarca*-ren argitalpenak. Pentsa, zein liburu arrisku-tsua! Hala zioen J.M. Torrealdai: *Nola debeka daiteke liburu bat Julio de Urquijo Euskal Filologiako Mintegia tartean egonda?* (Torrealdai, 2000).

Madriko agintariak Donostiakoak baino zorrotzagoak bide ziren, eta lortzen zuten etekinik. Julio Urkixo Mintegiko buruak, liburua aurrera ateratzearen, honako proposamen hau egin zion Madrikoari:

«*Le proponemos que en la nueva edición se siga fielmente la primera: Durango, 1881. (...) Consideramos que en ella se deberían hacer algunas modificaciones, mejor dicho supresiones en primer lugar, la del `Prólogo al lector vizcaíno` de la original, que sería sustituido por el que le ha sido ya enviado del Sr. Arrue de este Seminario. En segundo lugar, la del diálogo final `entre dos amigos eclesiásticos`, junto con las traducciones de discursos que viene a continuación*» (Torrealdai, 2000).

Ez da txorakeria bat; zentsura zein bizirik zegoen adierazten du. Donostiakoek bahe zabalagoa izango zuten, baina bahea hor zegoen, eta bi aldeetatik eutsia, Madrikoetik eta hemendik, zer da eta euskarazko liburu zaharrak berrargitaratzeko.

Hirugarren aldiz ere aipatzen da A. Arrue Torrealdairen liburuan, eta hirugarren aipamena, lehen begiratuan, positiboa da, Orixek Txillardegiren *Peru Leartzako* eleberria moralari zegokionez Arruek baino estuago iritzi zuela adierazteko aipatzen baitu.

Baina errepara diezaiogun kontuzago eta pausatuago:

«Políticamente, no existe nada censurable. De todas suertes, y aunque el autor es católico practicante, desde el punto de vista religioso resulta un tanto fuerte, pues la exposición de las ideas laicistas del protagonista no se halla debidamente contrarrestada por las manifestaciones de los personajes católicos de la obra. (...)

Como la literatura vasca –nos referimos a la escrita en vascuence– ha sido cultivada hasta ahora principalmente por eclesiásticos, y, por ello la mayor parte de las novelas de dicha literatura han sido de color «rosa», choca esta clase de obras; pero, por otro lado, esta novela, precisamente por ello, supone en cierto modo un avance, y creemos que será bien recibida por los amantes «objetivos» de la literatura.

Por lo que se refiere al estilo, esto es, al vascuence que se emplea en la obra en cuestión, merecerá elogios de todos los `antisabinianos´ y, desde luego, se halla acorde con la declaración de la Academia de la Lengua Vasca de fecha 2 de abril del corriente año conceptuando netamente vascas las palabras procedentes del castellano pero arraigadas ya desde hace tiempo en el vascuence» (Torrealdai, 2000).

Erregimenaren zutoinak zein diren argi adierazten da: lehenik, Eliza –kontuz ibili behar da elizgizonak ez gogaitzeko–; bigarrenik, politika, hots, Francoren erregimenaren aurkakorik ez egotea, eta hirugarrenik ere politika, oraingoan Sabino Aranaren politikaren aurka, jeltkideen aurka.

Zentsura-lan horrek, arretaz erreparatuz gero, laguntzen du ulertzen zergatik jokatu zuen Arruek N. Etxaniz edo Manuel Lekuonarekin jokatu zuen bezala.

Gorago aipatu dugu 1954an egin zutela euskaltzain. Hasiera batean, N. Etxaniz eta Joseba Rezola jeltzale euskaltzaleek-eta ez zuten txarretsi Lojendio eta Arrue karlistak euskaltzain egitea; alderantziz! Hona horren frogak: 1953ko abuztuan, Etxanizek Ibinagabeitiari gutuna:

«Emen aurki Donosti´ra bizí izatera joatekoa naiz; ta an, J.l. [Jainkoa lagún] ezer al-ba-det, aztartu bear det jendea. Gure jokaerarik egikorrena, Amigos del País bazkunaren itzalpean lan egitea izango genuke. Orre-la baimenak errezago iritxi genezazke. Gañera, karlista euskaltzale batzuek

gurekin artzea, mesede genuke. Aldundiko Lendakaria, Caballero, ta Arrue 'tar Antonio, lege-gizona, ortarako egokiak izango ditugula, uste det.» Argitaragabea.

Eta Ziburutik J. Rezolak A. Ibinagabeitiari:

«Jakingo dezue agian Arrue 'tar Antonio eta Lojendio 'tar Joxe Mari, euskalzain egin dituztela. Orrela esaten dit Amillaitz 'ek [Nemesio Etxaniz] ta berak dionez bestaldekoak izan arren euskeltzale benetakoak omen dira. Ba-dakizue Arrue au Asteasu 'ko legegizon bat dala eta karlisten arten buru ibili izandu dana. Uste dut Parma 'tar Pantzeska Xabier 'en idazkari izandu zala. Ba-dakizute gañera Parma au errege-nai oietakoa dala eta beste karlista askok, Franco 'ren aldeko diranak ez dutela begi onez ikusten. Diotenez euskel-izlari ona da baña nik ez det jakin euskera-ren alde itzaldi oietzaz gañera ezer egin duenik.

Lojendio jaunak berriz euskeraren aldeko izena izan du betikoz eta au ere izlari ona izan dala entzun izandu det. Ba-dakizute Lojendio 'tarren kastakoa dala eta onekin jabetuko zerate gauza askotzaz. Ala ere, diotenez, Lojendiotarren artean jatorrena omen degu eta batzuk diotenez benetan jatorra.

Neri iruditzen zait bi gizon ok euskalzain egin ba-dituzte, eralguntza oni abertzaletasun usaiá kentze-arren izango zala eta bide batez euskera-rentzat erretzasun eta laguntasun geio arkitzen ote duten. Ala izan dedilla.» (1954-12-21). Argitaragabea.

Aurrerago ere N. Etxanizek ez zuen inolako ezinikusirik agertzen Arrue-ren alderako:

«Garagarrilleko lenbiziko igandea izan zala, uste det. Bilbo 'n Arriaga antzokian egundoko euskal-jaia eratu ziguten. Arrue legegizonak (karlista bera, alabearrez) euskeraz eman zigun jardun bizigarri bat. Aren esanetatik bat, auxe: Euskera nundik datorren aztartzea baño geiago jakin nai dugula Euskera nora dijoan. Txalo aundiak jaso zituan. Ondoren Mitxelena Koldo 'k erderaz Euskaltzaindia 'k zerabilzkin asmoak azaldu zituan. (.) Nere Yorgi Manrique 'rena azken-ikutu-zai dut. Aspaldi burutu nizun, baña zuzenketak egiteko, besteren iritxi-begira nago. Arrue 'k itzaurrea egiteko asmoa dio, ta dotore azaldu nai dute.» (1956-VII-6). Argitaragabea.

Ez da hor batere gaitzespenik ageri; aitzitik, lankidetzat. Beraz, ezin da esan A. Arrue karlista tradizionalista zelako susmo txarrez hartu zutela N. Etxaniz bezalako jeltzaleek.

Ematen du inflexio-puntua 1960ko 339 euskal apaizen gutunak ekarri zuela. Nemesio Etxanizek A. Arruek berari eta On Manuel Lekuonari egindako belzkeriak aipatzen ditu batez ere, eta Koldo Mitxelenari egindako zerbaitek ere bai.

Batetik, gutun pribatuetan: A. Ibinagabeitiari:

«Zuek, orko euskaldunen iguina dezue. Guk, zer esango ote-degu, emengo EUSKALTZAINDI 'ko zenbait jauntxoei buruz? ... Nere zorioneko METODOA ba-dakizue noiztik dabillen erditu ezinik. Emen dira zezanak! Eztakizue asko, nola dabiltzan Metodo ori galdu naian. Ezta berealakoan azalduko, gauzak horrela ba-dijoaz. Oien lana auxe besterik ezta: gure gizaldiak euskerari eragin dion aurrerapena, ondatzea. Ba al-dakizu Arrue 'tar Antonio, (Asteasu 'ko Beltza du lendik gaitz-izena), nolako setati dabillen nere Metodo ori aurrera pasa ez dedin? Nik «rr» ta «ll» erabiltzen, zoritxarrez nere liburuan. Ai, ene, bada ta!

Gizon ori eden-utsa degu, ta komedianta ederra gañera, bere burua euskaltzale agertzen maixu jende-aurrean; baña pixka bat axtartu ezker, politiko zikin bat besterik ezta. Joan da lengo batean CCC 'ko Zuzendarirengana, ta itz txukunekin auxe esan dio: NOS QUIERE METER POR LOS COJONES.

Gizajoa, nunbait barrabillak mindu dizkio nere Metodo galgarri orrek. Orrelakotxeak dira gizon azpikeriz betetako orren lanak. Azkenean, nere izenik gabe azaldu bear du Metodoak. Onelaxe erabaki du gizontxo orrek. Eta utzi dezagun onenbestean. Geroak neurtuko du orren azalkeri ta billaukeria». (1961-VII-21) Argitaragabea.

Hurrengo urtean, osterat Ibinagabeitiari:

«Ba al-dakizu Arrue 'k egin didan azkenengoa? Irrati-lanen leiaketa sortu zuten, eta neri eman bear, ba, aurrenengo saria, ta or ibilli dira erabakirik eman nai ezik. Azkenean «desierto» deklaratu dute txapelketa. Desierto ori ezta Erandio 'koa izan, noski. Orrelako xaltzan parre egitea izaten da onena.» (1962-II-28). Argitaragabea.

1962an jokatu zen gerraondoan estreinako Euskal Herriko bertsolari txapelketa. N. Etzanizek Ibinagabeitiari gutunez kontaktatzen dionez, hor ere azpijokoan aritu ziren A. Arrue-eta txartelak saltzeko orduan:

«Euskera aldetik, pozgarri izan zan atzoko eguna. ASTORIA antzokian, Donostia 'ko zabalenean, egundoko jendetza bildu zan Euskalerriko Bertsolarien txapelketa erabakitzeko. Uztañide aitortu zuten, Basarri 'ren gain, txapeldun. Ta eztakizu, errietatik nola ibilli dan jendea, txartel eske barrura sartu nairik. Baiña Centro de Atracción y Turismo 'a ta gure Arrue ta abar ziran tartean, eta egundoko zikinkeria izan da txartel kontu orretan. Takillan txartelik ez; eta sarrera guziak ixilpean saltzen ari izan dira. Auek esku artean artzen duten guzia, zikindua azkenerako». (1962-XII-30). Argitaragabea.

Eta gero artikuluko batean, inon argitaratu bazen Alderdi-n argitaratukozena 1964an.

«Resulta bastante divertido el observar los manejos turbios de los que tratan de constituir entre nosotros el monopolio de todo lo referente a la cultura vasca, para dar al exterior la sensación de que ellos la apoyan, y al mismo tiempo impedir en el interior la labor que pueden realizar en pro de nuestra lengua y demás peculiaridades los que están capacitados para la misma.

En todas las fiestas populares euskéricas, un señor que ya desde antaño tenía dadas buenas muestras de su fobia hacia todos los que no se allanaran a sus estrechas ideas políticas, se arroga el derecho de soltar una soflama euskérica con latiguillos fáciles de un pretendido entusiasmo vasquista. Pero poco a poco se ha visto obligado a sacar a la luz pública sus trapos sucios, dejando bien patente la poca consistencia de su fervor euskérico.

Metido por la puerta trasera en la Academia Vasca, en su calidad de Comisario político para todo lo que se refiera al renacimiento vasco, lo mismito que en Rusia, reparte boletos de afectos y desafectos al régimen, cuidando puerilmente de impedir que éstos últimos laboren en pro de nuestra cultura o de que sus nombres no aparezcan en las obras debidas a su pluma.

Asimismo, en los Concursos de Literatura Vasca, con absoluto desprecio de la Moral, impide que el fallo de los jueces caiga en favor de sus di-

sidentes políticos; o lo que es aún más ridículo y da la medida ínfima de su calidad humana, prohíbe que los favorecidos por el fallo aparezcan consignados en la Prensa, escatimando sus nombres a la publicidad y creando unos autores fantasmas que resultan la diversión del público durante unos cuantos días.

De esta forma, boicoteó durante casi un año la publicación del Método de Vascuence con discos de la Academia CCC, prohibiendo cuando no pudo impedir su publicación, el consignar al frente de la obra el nombre de su autor. (.)

El año pasado (hace dos años tendría que decir ahora), se anunció un Concurso de Guiones Radiofónicos en euskera. El fallo había que darlo a favor del sacerdote Nemesio de Etxaniz. El referido Comisario político formaba parte del tribunal seleccionador y creyó que podía hacer del Concurso lo que le viniera en gana, y así fue retrasando el fallo durante cinco meses largos. No le valió su treta, porque el Centro de Atracción y Turismo quería volver a convocar otro doble Concurso de Cuentos y Guiones Radiofónicos en euskera (.) Por fin, obligado por reiteradas instancias del Comité de las Fiestas Euskaras, declaró desierto el premio, repartiendo las tres mil pesetas arbitrariamente entre cinco concursantes. Como, a pesar de sus deseos, el mayor premio había que otorgárselo al sacerdote anteriormente referido, se prohibió toda relación en la Prensa del correspondiente fallo (...)

Con Don Manuel Lekuona, el caso se agrava. Este sacerdote sufrió cruelmente a raíz del deplorable Movimiento con el asesinato de dos hermanos, uno de ellos sacerdote, sacrificados por los «Cruzados». Parece que esos señores que prepararon aquella ola de crímenes debían al cabo de 25 años demostrar un pudor y un arrepentimiento elementales por lo sucedido, esforzándose de una manera particular en mostrarse especialmente obsequiosos con los familiares de sus víctimas, sobre todo tratándose de un sacerdote y habiendo ellos blasonado de ultracatólicos.

Pues no hay nada de eso. Al contrario, todavía andan envenenando el ambiente. A don Manuel de Lekuona se le había encargado por el Comité de las Fiestas Euskaras de este año (del año pasado), una conferencia en euskera. Pero la Junta de los Torpedeadores le descartó del programa por haber dicho sacerdote sido uno de los 339 firmantes. Antes le retiraron una mísera gratificación que le entregaban por los diversos trabajos que le encargaba el Seminario Julio de Urkixo.

Este es el respeto que sienten hacia los sacerdotes estos señores que se pasaron la vida tachando a los demás de malos católicos. Lo mismo que en Rusia, se tolera a los sacerdotes afectos al régimen; a los demás se les procura una respetabilísima serie de represalias y desconsideraciones (.)

Amigo ASTEASUKO BELTZA, procure retirarse a tiempo de esos enredos, porque de otra suerte, dentro de poco, corre el riesgo de cargar con la responsabilidad de todos los chanchullos de mala ley que surjan en el campo de la cultura vasca (...)

Este artículo lo teníamos almacenado hace bastante tiempo. A última hora lo retiramos por bien de paz y para no envenenar el ambiente más de lo que está. Pero hete aquí que ASTEASUKO BELTZA ha rebasado el último límite que todavía le mantenía en nuestra relativa consideración.

Tras haber coceado a los demás euskaltzales, ha comenzado últimamente su trabajo de zapa contra el señor don Luis de Mitxelena. Este señor, que no tiene ninguna necesidad de zancadillas de mala ley, ha puesto al BELTZA en el lugar que le corresponde.

Después de todo, va a resultarnos muy saludable el que este señor haya sacado a la luz todo su maquiavelismo, para mantener en adelante alerta nuestra guardia contra sus maquinaciones... (Nemesio Etxaniz, 1992).

Horrelako gauzetan zaila da epaiketa batean balioa izango zuketean frogak aurkeztea, baina, guretzat, Nemesio Etxanizen lekukotasuna sinesgarritasun osokoa da, are gehiago hasieran batere aurkakotasunik gabe eta aldekotasunez onartu baitzuen haren izendapena, eta zenbait poema itzuliren hitzaurregile ere hortxe nonbait izan baitzuen.

Alde iluna ere izan zuen argi eta garbi Antonio Arrue euskaltzainak, eta batez ere horixe azaleratu nahi izan dugu artikulu honetan, alde argiak bestetan azaleratuak ditugunez gero.

3. Laburbilduma

1954an egin zuten Antonio Arrue euskaltzain, euskararen alde eginak zituen merituengatik baino gehiago egin zitzakeenengatik, besteak beste, euskarazko liburuak argitaratzeko eta biltzarrak egiteko baimenak lortzen

eman zezakeen laguntzagatik; karlista tradizionalista izanik, euskaltzale gerra-galtzaileek ez zituzten adiskideak eta harremanak zituen erregimenean norbait zirenen artean, bera ere izan baitzen norbait Francoren erregimenaren baitan –Alfonso XIII.a erregeak 1926an sorturiko Meritu Zibilaren Ordenaren domina eman zioten 1964an, Espainiako estatuaren zerbitzuan egindako merituengatik, eta 1967tik 1971era, familia ordezkari izan zen Espainiako Gorte Organikoetan-.

Liburuak argitaratzeko –*Peru Abarka* 1956an, *Gero* 1964an, *Auspoa* saila.– eta Euskaltzaindiaren biltzarrak –Arantzazu, 1968– eta halaber bertso txapelketak –60ko hamarkadan– antolatzeke laguntza eman zuen. *Egan* eraberritzeko ere bai 1954an, eta gastronomiaz idatzi zuen euskaraz eta zenbait literatur kritika ere egin zituen euskaraz; beraz, karlista tradizionalista euskaltzale gutxiatariko bat izan genuen dudarik gabe. Dominaren aurkia da hori, eta alde goresgarri hori aitortu zaio: Aita Villasantek, Aita Zavalak, *Egan*-eko Gillermo Etxeberriak, nik neuk, eta berriki Manuel Martorellek.

Era berean, Francoren erregimenaren atxikitzaile gisa, eman zioten Meritu Zibilaren Ordenaren dominaren merezidun gisara, azpijokoan aritu zen Nemesio Etxaniz edo On Manuel Lekuona bezalako jeltzaleen aurka, haien merituak ezkututzen eta haien jarduera publiko euskaltzalea oztopatzen. Alde batera, erregimenak erregio-hizkuntzatzat jotako euskarari ezartzen zizkion muga hertsizorrotzak zabaldu nahian bezala, baina bestalde muga hertsiz horiek ezin eramanak eta ezin gordeak zitzaizkien euskaltzale finei mugak ezarriaz edo oroitaraziaz, erregimenaren aldeko ezkutuko lan zikinean.

Alde biei erreparatu gabe, on-gaitzei kasu eman gabe, Antonio Arrueren jardueraren irudi faltsua gera liteke gure kultur memorian. Eta bidegabea litzateke!

Bibliografia

ARRUE, Antonio, 1979, *Jan-edanak*. Prest. Luis Villasante. Donostia: Aurrezki Kutxa Probintziala.

———, 2008, *Idaztiak eta hitzaldiak*. Prest. Antonio Zavala. Bilbo : Euskaltzaindia. Baita: http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/72482.pdf.

ETXANIZ, Nemesio, 1992, *Izotz-kandelak (eleberria) Gobernadore jaunari eta beste zenbait jauni (gutunak)*. Prest.: Iñaki Seguro. Donostia: Elkar.

MARTORELL, Manuel, 2011, «Antonio Arrue, el carlista que colaboró en el renacimiento de Euskaltzaindia», *Euskera*, 2011, 56, 3, 847-872.

SUDUPE, Pako, 2011, *50eko hamarkadako euskal literatura. II. Kazetaritza eta saiakera*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

TORREALDAI, Joan Mari, 2000, *Artaziak*. Zarautz: Susa.

Liburu aipamenak

Euskera. 2012, 57, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564



Joana Albreten biografia bat

GARTZIA, Pruden

Azkue Bibliotekako zuzendaria

Roelker, Nancy Lyman (1968) *Queen of Navarre: Jeanne d'Albret 1528-1572*, Cambridge, Massachusetts: Harvard University Press, 503 or.

Iruzkindu nahi dugun liburua duela berrogei urte baino gehiago argitaratua zen, Estatu Batuetan, eta 1979an frantsesera itzuli bazen ere, badut errezeloa gaur egun ez dela oso ezaguna gure artean. Neuk ere ez nuen haren arrastorik harik eta, berriki, John Elliott historialari ingelesak gomendatua ikusi nuen arte. Euskal Herrian bertan gutxienez lau biblioteka publikotan aurkitu daitezkeen arren (Azkue Biblioteka, Deustuko Unibertsitatekoa, Nafarroako Unibertsitatekoa eta Baionako Udal Liburutegia), ez da, dena dela, eskuratzeko erraza. Hala ere, hura atzeman eta irakurtzeko lana hartzen duenak nekez esan ahal izango du denbora alferrik galtzen ibili denik, liburu zinez ederra baita alderdi guztietatik, ondoren erakusten saiatuko garen bezala.

Liburu hau historiografia anglosaxoiean hain klasikoak diren biografia horietako bat da, alegia, pertsonaia historiko bati buruz dugun ezagutza agortzeko asmo garbia izateaz gain, hura bere giroan eta garaian kokatu nahi duena eta judizio kritikorik emateko batere lotsarik ez duena. Bi hitzetan, pertsonaia eta bere garaia gurutzatzen duen liburua, diskurtso historiko kritikoa koherente bat sortuz. Garrantzitsua da, beraz, protagonistaren bizitza interesgarria izatea eta munta handikoa gertatzea herrialde jakin baten historia argitu nahi denean. Baldintza guztiak betetzen ditu liburu honek.

Hasteko, Joana Albreten bizitza zinez interesgarria suertatzen da gaur egun ikuspuntu bat baino gehiagotatik. Lehenengo eta behin, Historian

ageriko eragina eduki duen emakume gutxi horietako bat da; bigarrenik, erlijioarekin lotutako arazoak dira haren bizitzaren giltza nagusia eta, hirugarrenik, haren jarduera-eremua funtsean Frantzia bada ere, *nafar auziak*, alegia, Aragoiko erregeak 1512tik aurrera gauzatu zuen erresuma zahararren okupazioak eta zatiketak, okupatutako zatia Gaztelako koroari lotu zio-larik, berebiziko garrantzia du erregina Joanaren bizitzan, Frantziaren historian eta, baten bati harrigarria irudituko bazaio ere, baita Europako historian ere. Beraz, emakumetasuna, protestantismoa eta Nafarroaren zatiketa (gure artean arrunki konkista edo anexioa deitzen dena); ez da dudarik hiru osagaiok interes handia pizten dutela gaur egungo euskaldunen artean.

Baina garaia ere biziki interesgarria begitantzen zait: XVI. mendearen lehen bi herenek Errenazimentuaren goren aroa markatzen dute, lehen monarkia nazional handien umatzea eta, aldi berean, erreforma protestantearen hedapena, mota guztietako erlijio-gerrak eta gatazkak ekarriz. Oron buru, indibiduoaren kontzientzia librearen auzia lehen aldiz mahaigaineratzen da indar handiz eta, harekin batera haren ustezko ifrentzua, hots, herritarrek nahitaez nork bere printzearen erlijioa segitu beharra (*cuius regio, eius religio*). Gai horiek guztiek leku handia izango dute Joana Albreten bizitzan.

Eta liburua biografia bat denez gero, Joanaren bizitzaren kontakizunak markatzen du kapituluaren arteko antolamendua eta narrazioaren hari nagusia. Halaber, arreta handia eskaintzen zaio ez soilik haren bizitzako gertakizunak zehatz-mehatz eta ñabardura osoz kontatzeari, baizik eta baita ere haren izaera eta garapen psikologikoa aztertzeari. Ildo honetan liburua eredugarria da zinez: psikologismo merke guztietatik oso urrun, hala ere azterketa fina bezain sakona eskaintzen du, oso argigarria puntu askotan. Tamalez, neurea baino ingeles joriagoa behar da ñabardura eta xehetasun guztiak modu egoki batean dastatzeko eta haztatzeko. Tesi nagusia, dena den, erraz atzematen da eta hitz gutxitan aurkez daiteke: Joana emakumezko bat da, emakumeok gizonezkoen mendeko eta, areago, tresna huts izaten ziren garai batean. Ez da harrigarria, beraz, haren aitak (Henrike Albret) eta senarrak (Antonio Bourbon) hura tresna politiko huts gisa baliatzeko egin zituzten saio etengabeak, baina bai da harrigarria Joanak gazte-gaztetatik bere nortasuna finkatzeko erakutsi zuen adorea eta kemena: uko egin zion beti

inoren *tresna* huts izateari eta, areago, bere azken urteotan *marigizon* ospe nabarmena eskuratu zuen, alegia, gizonezkoei *klasikoki* esleitzen zaizkien *dohainak* nabarmentzen omen zitzaizkion: borondate sendoa, erabakimena, harrotasuna, agresibitatea, are eta zakarkeria ere. Ildo horretan, bereziki adierazgarria da Joanaren izaeraren alderdi horri dedikatzen dion kapitulu monografikoa (IX.a), baina baita ere Cleves-eko dukearekin izandako sasi-ekontzaren auzia (II. kap.) edo haren bizitzaren bukaeran Katalina de Medici erregina amarekin izandako negozioaz latzak, bere seme Henrikeren ekontzaren harira (XIII. kap.): kasu guztietan Joanak presio latz eta handiei egin behar izan zien aurre, bere irizpideak irmoki defenditu zituelarik. Izaera horren kontraste eta neurri gisa beste bi emakumeren potreta aurkezten zaigu luze eta pasarte ugaritan. Batetik, Margarita Nafarroakoa, Joanaren ama eta Frantziako errege Frantzisko I.aren arreba bakarra, alabaren ifrentzua, bizi osoa anaiaren zerbitzura higatu baitzuen, bere nortasun propioa guztiz ezereztuz maila ia-ia erridikulu bateraino, zenbait gutunetan irakur daitekeen gisan. Hots, Margaritak poz-pezik onartu zuen erregearen *tresna politiko* huts eta debotoa izatea. Baina bestetik Katalina de Medici, Joanaren lehengusina (lehengusuaren emaztea) eta Frantziako erregina lehenik (Henrike II.a senarrarekin) eta erregina ama eta boterearen zinezko jabea gero, hogeita hamar urtetan, bere hiru semeekin (Frantzisko II.a, Karlos IX.a eta Henrike III.a). Hau ere Joana bezala nortasun handi-handiko emakumea izan zen, baina lehengusina Joana ez bezalakoa, botere-estrategia guztiz *femeninoak* baitzituen: agresibitatea eta larderia beharrez, pertsonen manipulazioa, engainua, makurkeria eta xantaia emozionala. Bere ama eta lehengusinaren aldean Joana guztiz desberdin aurkezten zaigu, beraz, eta behin baino gehiagotan egileak paralelismo garbiak, baina aski diskretoak, trazatzen ditu garai bereko beste erregina protestante batekin: Ingalaterrako Elisabet II.a, zeinekin hainbat gutun trukatu baitzituen. Horra bi erregina, Joana Nafarroakoa eta Elisabet Ingalaterrakoa, konparazio luzeagoak mereziko lituzketenak.

Hari horretatik laburki tiratuz: biek izan zuten, uneren batean, ekontze-ko pretendiente bera: Filipe II.a Espainiakoa, kasu bietan Frantziaren kontrako koalizioak sortzeko xedez, eta kasu bietan zapuztua. Edo, beste alderdi batetik hartua, Joanaren seme Henrike Nafarroakoa ere agertu izan zen,

serioski, erregina Elisabetek izan zituen balizko senarren zerrenda luzean, kasu honetan Filipe Espainiakoaren kontrako koalizio *protestante* gogor bat antolatzeko xedetan. Izan ere, politika eta erlijioa beti eskutik joan badira ere, badirudi XVI. mende honetan inoiz baino estuagoa izan dutela harremana, eta fedearen eskakizunak oso gutxitan nagusitu dira *realpolitik* tris-tearen aldean. Joanarena, beharbada, harreman latz hori aztertzeko kasu nabarmen bat da.

Zeren honez gero irakurle bipila konturatu da gure Joana Albret ez zela izan, inola ere, erresuma txiki (ñimiño esatea ere ez da esajerazioa, hori baitzen egiazki haren kontrolpeko Nafarroa Beherea) eta marjinal baten monarka indarge eta barregarria; aitzitik, lehen-lehen mailako agente politikoa izan zen XVI. mende erdialdeko Europan. Eta hori lau ezaugarri esker: lehenik, Frantziako errege-familiako kidea zen, bai ama aldetik (esan dugun bezala, Margarita Frantziako erregearen arreba bakarra zen) bai senarraren aldetik ere (Antonio Bourbon Frantziako Lehen Odol-Printzea zen, alegia, lehena ondorengotzan erregearen semeen atzetik); bigarrenik, lurralde ugarien jabea zen (Nafarroaz gain), batzuk Frantziako koroapekoak (Vendome, Albret, Armagnac.) eta beste batzuk formalki independenteak (Biarno); hirugarrenik, Frantziako protestante kalbinisten lider nagusia izan zen, eta laugarrenik, Nafarroako erregina zen, Nafarroa Espainiako erregearen arazo nagusietako bat zen garaian. Lau ezaugarriok azalpen osagarri batzuk behar dituzte.

Lehena, dudarik gabe, nagusia da: Frantziako errege-etxearekiko ahaidegoa da Joanaren garrantzi politikoaren eragile nagusia, horrek bihurtzen zuen haren ezkontza lehenik, eta haren semearena gero, lehen-lehen mailako arazo politikoa Europan. Baina ahaidego horrek, huts-hutsean, ez du guztia esplikatzen, faktore gehigarri batzuk kontuan hartu behar dira. Lehenengo eta behin, termino feudaletan esanda, haren jabetzapeko lurralde zabal-zabalak, mapa batean harrigarriko zabalera hartzen dutenak (ik. 12.-13. orrietakoa). Ez dezagun ahaztu XVI. mendeko monarkiarik zentralizatuenak ere (Frantzia, Espainia eta Ingalaterra) oraindik monarkia feudalak direla funtsean, non eta erregea doi-doi den oraindik *primus inter pares* bat baino zerbait gehiago; Frantzian bertan, montmorencytarrak, guisetarrak, albretarrak, bourbontarrak, rohandarrak... egundoko indarra zeukaten lei-

